# 4.
# MAGNITUDE NAGUSIEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA

## 4.1. SARRERA

EAEko turismoaren oinarrizko magnitudeen bilakaerari buruzko ahalik eta ikuspegirik osatuena lortzeko eta jardueraren egungo egoeraren ahalik eta erradiografiarik argiena eskaintzeko, informazio-iturri guztiak erabili behar dira, baita iturri horiek konparazioa egiteko aukerak eta emandako datuen erabateko fidagarritasunaren bermea mugatzen dituzten ikuspegi eta metodologia desberdinei erantzuten dietenean ere.

Diagnostiko honen ondorioetarako, honako informazio-iturri hauek erabili dira funtsean:

- *Eustaten Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta*. Inkesta horretan, *hotel-establezimenduetan* —hala nola hoteletan, hostaletan eta pentsioetan— eta *landa-turismoko establezimenduetan* (nekazaritza-turismokoak eta landa-etxeak barne) erregistratzen direnak hartzen dira turisten sarreratzat.

- *Espainiarren Turismo Mugimenduei buruzko Estatistika (FAMILITUR)* eta *Mugetako Turismo Mugimenduei buruzko Estatistika (FRONTUR), Turismo Azterlanen Institutuak* landuak. Aurreko informazioaz gain, *bigarren bizilekuko egonaldi laburren eta txangozaletasunaren fenomenoak hartzen dituzte kontuan*. Bi estatistika-iturri horiek *gutxi gorabeherako* datuak ematen dituzte, inkestak baitira (datuak ezin dira konparatu Eustaten estatistikak eskaintzen dituenekin).

- *INE*. Beste Autonomia Erkidego eta hiriburu batzuekiko konparazio-datuak eta kanpinetako turisten sarrerei buruzko datuak lortzeko, INEk argitaratzen dituen inkestetan agertutako datuak erabili dira.

- *Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko inkesta (IBILTUR)*, Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sailburuordetzak landua.

## 4.2. EAEko TURISMO-ESKARIAREN BILAKAERA

### 4.2.1. Turisten eta txangozaleen sarrerak, alojamendu-tipologiaren eta jatorriaren arabera

Erabilitako estatistika-iturrietatik lortutako datuak ikusita, 2004an EAEra joan ziren turisten kopurua *5 milioitik gora izan zela esan daiteke:*

- Lehen taldea, ongi mugatua, alojamendu-establezimendu publikoetara (hotel-establezimenduetara, landa-turismoko establezimenduetara eta kanpinetara) joandako turistek osatzen dute. *2004an, bi milioi lagun baino gehiago izan dira.* Sektorearen egoera ebaluatzeko erreferentziazko zifra da.

- Hala ere, jende asko biltzen duten beste talde garrantzitsu batzuk ere badaude: senitartekoen eta adiskideen etxebizitzetara, etxebizitza propioetara eta alokairuan hartutako etxebizitzetara joaten diren edo beste alojamendu-formula batzuk erabiltzen dituzten turistak dira. 2003an, 1,1 milioi lagun izan ziren. Azkenik, bigarren bizileku propioetan egonaldi laburrak (4 gau baino gutxiagokoak) egiten dituztenek hirugarren taldea osatzen dute. 2003an, 2,1 milioi lagun izan ziren. Beraz, guztira, EAEn izan diren turisten kopurua 5 milioitik gora izan da.

INEk emandako datuen eta *Eustatek* landutako *Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkestaren* datuen arabera, 2004an *2.004.273 turistak* hartu zuten ostatu alojamendu-establezimendu publikoetan, hau da, hotel-establezimenduetan, landa-turismoko establezimenduetan (nekazaritza-turismokoak eta landa-etxeak) eta kanpinetan.

- Eustatek eta INEk alojamendu publikoetan egindako erregistroez gain, FRONTUR eta FAMILITUR estatistiken arabera 2003an EAEn izan ziren turisten artean 831.672 lagunek *bigarren bizilekuetan*

hartu zuten ostatu, hau da, senitartekoen eta adiskideen etxebizitzetan, etxebizitza propioetan edo alokairuan hartutako etxebizitzetan. Bestalde, kalkulatutakoaren arabera, deskribatuez bestelako alojamendu-formulak erabili dituztenak 236.855 lagun izan dira.

- Beraz, eta hainbat iturritatik eta urtetatik ateratako datuen arteko konbinazioarekin kontu handia izanik, Euskadin mota orotako turismo-zerbitzuak eskatu eta kontsumitu dituztenak *3.000.000 lagun direla esan nahi du horrek*.

- Zifra horiez gain, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

  – *Bigarren bizilekuetako egonaldi laburren* fenomenoa (2003an 2.100.000 inguru EAEn).
  – 7 milioi atzerritar baino gehiago egun bateko txangozale gisa etorri ziren EAEra (Frontur-etik lortutako datuak). Turista horiek turismo-produktuak eta turismo-zerbitzuak kontsumitzeko jarraibide propioak dituzte. Era berean, Estatu mailan oso garrantzitsua da txangozaletasunaren fenomenoa.

**Turisten eta txangozaleen sarrerak EAEn, alojamendu motaren eta jatorriaren arabera (2003-2004)**

| | EAE | Estatuaren gainerakoa | Atzerritarrak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Hotel-establezimenduak | 283.332 | 966.039 | 501.063 | 1.750.434 |
| Landa-turismoa | 38.275 | 41.441 | 8.360 | 88.076 |
| Kanpinak | 76.414 | | 89.349 | 165.763 |
| **Sarrerak alojamendu-establezimendu publikoetan, guztira (2004)** | | | | **2.004.273** |
| 2. bizilekua | 607.151 | | 224.521 | 831.672 |
| Bese bazuk* | 24.687 | | 212.168 | 236.855 |
| **Sarrerak beste alojamendu batzuetan, guztira (2003)** | | | | **1.068.527** |
| **TURISTAK, GUZTIRA** | **2.037.339** | | **1.035.461** | **3.072.800** |
| Egonaldi laburrak 2. bizilekuan (2003) | 2.116.724 | | D.e. | 2.116.724 |
| Txangozaleak (2003-2004)** | 11.344.064 | 1.467.248 | 7.211.909 | 20.023.221 |
| **SARRERAK, GUZTIRA** | **16.965.375** | | **8.247.370** | **25.212.745** |

*Iturria:* Egileak landua, EUSTATen, INEren, Frontur-en Familitur-en datuetan oinarrituta.

* Beste batzuk: senitartekoen, adiskideen eta abarren etxebizitzak.

** Estatuko eta Euskadiko txangozaletasunari buruzko datuak Familitur-etik lortu dira. Atzerriko txangozaleei buruzko datua 2004. urtekoa da.

### 4.2.2. Turisten sarrerak eta gaualdiak, alojamendu-tipologiaren arabera (1997-2004)

Beraz, datu zehatzak emateko zailtasuna gorabehera, garrantzitsua da turismo-industriak eta diseinatzen den turismo-politikak milioi bat zortziehun mila lagunena (bi milioi 2004an) eta, zenbaitetan, milioi bat eta bostehun mila lagunena (milioi bat eta zazpiehun eta berrogeita hamar mila 2004an) baino ikuspegi zabalagoa izan behar dutela jakitea, hoteletako sarrerek eta gaualdiek gainerako alojamendu motetan (landa-turismokoetan eta kanpinetan) bildutakoen aldean duten indarra kontuan hartuta.

Izan ere, 2004an alojamendu-establezimendu publikoetan ostatu hartu zuten *2.004.273* turistetatik, %87,3 hotel-establezimenduan erregistratu zen, %8,3 kanpinean eta gainerako %4,4 landa-turismoko alojamenduan.

**Turisten sarrerak EAEn, alojamendu motaren arabera (1997-2004)**

| | 1997 | 1999 | 2004 | Ald. (%) 97-99 | Ald. (%) 99-04 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) | Eskariaren hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hotelak | 1.095.002 | 1.486.844 | 1.750.434 | 35,8 | 17,7 | 59,9 | 87,3 | 80,8 |
| Landa-turismoa* | d.e. | 57.831 | 88.076 | — | 52,3 | 55,7 | 4,4 | 7,1 |
| Kanpinak | 88.323 | 140.226 | 165.763 | 58,8 | 18,2 | 87,7 | 8,3 | 12,1 |
| **Guztira** | **1.183.325** | **1.684.901** | **2.004.273** | **42,4** | **19,0** | **69,4** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria:* Egileak landua, EUSTATen eta INEren datueTAN OInarrituta.

* Landa-turismoko alojamenduen 97-04ko aldakuntza 98-04 aldiari dagokio. Halaber, eskariaren hazkunderako ekarpena 1998-2004 aldikoa da.

Hotel-establezimenduen garrantzia nabaria da. *97-04 aldian, establezimendu mota horretan izan diren sarreren kopurua %60 igo da.* Halaber, azpimarratu beharra dago gainerako tipologietan sarrerei dagokienez izandako hazkundea, hau da, landa-turismoko establezimenduetan (%55,7 1998tik 2004ra bitarte) eta kanpinetan (%87,7 1997tik 2004ra bitarte).

**Turisten sarrerak EAEn, alojamendu motaren arabera (%)**

1998




2004




*Iturria:* Egileak landua, EUSTATen eta INEren datuetan oinarrituta.

- *Gaualdiei* dagokienez, EAEn *4.003.188* izan dira EAEn 2004an, hau da, %24,5eko hazkundea izan da 1999ko zifren aldean, eta %71,8koa 1997koen aldean.
- Alojamendu motari dagokionez, 2004an gaualdi kopuru handiena izan dutenak hotel-establezimenduak dira (guztizkoaren %82,2) eta, ondoren, kanpinak (%11,3) eta nekazaritza-turismoko establezimenduak (%6,5). Zehazki, *hotel-establezimenduetako gaualdien kopuruak %58,4ko igoera izan du 1997-2004 aldian.*

**Turisten gaualdiak EAEn, alojamendu motaren arabera (1997-2004)**

| | 1997 | 1999 | 2004 | 97-99 Ald. (%) | 99-04 Ald. (%) | 97-04ko kuota | 2004 Ald. (%) | Eskariaren hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hotelak | 2.076.679 | 2.636.110 | 3.289.658 | 26,9 | 24,8 | 58,4 | 82,2 | 70,9 |
| Landa-turismoa* | d.e. | 157.946 | 261.906 | — | 65,8 | 94,3 | 6,5 | 12,5 |
| Kanpinak | 253.628 | 420.400 | 451.624 | 65,8 | 7,4 | 78,1 | 11,3 | 16,6 |
| **GUZTIRA** | **2.330.307** | **3.214.456** | **4.003.188** | **37,9** | **24,5** | **71,8** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria:* Egileak landua, EUSTATen eta INEren datuetan oinarrituta.

* Landa-turismoko alojamenduen 97-04ko aldakuntza 98-04 aldiari dagokio. Halaber, eskariaren hazkunderako ekarpena 1998-2004 aldikoa da.

**Gaualdiak EAEn, alojamendu motaren arabera (%)**
**(1997-2004)**




*Iturria:* Egileak landua, EUSTATen eta INEren datuetan oinarrituta.

## 4.2.3. Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan (1997-2004)

Euskal turismoak azken urteotan izan duen bilakaerak ongi bereizitako bi etapa izan ditu. Etapa horiek EAEko hotel-establezimenduetan izandako sarreren zein gaualdien bilakaeran oinarrituta azter daitezke:

- *A fasea:* 1997-1999 aldia; bisitarien eta gaualdien kopuruan hazkunde handia izan zen (%35,8 eta %33,9, hurrenez hurren). Hazkunde horretan, hainbat faktorek izan dute eragina: urte horietan egindako turismo-inbertsio eta kultura-inbertsio garrantzitsuak, ETAren su-etena, ziklo ekonomiko onuragarria eta abar.

- *B fasea:* 1999-2004 aldia; munduko turismo-merkatua geldotu egin zen neurri batean (Irailak 11, «atzeraldi» ekonomikoa, Irak eta abar). Geldotze horrek ongi bereizitako bi azpietapa eragin zituen:

  – Sarreren eta gaualdien beherakada Euskadin, 1999tik 2001era bitarte:

    - 1999-2000: (%–1,3 eta %–1,8, hurrenez hurren).
    - 2000-2001: (%–5,5 eta %–3,5).

  – Suspertzea eta gorako joera Euskadin, 2001etik 2004ra bitarte:

    - 2001-2002: (%+9 eta %+8).
    - 2002-2003: (%+4,8 eta %+4).
    - 2003-2004: (%+10,4 eta %+11).

**Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan: bilakaera.**
**EAE (1997-2004)**







*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

EAEko turismoak azken urteotan eta, bereziki, 1998tik aurrera izan zuen bilakaeraren ondorioz, 2004an turismoa gehieneko historikoetara iritsi da hotel-establezimenduetako gaualdiei eta sarrerei dagokienez:

- *1.750.434 bidaiariren sarrerak hoteletan,* hau da, 1997an baino %60 gehiago.
- *3.289.658 gaualdi hoteletan,* hau da, 1997an baino %58,4 gehiago.

Hala ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, nagusiki 1998tik aurrera *turismo-jardueran gertatu zen joera-aldaketa* fenomeno mugatua izan zen hasieran, bai ikuspuntu geografikotik, bai alojamendu motaren ikuspuntutik. Dena dela, hurrengo urteetan hazkunde-dinamika EAE osora zabaldu da, eragin handiagoarekin edo txikiagoarekin.

### 4.2.4. Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan, Lurralde Historikoaren arabera

*Lurralde-ikuspegitik,* Bizkaia (eta, zehazkiago, Bilboko ingurune metropolitarra) izan zen 1998tik aurrera garatutako turismo-jardueraren joera-aldaketa (hotel-establezimenduetako gaualdien eta sarreren ikuspegitik) nabaritu zuen lehen eremu geografikoa.

Dena dela, joera horrek (A fasea) ez zuen eragin bera izan hiru Lurraldeetan. Ondorengo grafikoetan ikus daitekeenez, Gipuzkoak denbora luzeagoa behar izan zuen hazkundea erabat zabaltzeko, «olio-orbana» izango balitz bezala. Era berean, Araban izandako hazkundeak are denbora gehiago behar izan zuen. Lurralde horretako joerak ez du antzik beste bi lurraldeetakoekin.

**Hotel-establezimenduetan izan diren EAEko turisten kopuruaren bilakaera, L.H.en arabera (1994-2004) (1994 = 100)**




**EAEko hotel-establezimenduetako gaualdien kopuruaren bilakaera, L.H.en arabera (1994-2004) (1994 = 100)**




*Iturria:* EUSTAT, Hotel Establezimenduei buruzko Inkesta.

## 4.2.5. Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan, estratuen arabera

Bilakaera helmuga-estratuen ikuspegitik aztertzen bada, *ehunekoei dagokienez 1997tik 2004ra bitarte hazkunderik handiena izan duen estratua barnealdea dela ikus daiteke* (%76 eta %79,6, hurrenez hurren). Halaber, eskariaren hazkunderako egindako ekarpena %28,6 izan da sarreretan eta %28,9 gaualdietan. Beraz, azpimarragarria izan da. Bestalde, *hiriburuen estratuak* ere hazkunde garrantzitsua izan du (%59,6 sarreretan eta %55,5 gaualdietan). Horrez gain, guztizko hazkunderako egindako ekarpena EAEn 1997tik 204ra bitarte izandako sarrera eta gaualdi guztien %63,9 eta %61,5 izan da, hurrenez hurren.

Azken batean, euskal turismoak 1997-2004 aldian izan duen hazkundea euskal hiriburuetan eta, zehazkiago, Bilbon biltzen dela esan daiteke.

**Hotel-establezimenduetan izan diren bidaiarien sarreren bilakaera, estratuen arabera. (1997-2004)**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskadi** | **1.095.002** | **1.393.140** | **1.486.884** | **1.750.434** | **35,8** | **17,7** | **59,9** | **100,0** | **100,0** |
| Hiriburua | 703.003 | 959.548 | 1.025.039 | 1.121.686 | 45,8 | 9,4 | 59,6 | 64,1 | 63,9 |
| Kostaldea | 145.542 | 157.846 | 166.297 | 195.093 | 14,3 | 17,3 | 34,0 | 11,1 | 7,6 |
| Barnealdea | 246.457 | 275.746 | 295.548 | 433.655 | 19,9 | 46,7 | 76,0 | 24,8 | 28,6 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Hotel-establezimenduetan izan diren bidaiarien gaualdien bilakaera, estratuen arabera. (1997-2004)**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskadi** | **2.076.679** | **2.571.605** | **2.780.435** | **3.289.658** | **33,9** | **18,3** | **58,4** | **100,0** | **100,0** |
| Hiriburua | 1.345.512 | 1.763.791 | 1.884.317 | 2.091.962 | 40,0 | 11,0 | 55,5 | 63,6 | 61,5 |
| Kostaldea | 291.236 | 316.380 | 351.263 | 407.410 | 20,6 | 16,0 | 39,9 | 12,4 | 9,6 |
| Barnealdea | 439.931 | 491.434 | 544.855 | 790.286 | 23,9 | 45,0 | 79,6 | 24,0 | 28,9 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Zehazkiago, eta *hiriburuei* dagokienez, EAEko hotel-establezimenduetan izan diren turisten sarrerei buruzko azterketak lurraldeen portaera desberdina izan dela erakusten du, arestian adierazi bezala. Horrela, beraz:

- *Gasteizen* igoera handia izan du 1997-2004 aldiko sarreren kopuruak (%72). Hala ere, EAEko hiriburuetako hotel-establezimenduetan izan diren sarrera guztien %18,1era iritsi da 2004an.

- *Bilbo* da, zalantzarik gabe, aztertutako aldian hazkunderik handiena izan duen hiriburua. Ehunekoetan gora egiteaz gain (%79,4ko igoera), hiru hiriburuetan izan diren sarrera guztien %46,2 bildu du. Hortaz, hiriburu garrantzitsuena eta turisten sarrerei dagokienez gehien hazten ari dena da gaur egun.

- *Donostiari* dagokionez, 1997an hiru hiriburuetako garrantzitsuena zen, baina, ikus daitekeenez, protagonismoa galdu du Bilboren mesedetan. Donostiako hazkunde-tasek denbora gehiago behar izan dute gora egiteko. Azpimarratu beharra dago 1999-2004 aldian %2,3ko igoera izan dela sarreren kopuruan.

**Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan.**
**Hiriburuak (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Turisten sarrerak hotel-establezimenduetan.**
**Hiriburuak (1997-2004)**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | 117.802 | 174.468 | 180.827 | 202.581 | 53,5 | 12,0 | 72,0 | 18,1 | 20,2 |
| Bilbo | 288.884 | 434.686 | 452.376 | 518.294 | 56,6 | 14,6 | 79,4 | 46,2 | 54,8 |
| Donostia-San Sebastián | 296.317 | 350.394 | 391.836 | 400.811 | 32,2 | 2,3 | 35,3 | 35,7 | 25,0 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Euskal hiriburuetako turisten sarreren eta gaualdien bilakaera kategorien arabera aztertuz gero, adierazitako aldian joera garrantzitsuak izan direla ikus daiteke:

- 1. taldeko hotel-establezimenduetako sarreren ehuneko-igoerak 2. taldeko hotel-establezimenduetako sarrerenak baino handiagoak izan dira. Azpimarratu beharra dago 1999-2004 aldian (B fasea)

behera egin duela Gasteizko eta Bilboko 2. taldeko hotel-establezimenduetan izan diren turisten sarreren kopuruak.

- 1997-2004 aldian turisten sarrerei eta gaualdiei dagokienez ehuneko-igoerarik handienak Bilboko 1. taldeko hotel-establezimenduek izan dituzte (%86,5 eta %87,1, hurrenez hurren), eta, ondoren, Gasteizkoek (%78,3 eta %58,1) eta Donostiakoek (%44,3 eta %37,5). Azpimarragarria da Bilboko 1. taldeak sarreretan izan duen igoera handia. Horrela, beraz, hiriburuetako hotel-establezimenduetako sarrera guztien ia %40 estratu horretan bildu da.

- Beraz, euskal turismoak 1997-2004 aldian izan duen hazkundea funtsean hiriburuetan eta, zehazki, Bilboko hiru, lau eta bost izarreko hotel-establezimenduetan (1. taldean) gertatu dela esan daiteke.

**Turisten sarrerak hotel-establezimenduetan, kategoriaren arabera. Hiriburuak (1997-2004)**

| | | 1997 | 1998 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | 1. taldea | 70.941 | 97.328 | 102.741 | 126.456 | 44,8 | 23,1 | 78,3 | 11,3 | 13,3 |
| | 2. taldea | 46.862 | 77.140 | 78.086 | 76.125 | 66,6 | –2,5 | 62,4 | 6,8 | 7,0 |
| Donostia-San Sebastián | 1. taldea | 182.570 | 221.974 | 254.625 | 263.410 | 39,5 | 3,5 | 44,3 | 23,5 | 19,3 |
| | 2. taldea | 113.747 | 128.420 | 137.211 | 137.401 | 20,6 | 0,1 | 20,8 | 12,2 | 5,6 |
| Bilbo | 1. taldea | 239.494 | 367.583 | 380.225 | 446.551 | 58,8 | 17,4 | 86,5 | 39,8 | 49,5 |
| | 2. taldea | 49.391 | 67.103 | 72.151 | 71.743 | 46,1 | –0,6 | 45,3 | 6,4 | 5,3 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

**Aldakuntza hotel-establezimenduetako turisten sarreretan, kategoriaren arabera. Hiriburuak (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

**Turisten gaualdiak hotel-establezimenduetan, kategoriaren arabera.**
**Hiriburuak (1997-2004)**

| | | 1997 | 1998 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | 1. taldea | 133.080 | 166.784 | 180.580 | 210.457 | 35,7 | 16,5 | 58,1 | 10,1 | 10,4 |
| | 2. taldea | 96.685 | 131.748 | 141.898 | 154.230 | 46,8 | 8,7 | 59,5 | 7,4 | 7,7 |
| Donostia-San Sebastián | 1. taldea | 356.131 | 422.395 | 491.516 | 489.671 | 38,0 | –0,4 | 37,5 | 23,4 | 17,9 |
| | 2. taldea | 227.756 | 237.870 | 248.746 | 272.931 | 9,2 | 9,7 | 19,8 | 13,0 | 6,1 |
| Bilbo | 1. taldea | 438.934 | 673.731 | 673.983 | 821.323 | 53,5 | 21,9 | 87,1 | 39,3 | 51,2 |
| | 2. taldea | 92.925 | 131.263 | 147.594 | 143.350 | 58,8 | –2,9 | 54,3 | 6,9 | 6,8 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

Gainerako estratuei, hots, kostaldeari eta barnealdeari dagokienez, sarreren kopuruan izandako bilakaera ikusiko dugu orain. Grafikoen arabera, gaualdien antzeko joerak izan dituzte.

**Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan.**
**Kostaldea (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan.**
**Barnealdea (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- *Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldean* kokatutako hotel-establezimenduetako sarreren eta gaualdien kopuruaren bilakaeran joera desberdinak agertu dira. Gipuzkoako kostaldean, joerak gorabeherak izan ditu. Bizkaiko kostaldeak, berriz, hazkunde handia izan du A fasean, sarreretan zein gaualdietan. Bilboko eremu metropolitarrean dauden udalerrietako (hala nola Getxoko) turisten sarrerak eta gaualdiak zenbatu izanak lagundu egin du horretan.

- *Barnealdearen* kasuan, Arabako barnealdeak A fasean izan zuen bilakaera negatiboa azpimarratu beharra dago. Izan ere, gainerako bi lurraldeetan hazkunde garrantzitsuak lortu ziren fase horretan, eta joera horrekin jarraitu dute 1999-2004 aldi osoan. Kasu horretan ere, Bizkaiko zenbait udalerri (hala nola Zamudio, Portugalete eta Santurtzi) estratu horretan sartu izana lagungarria izan da.

## 4.2.6. Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan. Autonomia Erkidegoekiko konparazioa

EAEko datuak Estatu espainoleko gainerako Autonomia Erkidegoek izan duten bilakaerarekin konparatzen baditugu eta horretarako INEk Hotel Okupazioari buruzko Inkestaren bitartez emandako datuak oinarritzat hatzen baditugu eta erreferentziazko aldi gisa 1997tik 2004ra bitartekoa hartzen badugu, *Euskadik turisten sarreretan zein gaualdietan izan duen bilakaera positiboa hain garrantzitsua ez dela* ikusiko dugu. Izan ere, 9. postuan gaude turisten sarreretan hazkunde handiena izan duten erkidegoen artean, eta 6. postuan gaualdietan lortutako hazkundeari dagokionez.

**Hotel-establezimenduetan izan diren turisten sarreren bilakaera, Autonomia Erkidegoen arabera. (1997-2004)**

| Sarrerak | 1997 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **41.597.180** | **58.324.265** | **66.772.792** | **40,2** | **14,5** | **60,5** | **100,0** | **100,0** |
| Andaluzia | 8.020.430 | 10.734.116 | 12.588.198 | 33,8 | 17,3 | 57,0 | 18,9 | 18,1 |
| Aragoi | 1.264.960 | 1.660.719 | 1.904.721 | 31,3 | 14,7 | 50,6 | 2,9 | 2,5 |
| Asturias | 475.042 | 1.007.083 | 1.181.124 | 112,0 | 17,3 | 148,6 | 1,8 | 2,8 |
| Balear Uharteak | 4.925.410 | 7.007.617 | 6.862.560 | 42,3 | –2,1 | 39,3 | 10,3 | 7,7 |
| Kanariar Uharteak | 2.907.225 | 5.032.858 | 5.030.549 | 73,1 | 0,0 | 73,0 | 7,5 | 8,4 |
| Kantabria | 442.083 | 893.519 | 941.795 | 102,1 | 5,4 | 113,0 | 1,4 | 2,0 |
| Gaztela eta Leon | 1.200.131 | 3.482.427 | 4.019.602 | 190,2 | 15,4 | 234,9 | 6,0 | 11,2 |
| Gaztela-Mantxa | 2.428.871 | 1.757.179 | 1.899.878 | –27,7 | 8,1 | –21,8 | 2,8 | –2,1 |
| Katalunia | 7.302.938 | 9.786.779 | 11.536.962 | 34,0 | 17,9 | 58,0 | 17,3 | 16,8 |
| Valentzia | 3.076.440 | 4.272.197 | 5.820.186 | 38,9 | 36,2 | 89,2 | 8,7 | 10,9 |
| Extremadura | 717.016 | 1.053.505 | 1.027.484 | 46,9 | –2,5 | 43,3 | 1,5 | 1,2 |
| Galizia | 1.707.991 | 2.886.535 | 3.683.725 | 69,0 | 27,6 | 115,7 | 5,5 | 7,8 |
| Madril | 4.814.775 | 5.439.703 | 6.479.555 | 13,0 | 19,1 | 34,6 | 9,7 | 6,6 |
| Murtzia | 563.441 | 689.268 | 925.449 | 22,3 | 34,3 | 64,2 | 1,4 | 1,4 |
| Nafarroa | 321.308 | 615.927 | 626.279 | 91,7 | 1,7 | 94,9 | 0,9 | 1,2 |
| **Euskadi** | **1.044.630** | **1.518.777** | **1.698.113** | **45,4** | **11,8** | **62,6** | **2,5** | **2,6** |
| Errioxa | 269.999 | 381.354 | 437.943 | 41,2 | 14,8 | 62,2 | 0,7 | 0,7 |
| Ceuta eta Melilla | 114.490 | 104.702 | 108.663 | –8,5 | 3,8 | –5,1 | 0,2 | –0,02 |

*Iturria:* INE, Hotel Okupazioari buruzko Inkesta.

1999ra bitarteko informazioa (INE) ez da guztiz fidagarria, arazoak izan baitira INEren direktorioan. EUSTATen arabera, Euskadiko hotelei dagokien 99-04 aldakuntza ez da %11,8, %17,7 baizik (ikus 54. orrialdea). Datu horrekin, 6. postura igoko ginateke eta Kantaurialdean Galizia baino ez genuke aurretik izango.

1999-2004 aldiko gaualdien bilakaerari dagokionez, zenbait erkidegotan (hala nola Asturiasen, Galizian eta Nafarroan) izandako gehikuntzen azpitik gaude, eta Kantabriaren gainetik. EUSTATek Euskadiren inguruan emandako datuei jarraitzen badiegu (guretzat fidagarriagoak dira), 99-04ko igoera %18,3 izan dela ikusiko dugu, Galiziaren eta Asturiasen atzetik.

**Hotel-establezimenduetan izan diren gaualdien bilakaera, Autonomia Erkidegoen arabera. (1997-2004)**

| Gaualdiak | 1997 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **166.733.310** | **229.435.780** | **234.919.282** | **37,6** | **2,4** | **40,9** | **100,0** | **100,0** |
| Andaluzia | 26.341.907 | 33.377.325 | 38.851.249 | 26,7 | 16,4 | 47,5 | 16,5 | 18,3 |
| Aragoi | 2.582.002 | 3.567.925 | 3.971.821 | 38,2 | 11,3 | 53,8 | 1,7 | 2,0 |
| Asturias | 1.024.017 | 2.090.084 | 2.678.808 | 104,1 | 28,2 | 161,6 | 1,1 | 2,4 |
| Balear Uharteak | 44.273.530 | 58.330.372 | 47.984.377 | 31,7 | –17,7 | 8,4 | 20,4 | 5,4 |
| Kanariar Uharteak | 23.454.427 | 40.177.728 | 38.075.395 | 71,3 | –5,2 | 62,3 | 16,2 | 21,4 |
| Kantabria | 1.102.805 | 2.137.764 | 2.309.644 | 93,8 | 8,0 | 109,4 | 1,0 | 1,8 |
| Gaztela eta Leon | 1.833.319 | 5.663.864 | 6.714.325 | 208,9 | 18,5 | 266,2 | 2,9 | 7,2 |
| Gaztela-Mantxa | 3.806.174 | 2.688.782 | 3.218.197 | –29,4 | 19,7 | –15,4 | 1,4 | –0,9 |
| Katalunia | 27.486.228 | 35.087.899 | 38.057.483 | 27,7 | 8,5 | 38,5 | 16,2 | 15,5 |
| Valentzia | 15.284.663 | 19.136.003 | 21.797.319 | 25,2 | 13,9 | 42,6 | 9,3 | 9,6 |
| Extremadura | 1.128.502 | 1.628.401 | 1.796.540 | 44,3 | 10,3 | 59,2 | 0,8 | 1,0 |
| Galizia | 3.805.269 | 6.631.945 | 7.890.893 | 74,3 | 19,0 | 107,4 | 3,4 | 6,0 |
| Madril | 9.340.172 | 11.719.275 | 13.448.146 | 25,5 | 14,8 | 44,0 | 5,7 | 6,0 |
| Murtzia | 2.019.544 | 2.284.276 | 2.607.728 | 13,1 | 14,2 | 29,1 | 1,1 | 0,9 |
| Nafarroa | 584.215 | 1.052.130 | 1.225.861 | 80,1 | 16,5 | 109,8 | 0,5 | 0,9 |
| **Euskadi** | **1.938.532** | **2.869.482** | **3.231.015** | **48,0** | **12,6** | **66,7** | **1,4** | **1,9** |
| Errioxa | 495.571 | 681.547 | 812.346 | 37,5 | 19,2 | 63,9 | 0,3 | 0,5 |
| Ceuta eta Melilla | 232.433 | 310.978 | 248.143 | 33,8 | –20,2 | 6,8 | 0,1 | 0,02 |

*Iturria:* INE, Hotel Okupazioari buruzko Inkesta.

**Ondorioak:**

- EAEko bisitarien guztizko kopurua zehaztea ez da batere erraza. Lehen taldea, ongi mugatua, alojamendu-establezimendu publikoetara (hotel-establezimenduetara, landa-turismoko establezimenduetara eta kanpinetara) joan diren turistek osatzen dute. 2004an, bi milioi lagun baino gehiago izan dira (1,8 milioi 2003an). Sektorearen egoera ebaluatzeko erreferentziazko zifra da.

- Hala ere, jende asko biltzen duten beste talde garrantzitsu batzuk ere badaude (horiei buruzko datuak hainbat inkestatan lortu dira): alde batetik, bigarren etxebizitzetan (etxebizitza propioetan, alokairuan hartutakoetan edo senitartekoen edo adiskideen etxebizitzetan) eta beste alojamendu mota batzuetan hiru gau baino gehiago eman dituztenak; 2003an 1,1 milioi lagun izan ziren. Lehenekin batera, turistak berak dira. Hirugarren taldean, bigarren bizileku propioetan egonaldi laburrak (segidako 4 gau baino gutxiagokoak) egin dituztenak daude. 2,1 milioi lagun dira eta estatistiketan ez dira turistatzat hartzen. Beraz, guztira, EAEn gaua igaro duten bidaiarien kopurua 5 milioitik gora izan da.

- Azkenik, txangozaleak gaineratu behar zaizkie zifra horiei (EAEn gaua igarotzen ez duten eta atzerritarrak direnean baino neurtzen ez diren bidaiariak): 2004an 7.211.909 lagun izan ziren. Estatuko beste eskualde batzuetakoekin batera (horiek ere ez dira ingi neurtzen), fenomeno ekonomiko garrantzitsua dira.

- Alojamendu-establezimendu publikoei dagokienez, EAEra etortzen diren turisten %86,3k hoteletan hartzen du ostatu, %8,8k kanpinetan eta gainerako %4,9ak landa-turismoko alojamenduetan (nekazaritza-turismokoetan eta landa-etxeetan). Egoera hori ez da 1998koaren berdina. Hotelen ehunekoa %2 txikiagoa da, eta ehuneko hori landa-turismoko alojamenduen eta kanpinen artean banatuta dago.

- EAEko turismo-jarduerak 1997-2004 aldian izan duen bilakaerak ongi bereizitako bi fase izan ditu. 1997-1999 aldian, EAE osoan, baina funtsean Bizkaian eta, zehazkiago, Bilbon, hazkunde bizkorra gertatu zen turisten sarreren zein gaualdien kopuruan. Hazkunde bizkorreko fase horren ondoren (Gipuzkoan eta Araban motelagoa izan zen), finkatze-fasea garatu zen. Fase horretan, sarreren eta gaualdien kopuruaren gehikuntza egonkortu egin zen.

- Estatuko beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, Euskadik turisten sarreren zein gaualdien kopuruan izan duen bilakaera positiboa ez da hain garrantzitsua izan 1999-2004 alditik aurrera. EAEk izan dituen ehuneko-igoeren ondorioz, 9. postuan gaude turisten sarreretan hazkunde handiena izan duten erkidegoen artean, eta 6. postuan gaualdietan lortutako hazkundeari dagokionez.

## 4.3. EGONALDIAREN IRAUPENA, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA URTAROKOTASUNA

### 4.3.1. Batez besteko egonaldiaren iraupena

Frontur-etik eta Familitur-etik lortutako datuen arabera, EAEra etortzen diren turisten egonaldiaren batez besteko iraupena bi gau da kasuen erdietan. *Atzerriko turistek EAEra egindako bidaien %49,8k bi gaueko iraupena du gehienez* (asteburuko egonaldiak), eta beste %30ek astebeteko iraupena du gehienez.

**EAEra etortzen diren atzerriko turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera (2003)**

| Egonaldiaren iraupena | 2003 | |
|---|---|---|
| | Guztira | % |
| **Turismo-bidaiak, guztira** | **904.144** | **100,0** |
| Bi gau edo gutxiago | 449.918 | 49,8 |
| 3-7 gau | 262.278 | 29,0 |
| 8-15 gau | 98.450 | 10,9 |
| 16-21 gau | 30.443 | 3,4 |
| 21 gau baino gehiago | 63.056 | 7,0 |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Mugetako Turismo Mugimenduak (Frontur).

Turista guztiei buruzko datuak. Horien artean, %51,7k «hoteletan eta antzekoetan» hartzen du ostatu, %21,8k «doako etxebizitzetan», %3k «alokairuan hartutako etxebizitzetan» eta %23,5ek «beste batzuetan» (zehaztu gabe). 2004ko datuak ez daude eskuragarri dokumentu hau lantzeko unean.

*Estatuaren gainerakoan eta EAEn bertan bizi direnek EAEra egiten dituzten bidaien erdien iraupena bi gau da gehienez* (asteburuko egonaldiak), eta beste %25ek astebeteko iraupena du gehienez.

**EAEra etortzen diren Estatuko eta EAEko turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera (2003)**

| Egonaldiaren iraupena | 2003 | |
|---|---|---|
| | Guztira | % |
| **Turismo-bidaiak, guztira** | **930.035** | **100,0** |
| 1-3 egun | 462.585 | 49,7 |
| 4-7 egun | 238.300 | 25,6 |
| 8-15 egun | 124.218 | 13,4 |
| 16-21 egun | 31.926 | 3,4 |
| 21 egun baino gehiago | 73.006 | 7,8 |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Espainiarren Turismo Mugimenduak (Familitur).

Turisten sarrerei buruzko datuak (alojamendu-establezimendu publikoetan zein etxebizitza propioetan, senitartekoen edo adiskideen etxebizitzetan, alokairuan hartutakoetan eta abar). 2004ko datuak ez daude eskuragarri dokumentu hau lantzeko unean.

### 4.3.2. Batez besteko egonaldia alojamendu-establezimendu publikoetan

*Alojamendu-establezimendu publikoetan* (hoteletan, kanpinetan, nekazaritza-turismoko establezimenduetan eta landa-etxeetan) *soilik egiten diren turisten sarrerei dagokienez, hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 1,88 egun izan zen* 2004an. 1998-2004 aldiko mailarik altuena 2001. urtean lortu zen (1,9 egun). Bes-

talde, *landa-turismoko establezimenduetako* batez besteko egonaldia handiagoa izan da (2,97 egun). Azkenik, kanpinen kasuan 2,72 egun izan zen batez besteko egonaldia.

**EAEko hotel-establezimenduetako, landa-turismokoetako eta kanpinetako batez besteko egonaldiaren bilakaera (1997-2004)**

| | Hotelak | Landa-turismoa | Kanpinak |
|---|---|---|---|
| 1997 | 1,90 | d.e. | 2,87 |
| 1998 | 1,85 | 2,38 | 2,53 |
| 1999 | 1,87 | 2,73 | 2,93 |
| 2000 | 1,86 | 2,52 | 3,00 |
| 2001 | 1,90 | 2,62 | 3,00 |
| 2002 | 1,88 | 2,60 | 2,98 |
| 2003 | 1,87 | 2,66 | 2,78 |
| 2004 | 1,88 | 2,97 | 2,72 |




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta e INE.

**EAEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldiaren bilakaera, L.H.en arabera (1994-2004)**




**EAEko landa-turismoko alojamenduetako batez beteko egonaldiaren bilakaera, L.H.en arabera (1998-2004)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Estratuak kontuan hartuta, *hiriburuetako hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia* barnealdeko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia baino luzeagoa da Araban eta Gipuzkoan, bidaiariaren motibazioari dagokionez turismo-eskariaren osaera bi kasuetan oso desberdina bada ere.

Bizkaian ez da gauza bera gertatzen. Lurralde horretan, batez besteko egonaldi luzeenak barnealdeko establezimenduetan egiten dira. Dena dela, bidaien motibazio garrantzitsuena lana edo negozioa da kasu horietan (%48).

Bizkaian, barnealdeko batez besteko egonaldiak hiriburukoak, Bilbokoak eta kostaldekoak baino luzeagoak dira. Gainera, Bizkaiko kostaldeko batez besteko egonaldiak Gipuzkoakoak baino laburragoak dira nabarmen (1,92 egun eta 2,19 egun, hurrenez hurren).

Bestalde, batez besteko egonaldiak luzeagoak dira 2 izarreko edo gutxiagoko hotel-establezimenduetan. Araban dagoen aldea bereziki esanguratsua da.

**Batez besteko egonaldia hotel-establezimenduetan, estratuen arabera (1997-2004)**

| | | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Araba** | **Vitoria-Gasteiz** | 1,95 | 1,71 | 1,78 | 1,80 | 1,99 | 1,87 | 1,90 | 1,80 |
| | 1. taldea | 1,88 | 1,71 | 1,76 | 1,70 | 1,87 | 1,70 | 1,76 | 1,66 |
| | 2. taldea | 2,06 | 1,71 | 1,82 | 1,92 | 2,16 | 2,11 | 2,08 | 2,03 |
| | **Barnealdea** | 1,84 | 1,83 | 1,89 | 1,81 | 1,87 | 1,39 | 1,45 | 1,49 |
| **Gipuzkoa** | **Donostia-San Sebastián** | 1,97 | 1,88 | 1,89 | 1,86 | 1,91 | 1,90 | 1,90 | 1,90 |
| | 1. taldea | 1,95 | 1,90 | 1,93 | 1,88 | 1,87 | 1,88 | 1,87 | 1,86 |
| | 2. taldea | 2,00 | 1,85 | 1,81 | 1,84 | 1,98 | 1,93 | 1,95 | 1,99 |
| | **Gipuzkoako kostaldea** | 2,07 | 2,11 | 2,24 | 2,10 | 2,24 | 1,99 | 2,06 | 2,19 |
| | **Gipuzkoako barnealdea** | 1,87 | 1,72 | 1,82 | 1,84 | 1,79 | 1,85 | 1,83 | 1,88 |
| **Bizkaia** | **Bilbo** | 1,84 | 1,85 | 1,82 | 1,88 | 1,89 | 1,92 | 1,87 | 1,86 |
| | 1. taldea | 1,83 | 1,83 | 1,77 | 1,85 | 1,86 | 1,89 | 1,85 | 1,84 |
| | 2. taldea | 1,88 | 1,96 | 2,05 | 1,99 | 1,99 | 2,07 | 1,97 | 2,00 |
| | **Bizkaiko kostaldea** | 1,84 | 1,83 | 1,89 | 1,81 | 1,87 | 1,89 | 1,87 | 1,92 |
| | **Bizkaiko barnealdea** | 2,23 | 2,33 | 2,12 | 2,08 | 2,07 | 2,05 | 1,95 | 1,94 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

1. taldea: 3 izar edo gehiago.
2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

**Batez besteko egonaldia hotel-establezimenduetan, Autonomia Erkidegoen arabera (1997-2004)**

| Batez besteko egonaldia | 1997 | 1999 | 2004 | Ald. (%) (97-99) | Ald. (%) (99-04) | Ald. (%) (97-04) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **4,01** | **3,93** | **3,52** | **–1,9** | **–10,6** | **–12,2** |
| Andaluzia | 3,28 | 3,11 | 3,09 | –5,3 | –0,7 | –6,0 |
| Aragoi | 2,04 | 2,15 | 2,09 | 5,3 | –2,9 | 2,2 |
| Asturias | 2,16 | 2,08 | 2,27 | –3,7 | 9,3 | 5,2 |
| Balear Uharteak | 8,99 | 8,32 | 6,99 | –7,4 | –16,0 | –22,2 |
| Kanariar Uharteak | 8,07 | 7,98 | 7,57 | –1,0 | –5,2 | –6,2 |
| Kantabria | 2,49 | 2,39 | 2,45 | –4,1 | 2,5 | –1,7 |
| Gaztela eta Leon | 1,53 | 1,63 | 1,67 | 6,5 | 2,7 | 9,3 |
| Castilla–La Mancha | 1,57 | 1,53 | 1,69 | –2,4 | 10,7 | 8,1 |
| Katalunia | 3,76 | 3,59 | 3,30 | –4,7 | –8,0 | –12,4 |
| Valentzia | 4,97 | 4,48 | 3,75 | –9,8 | –16,4 | –24,6 |
| Extremadura | 1,57 | 1,55 | 1,75 | –1,8 | 13,1 | 11,1 |
| Galizia | 2,23 | 2,30 | 2,14 | 3,1 | –6,8 | –3,9 |
| Madril | 1,94 | 2,15 | 2,08 | 11,1 | –3,7 | 7,0 |
| Murtzia | 3,58 | 3,31 | 2,82 | –7,5 | –15,0 | –21,4 |
| Nafarroa | 1,82 | 1,71 | 1,96 | –6,1 | 14,6 | 7,7 |
| **Euskadi** | **1,86** | **1,89** | **1,90** | **1,8** | **0,7** | **2,5** |
| Errioxa | 1,84 | 1,79 | 1,85 | –2,6 | 3,8 | 1,1 |
| Ceuta eta Melilla | 2,03 | 2,97 | 2,27 | 46,3 | –23,6 | 11,8 |

*Iturria:* INE. Hotel Okupazioari buruzko Inkesta.

Bestalde, *beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta,* eta INEren datuei jarraiki, 97an Nafarroaren eta Euskadiren abiapuntuak antzekoak zirela, baina Nafarroan bilakaera positiboagoa izan dela ikus dezakegu (gaur egun, 1,96 Nafarroan eta 1,90 Euskadin). Halaber, azpimarratu beharra dago hurbileko erkidegoek (Asturiasek, adibidez) termino erlatiboetan bilakaera positiboagoa izan dutela. Dena dela, batez besteko egonaldiari dagokionez, abiapuntu hobea zuten erkidego horiek.

Hona hemen batez besteko iraupenean eragin negatiboa duten zenbait faktore:

- *Helmugako baliabideen eta zerbitzuen antolamendu eskasa*. Aurreikusitakoaren arabera, 98-2004 aldian egindako ahalegin handiek epe labur-ertainean izango dituzte emaitzak.
- *Hotel-establezimenduen prezioak* eta, oro har, helmuga garestia delako pertzepzioa. Hori agerian geratzen da bigarren taldeko hoteletan, kanpinetan eta landa-turismoko alojamenduetan batez besteko egonaldia luzeagoa dela ikusita.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago gutxi gorabeheherako batez besteko prezioen sailkapenari buruzko informazioaren arabera EAE hirugarren postuan dagoela, Madrilen eta Kanariar Uharteen atzetik. Hori da sailkapen horretan gehienetan izan duen postua, 1998-2004 aldian behinik behin, 2000. eta 2001. urteetan izan ezik (orduan bigarrena izan zen).

**Gutxi gorabeherako batez besteko prezioak hotel-establezimenduetan, Autonomia Erkidegoen arabera (1998-2004)**

| | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **61,42** | **50,41** | **53,80** | **58,79** | **52,45** | **53,90** | **54,79** |
| Andaluzia | 66,04 | 52,44 | 57,80 | 58,96 | 51,47 | 54,39 | 54,13 |
| Aragoi | 43,84 | 39,46 | 42,13 | 49,62 | 44,58 | 47,91 | 49,96 |
| Asturias | 48,82 | 43,19 | 46,31 | 50,45 | 45,22 | 46,98 | 47,07 |
| Balear Uharteak | 54,31 | 40,04 | 44,60 | 45,91 | 39,52 | 41,77 | 43,28 |
| Kanariar Uharteak | 72,35 | 66,06 | 65,86 | 69,55 | 68,96 | 67,33 | 69,68 |
| Kantabria | 54,40 | 44,86 | 49,31 | 55,59 | 46,75 | 49,28 | 52,14 |
| Gaztela eta Leon | 51,19 | 38,89 | 40,63 | 42,85 | 41,10 | 42,49 | 43,49 |
| Gaztela-Mantxa | 45,62 | 36,90 | 39,49 | 44,07 | 42,11 | 42,87 | 45,23 |
| Katalunia | 56,36 | 51,92 | 56,26 | 65,28 | 54,13 | 57,27 | 58,14 |
| Valentzia | 56,64 | 43,75 | 47,66 | 46,47 | 42,69 | 44,49 | 44,18 |
| Extremadura | 51,40 | 39,81 | 41,11 | 44,83 | 42,98 | 43,65 | 44,66 |
| Galizia | 48,81 | 37,95 | 40,32 | 43,63 | 37,47 | 39,34 | 40,93 |
| Madril | 103,19 | 71,77 | 76,49 | 84,21 | 72,59 | 75,70 | 75,98 |
| Murtzia | 52,94 | 44,35 | 48,82 | 46,41 | 42,35 | 41,97 | 44,99 |
| Nafarroa | 61,12 | 50,36 | 54,81 | 63,53 | 55,55 | 57,84 | 59,15 |
| **Euskadi** | **71,94** | **62,72** | **68,49** | **72,46** | **64,72** | **66,61** | **64,16** |
| Errioxa | 59,93 | 50,58 | 53,10 | 60,23 | 57,99 | 60,40 | 60,73 |
| Ceuta eta Melilla | 63,42 | 48,68 | 52,32 | 58,25 | 49,33 | 47,98 | 55,32 |

*Iturria:* Egileak landua, Hotel Okupazioari buruzko Inkestaren (1998-1999 eta 2000) datuetan eta HPIan (2000-2004) oinarrituta.

2000tik aurrerako datuak urtarrilekoak dira.

Hotelen prezioen indizea (HPI) enpresaburuek Espainiako hoteletan ostatu hartzen duten bezeroei aplikatutako prezioen bilakaerari buruzko neurri estatistikoa da. Hortaz, sektoreko prezioen bilakaera neurtzen du, eskaintzaren ikuspegitik.

2002. urteko indizea kalkulatzeko, oinarria eguneratu da (2001. urtera), baita zenbait alderdi metodologiko ere.

**Hotelen, kafetegien, tabernen eta jatetxeen KPIaren bilakaera (1994-2004)**




*Iturria:* INE; Kontsumoko Prezioen Indizea.

Oro har, *Euskadi turismo-helmuga gisa garestia delako* pertzepzioa dagoela esan daiteke. Euskadiko turisten artean, euskal herritarren kopurua garrantzitsua da, segmentu jakin batzuetan bederen (%45 nekazaritza-turismoan), eta prezioak Euskadiko turismo-sektorea garatzeko hobetu beharreko alderdia direla uste dute herritar gehienek.

### 4.3.3. Urtarokotasuna

Turismo-jardueraren ezaugarri bat urtarokotasuna da. Hala ere, segmentu eta produktu jakin batzuk bultzatzeak eta zenbait joera orokorrek (hala nola kostu txikiko aire-lineen gehikuntzak edo «opor-aniztasunaren» —oporraldia zatikatzearen— gorakadak) epe ertainean eragina izan dezakete egungo urtarokotasun-kurbetan.

**EAEko urtarokotasun-indizearen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera. (1997-2004)**




| | 1997 | 1999 | 2001 | 2003 | 2004 |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | **2,15** | **2,10** | **1,93** | **2,15** | **2,07** |
| Araba | 1,81 | 1,73 | 1,50 | 2,08 | 1,61 |
| Bizkaia | 1,61 | 1,84 | 1,48 | 1,80 | 1,92 |
| Gipuzkoa | 3,54 | 3,26 | 2,74 | 2,56 | 2,45 |

*Iturria:* Egileak landua, EUSTATen datuetan eta Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkestan oinarrituta.

Nolanahi ere, *urtarokotasun-indizea* (bidaiari gehien ibili diren hilabetearen eta bidaiari gutxien ibili diren hilabetearen arteko zatidura) oso gutxi aldatu da 1999-2004 aldian. Hala ere, indizea pixkanaka behera egiten ari dela ikus daiteke. Gipuzkoan adibidez, 1997an 3,54 zen, eta 2004an 2,45.

**Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan, landa-alojamenduetan eta kanpinetan. Guztira (2003-2004)**




*Iturria:* EUSTAT eta INE.

**Turisten sarrerak eta gaualdiak hotel-establezimenduetan, landa-alojamenduetan eta kanpinetan (2004)**




*Iturria:* EUSTAT eta INE.

*Hotel-establezimenduen urtarokotasunari* dagokionez, adierazi beharra dago hotel-okupazioaren mailek antzeko kurba dutela Europako Batasuneko herrialde guztietan, salbuespenak salbuespen (Austriak, adibidez, turista kopuru handia du neguan). Gehieneko indizeak udan lortzen dira, uztailean eta abuztuan bereziki. Hala ere, Frantziak eta Espainiak okupazio-tarte zabalagoa dute (otsailetik edo martxotik azarora bitarte).

Euskadi inguruko beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, kasu gehienetan udako hilabeteen eragina hain handia ez dela ikus daiteke, establezimendu mota edozein izanik ere. Nolanahi ere, kanpinetan urtaroen eragina handiagoa dela adierazi beharra dago. Neurri batean, Euskadin lanari edo negozioei lotutako turismoak oraindik garrantzi handia duelako gertatzen da hori. Beraz, EAEk funtsean udako hilabeteetan aisia-turismoan duen hazkunde-ahalmena handia da.

**Turisten sarrerak hotel-establezimenduetan, % (2004)**
(Oinarria: urtarrila=100)




*Iturria:* INE.

**Turisten sarrerak landa-turismoko alojamenduetan, % (2004)**
(Oinarria: urtarrila=100)




*Iturria:* INE.

**Turisten sarrerak kanpinetan, % (2004)**
(Oinarria: urtarrila=100)




*Iturria:* INE.

**Ondorioak:**

- Atzerriko, Estatuko zein EAEko turistek EAEra egiten dituzten bidaien erdiek bi gaueko iraupena dute gehienez, eta beste %25-30ek astebeteko iraupena du gehienez.

- Alojamendu mota kontuan hartuta, kanpinetako eta landa-turismoko alojamenduetako batez besteko egonaldiak hotel-establezimenduetakoak baino luzexeagoak dira. Nolanahi ere, batez besteko egonaldiaren bilakaera ia ez da aldatu azken urteotan.

- Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, hiriburuetako hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia barnealdeko hotel-establezimenduetakoa baino luzeagoa da. Bizkaian, aldiz, batez besteko egonaldia luzeagoa da barnealdean.

- Beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, 97an Nafarroaren eta Euskadiren abiapuntuak antzekoak zirela, baina Nafarroan bilakaera positiboagoa izan dela ikus dezakegu. Termino erlatiboetan, hurbileko beste erkidego batzuek (Asturiasek, adibidez) EAEk baino portaera hobea izan dute. Dena dela, abiapuntu hobea zuten erkidego horiek.

- Euskadik batez besteko egonaldia luzatzeko dituen zailtasunak neurri batean argitzen laguntzen duten faktoreen artean, honako hauek aipa daitezke: helmugako baliabideen eta zerbitzuen antolamendu eskasa, hotel-establezimenduen prezioak eta, oro har, helmuga garestia delako pertzepzioa. Estatu mailan, hotel-establezimenduen gutxi gorabeherako batez besteko prezioen sailkapenean EAE hirugarren postuan dago, Madrilen eta Kanariar Uharteen atzetik.

- Euskadi inguruko beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, kasu gehienetan udako hilabeteetan turisten sarreren kopurua txikiagoa dela ikus daiteke. Neurri batean, Euskadin lanari edo negozioei lotutako turismoak oraindik garrantzi handia duelako gertatzen da hori. Beraz, EAEk funtsean udako hilabeteetan aisia-turismoan duen hazkunde-ahalmena handia da.

## 4.4. ESKAINTZAREN DESKRIBAPENA: ALOJAMENDU-ESTABLEZIMENDUAK ETA ALOJAMENDU-PLAZAK

Turismoa Antolatzeko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 04-12-31n EAEko alojamendu-eskaintza 889 establezimendura eta 35.093 plazara iritsi zen. Zifra horiek *1997koekin konparatuta, hazkundea izan dela ikus daiteke, establezimenduen kopuruan zein alojamendu-plazen kopuruan (%74,7ko eta %35,8ko igoera, hurrenez hurren)*.

**EAEko establezimenduen eta alojamendu-plazen kopuruaren bilakaera (1997-2004)**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Establezimenduak | 509 | 550 | 601 | 651 | 710 | 762 | 814 | 889 | 74,7 |
| Plazak | 25.833 | 26.967 | 28.594 | 29.426 | 30.655 | 32.316 | 33.755 | 35.093 | 35,8 |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

Alojamendu mota kontuan hartuta:

- *Hotel-establezimenduek* (hotelek, hostalek, pentsioek eta abar) establezimenduen %55,9 eta plazen %63,7 biltzen dute.
- Ondoren, *landa-turismoko alojamenduek* (nekazaritza-turismokoek eta landa-etxeek) establezimenduen %32,7 biltzen dute. Plaza-eskaintzari dagokionez, berriz, %8,2 baino ez dute biltzen.
- *Kanpinen* kasuan, gaur egun 22 daude eta establezimenduen %2,5 baino ez dira, baina plazen %26,8.
- Azkenik, *«udatiarrentzako» alojamenduak* (apartamentuak, etxe partikularrak eta turismo-etxebizitzak) establezimendu guztien %8,9 dira eta eskainitako plaza guztien %1,3 biltzen dute. Hala ere, datu horiek ez dira osoak. Izan ere, erregistroetan inskribatuta dauden etxebizitzak baino ez dira agertzen, eta zenbatu eta aitortu gabeko parke handi bat dago.

Eskaintzaren hazkunde handienak izan dituzten establezimenduak aztertzen baditugu, 1997-2004 aldian portaerarik onena izan dutenak hotel-alojamenduak izan direla ikusten da argi eta garbi. Establezimenduen kopuruak %37,6ko gehikuntza izan du, eta plazen kopuruak, berriz, %65,3koa. Plaza kopuruari dagokionez, hurrengo alojamendu garrantzitsuenak kanpinak dira (plaza guztien %26,8). Hala ere, landa-turismoko alojamenduak garrantzitsuagoak dira alojamendu kopuruaren ikuspegitik zein azken urteotan izan duten bilakaeraren ikuspegitik.

**EAEko establezimenduak eta alojamendu-plazak, tipologiaren arabera (1997-2004)**

| | 1997 | | 2004 | | Ald. (%) 97-04 | | 2004ko kuota (%) | | Hazk. ekarpena 97-04 (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establez. | Plazak | Establez. | Plazak | Establez. | Plazak | Establez. | Plazak | Establez. | Plazak |
| Hotelak | 354 | 16.301 | 497 | 22.349 | 40,4 | 37,1 | 55,9 | 63,7 | 37,6 | 65,3 |
| Landa-turismoa | 135 | 1.346 | 291 | 2.877 | 115,6 | 113,7 | 32,7 | 8,2 | 41,1 | 16,5 |
| Kanpinak | 18 | 8.126 | 22 | 9.420 | 22,2 | 15,9 | 2,5 | 26,8 | 1,1 | 14,0 |
| Udatiarren alojam. | 2 | 60 | 79 | 447 | 3.850,0 | 645,0 | 8,9 | 1,3 | 20,3 | 4,2 |
| **Guztira** | **509** | **25.833** | **889** | **35.093** | **74,7** | **35,8** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

### 4.4.1. Hotel-establezimenduak eta hotel-plazak

1997-2004 aldian, *hotel-establezimenduen zein hotel-plazen kopuruak oso gehikuntza garrantzitsua* izan du. Sektorean itxaropen handiak sortu izanaren arrazoien artean, honako hauek aipa daitezke: 1997an eta 1998an sortutako baikortasuna, su-etena eta aldi horretako bultzada ekonomiko ikaragarria. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, establezimenduen kopuruak %40,4ko igoera izan du adierazitako aldian, eta plazen kopuruak, berriz, %37,1eko igoera. Igoera horiek hoteletan eta pentsioetan gertatu dira funtsean. Arestian adierazi bezala, plazen kopuruari dagokionez 1. taldeko hotelak (3, 4 eta 5 izarrekoak) izan dira garrantzitsuenak.

**EAEko hotel-establezimenduak, tipologiaren arabera (1997-2004)**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hotelak | 133 | 141 | 150 | 162 | 178 | 194 | 204 | 216 | 62,4 |
| Hostalak | 16 | 16 | 16 | 16 | 16 | 16 | 16 | 16 | 0,0 |
| Hostal/egoitzak | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 0,0 |
| Pentsioak | 164 | 179 | 189 | 202 | 205 | 209 | 217 | 224 | 36,6 |
| Ostatuak | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 0,0 |
| Apopilo-etxeak | 27 | 27 | 27 | 27 | 27 | 27 | 27 | 27 | 0,0 |
| **Guztira** | **354** | **377** | **396** | **421** | **440** | **460** | **478** | **497** | **40,4** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

**EAEko hotel-plazak, tipologiaren arabera (1997-2004)**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hotelak | 12.219 | 12.673 | 12.989 | 13.415 | 14.187 | 15.365 | 16.207 | 17.120 | 40,1 |
| Hostalak | 432 | 432 | 432 | 432 | 432 | 432 | 432 | 432 | 0,0 |
| Hostal/egoitzak | 333 | 333 | 333 | 333 | 333 | 333 | 333 | 333 | 0,0 |
| Pentsioak | 3.008 | 3.295 | 3.417 | 3.596 | 3.640 | 3.685 | 4.044 | 4.155 | 38,1 |
| Ostatuak | 56 | 56 | 56 | 56 | 56 | 56 | 56 | 56 | 0,0 |
| Apopilo-etxeak | 253 | 253 | 253 | 253 | 253 | 253 | 253 | 253 | 0,0 |
| **Guztira** | **16.301** | **17.042** | **17.480** | **18.085** | **18.901** | **20.124** | **21.325** | **22.349** | **37,1** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

Ehuneko-igoerek ongi samar erakusten dute hotel-alojamenduek beste alojamendu mota batzuen bilakaerarekin konparatuta hazkunde garrantzitsua izan dutela azken urteotan, baina are adierazgarriagoa da plazen kopuruari dagokionez hazkundearen %65,3 hotel-alojamenduetan gertatu izana. Hau da, hotel-establezimenduek oso hazkunde handia izan dute adierazitako aldian. Gainera, hazkundea etengabea izan da aldi osoan.

Era berean, hotel-alojamenduen barruan plazei dagokienez hazkunderik handiena izan dutenak aztertzen baditugu, argi eta garbi ikus daiteke portaerarik onena izan dutenak 1. taldeko hotelak izan direla (hots, 3, 4 eta 5 izarrekoak). Izan ere, 2004an alojamendu-plazen kuotarik handiena lortzeaz gain (%34,6), hazkunderako ekarpenik handiena egin dutenak izan dira (%34,1).

**EAEko hotel-establezimenduen eta hotel-plazen kopuruaren bilakaera (1994-2004) (1994=100)**




*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

**EAEko hotel-establezimenduak eta hotel-plazak, tipologiaren arabera (1997-2004)**

| Establezimenduak | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) | Eskain. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Hotelak | 133 | 216 | 62,4 | 24,3 | 21,8 |
| 5 izarrekoak | 3 | 6 | 100,0 | 0,7 | 0,8 |
| 4 izarrekoak | 19 | 30 | 57,9 | 3,4 | 2,9 |
| 3 izarrekoak | 30 | 45 | 50,0 | 5,1 | 3,9 |
| 2 izarrekoak | 44 | 68 | 54,5 | 7,6 | 6,3 |
| Izar 1ekoak | 37 | 67 | 81,1 | 7,5 | 7,9 |
| Hostalak | 16 | 16 | 0,0 | 1,8 | 0,0 |
| Hostal/egoitzak | 9 | 9 | 0,0 | 1,0 | 0,0 |
| Pentsioak | 164 | 224 | 36,6 | 25,2 | 15,8 |
| Ostatuak | 5 | 5 | 0,0 | 0,6 | 0,0 |
| Apopilo-etxeak | 27 | 27 | 0,0 | 3,0 | 0,0 |
| **Hotel-alojamend., guztira** | **354** | **497** | **40,4** | **55,9** | **37,6** |

| Plazak | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) | Eskain. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Hotelak | 12.219 | 17.120 | 40,1 | 48,8 | 52,9 |
| 5 izarrekoak | 613 | 1.571 | 156,3 | 4,5 | 10,3 |
| 4 izarrekoak | 4.624 | 5.864 | 26,8 | 16,7 | 13,4 |
| 3 izarrekoak | 3.751 | 4.707 | 25,5 | 13,4 | 10,3 |
| 2 izarrekoak | 2.024 | 2620 | 29,4 | 7,5 | 6,4 |
| Izar 1ekoak | 1.207 | 2358 | 95,4 | 6,7 | 12,4 |
| Hostalak | 432 | 432 | 0,0 | 1,2 | 0,0 |
| Hostal/egoitzak | 333 | 333 | 0,0 | 0,9 | 0,0 |
| Pentsioak | 3.008 | 4.155 | 38,1 | 11,8 | 12,4 |
| Ostatuak | 56 | 56 | 0,0 | 0,2 | 0,0 |
| Apopilo-etxeak | 253 | 253 | 0,0 | 0,7 | 0,0 |
| **Hotel-alojamend., guztira** | **16.301** | **22.349** | **37,1** | **63,7** | **65,3** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

**Hotel-establezimenduen eta hotel-plazen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera (1994-2004) (1994=100)**

ESTABLEZIMENDUAK




PLAZAK




*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

**Hotel-plazen bilakaera, udalerrien arabera (1997-2004)**

**1997**




**2004**




**EAEn sortutako hotel-plazak, udalerrien arabera. 1997-2004 aldia**




*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

*Lurraldearen ikuspegitik,* eta hotel-eskaintzari dagokionez, azpimarratu beharreko zenbait joera izan dira 1997-2004 aldian:

- 2004an, Bizkaia izan da hotel-establezimendu eta hotel-plaza gehien dituen lurraldea (establezimendu guztien %41,2 eta plaza guztien %44,9). Egoera hori hotel-eskaintzaren gorakada ikusgarri baten ondorioa izan da, 1999tik aurrera batez ere. Aztertutako A eta B faseen artean eskariak izan duen bilakaeraren ikuspegitik, urte «giltzarria» da 1999. hori.

- Gipuzkoako eta Arabako hazkundeak etengabeak izan dira, hazkunde-erritmoak apal samarrak izan badira ere (dena dela, bizitu egin dira 2001. urtetik aurrera).

- Azken batean, turisten sarreren kasuan bezala, *EAEko alojamendu-eskaintzak azken urteetan izan duen gorakada handiak ez du eragin bera izan EAE osoan. Funtsean, Bizkaiko Lurraldean gertatu da.*

Beste alderdi garrantzitsu bat *hotel-eskaintzaren hazkundearen ikuspuntutik aldakuntza gehien izan dituzten estratuen berri izatea da.* Ildo horretan, EAE osoan eta 1997-2004 aldian, hotel-plazen eskaintzan ehuneko-igoerarik handienak *barnealdeko hotel-establezimenduetan lortu ziren* (%62,3), eta, ondoren, hiriburuetako establezimenduetan (%42). Bereziki, 1. taldeko alojamenduetan, hots, hiru izarreko edo gehiagoko hoteletan lortu ziren (%25,5).

Dena dela, 1997an barnealdeko zifra absolutuak txiki samarrak izan ziren, eta horregatik lortu ziren ehuneko-igoera handiak estratu horretan. Estratu bakoitzak hotel-plazen eskaintza osoan duen indarra aztertuz gero, *indartsuenak hiriburuak eta, zehazki, 1. taldeko hoteletako plazak izan direla* ikus daiteke. Gainera, kontuan hartu behar da estratu horrek egin diola ekarpenik handiena plazen eskaintzaren hazkundeari (%50,2) eta, zehazkiago, 1. taldeko establezimenduek (%44,3).

**Hotel-alojamenduetako plazen bilakaera.**
**EAE, estratuen arabera (1997-2004)**

| Euskadi | Guztira | Hiriburua | | Kostaldea | Barnealdea |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1. taldea | 2. taldea | | |
| 1997 | 12.606 | 6.856 | 1.408 | 1.791 | 2.551 |
| 2004 | 16.546 | 8.603 | 1.640 | 2.162 | 4.141 |
| **Ald. (%) 97-04** | **31,3** | **25,5** | **16,5** | **20,7** | **62,3** |
| **2004ko kuota** | %100 | %52,0 | %9,9 | %13,1 | %25,0 |
| **Eskain. hazk. ekarpena, 97-04** | **%100** | **%44,3** | **%5,9** | **9,4%** | **%40,4** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

Ildo horretan, Lurraldeak kontuan hartuta, *plazen eskaintzan ehuneko-igoerarik handienak izan dituena Bizkaia izan da (%66),* eta ondoren Araba (%21,9). Gipuzkoan, berriz, eskaintzak ia ez du gora egin.

Bizkaian, zehazki, eskaintzaren ehuneko-igoerak handiak izan dira hiru estratuetan, baina barnealdeko eskaintzaren garapen handia bereziki azpimarratu beharra dago. Edonola ere, Bizkaiko barnealdea Bizkaiko

**Hotel-alojamenduetako plazen bilakaera.**
**Lurralde Historikoak, estratuen arabera (1997-2004). Aldakuntza (%) 97-04**

| | Guztira | Hiriburua | | Kostaldea | Barnealdea |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1. taldea | 2. taldea | | |
| Araba | **21,9** | 31,6 | 11,3 | — | 14,1 |
| Bizkaia | **66,0** | 36,9 | 17,4 | 51,2 | 402,2 |
| Gipuzkoa | **6,3** | 7,1 | 20,8 | 4,8 | 1,0 |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

eskaintza osoaren laurdena baino ez da, eta kontuan hartu behar da estratu horretan Portugalete, Santurtzi, Zamudio eta Derio daudela (Bilboko hinterlandean kokatuak). Hazkunderik handienak Bilbon lortu dira, 1. taldeko establezimenduetan bereziki (plazen eskaintza guztiaren %58,8 biltzen dute establezimendu horiek).

**Hotel-alojamenduetako plazen bilakaera.**
**Bizkaia, estratuen arabera (1997-2004)**

| Bizkaia | Guztira | Hiriburua | | Kostaldea | Barnealdea |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1. taldea | 2. taldea | | |
| 1997 | 4.691 | 3.347 | 362 | 613 | 369 |
| 2004 | 7.788 | 4.583 | 425 | 927 | 1.853 |
| **Ald. (%) 97-04** | **66,0** | **36,9** | **17,4** | **51,2** | **402,2** |
| **2004ko kuota** | %100 | %55,8 | %5,5 | %11,9 | %23,8 |
| **Eskain. hazk. ekarpena, 97-04** | **%100** | **%39,9** | **%2,0** | **%10,1** | **%47,9** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

Beraz, *EAEn azken urteotan alojamendu-eskaintzaren esparruan izandako hazkunde garrantzitsua funtsean Bizkaiko Lurraldean eta, zehazkiago, hiriburuan eta 3 izarreko edo gehiagoko establezimenduetan lortu dela esan daiteke.*

Arabaren kasuan, hotel-eskaintzan izandako gorakada Bizkaian baino apalagoa izan da, baina, Bizkaian bezala, hiriburuan eta 1. taldeko establezimenduetan lortu dira igoerarik handienak.

**Hotel-alojamenduetako plazen bilakaera.**
**Araba, estratuen arabera (1997-2004)**

| Araba | Guztira | Hiriburua | | Barnealdea |
|---|---|---|---|---|
| | | 1. taldea | 2. taldea | |
| 1997 | 2.223 | 1.072 | 513 | 638 |
| 2004 | 2.710 | 1.411 | 571 | 728 |
| **Ald. (%) 97-04** | **21,9** | **31,6** | **11,3** | **14,1** |
| **2004ko kuota** | %100 | %52,1 | %21,1 | %26,9 |
| **Eskain. hazk. ekarpena, 97-04** | **%100** | **%69,6** | **%11,9** | **%18,5** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

Gipuzkoan, ordea, joera ez da beste bi Lurraldeetako bera izan. Izan ere, *hotel-plazen eskaintzaren hazkundea %6,3 baino ez da izan*. Azpimarratu beharra dago eskaintzaren igoera urri horiek batez ere hiriburuan lortu direla eta barnealdean eskaintzak ia ez duela gora egin.

**Hotel-alojamenduetako plazen bilakaera.**
**Gipuzkoa, estratuen arabera (1997-2004)**

| Gipuzkoa | Guztira | Hiriburua | | Kostaldea | Barnealdea |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1. taldea | 2. taldea | | |
| 1997 | 5.692 | 2.437 | 533 | 1.178 | 1.544 |
| 2004 | 6.048 | 2.609 | 644 | 1.235 | 1.560 |
| **Ald. (%) 97-04** | **6,3** | **7,1** | **20,8** | **4,8** | **1,0** |
| **2004ko kuota** | %100 | %33,5 | %8,3 | %15,9 | %20,0 |
| **Eskain. hazk. ekarpena, 97-04** | **%100** | **%48,3** | **%31,2** | **%16,0** | **%4,5** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

### 4.4.2. Landa-turismoko alojamenduak eta kanpinak: establezimenduak eta plazak

1997-2004 aldian, landa-turismoko alojamenduen eta kanpinen hazkundea handia izan da establezimenduen zein plazen kopuruari dagokionez, landa-turismoko alojamenduen kasuan batez ere.

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, landa-turismoko establezimenduen kopuruak %115,6ko igoera izan du adierazitako aldian, eta plazen kopuruak, berriz, %113,7ko igoera. Igoera horiek nekazaritza-turismoko establezimenduetan zein landa-etxeetan gertatu dira. Landa-etxeek, zehazki, garapen handia izan dute (1998an 3 ziren, eta 2004an 91).

**Landa-turismoko alojamenduetako eta kanpinetako plazen eta establezimenduen bilakaera (1997-2004)**

| | 1997 | | 2004 | | Ald. (%) 97-04 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establezim. | Plazak | Establezim. | Plazak | Establezim. | Plazak |
| Landa-turismoa | 135 | 1.346 | 291 | 2.877 | 115,6 | 113,7 |
| Kanpina | 18 | 8.126 | 22 | 9.420 | 22,2 | 15,9 |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

Kanpinei dagokienez, hazkundea ez da hain garrantzitsua izan. 2004an dagoen azpiegitura 1997an zegoenaren ia berdina da.

## Landa-turismoko establezimenduak

Landa-turismoko establezimenduen kasuan, 97-2004 aldian hazkunde handia izan da, nekazaritza-turismoko establezimenduen zein landa-etxeen kopuruan.

**Landa-turismoko alojamenduetako plazen eta establezimenduen bilakaera (1997-2004)**

| | 1997 | | 2004 | | Ald. (%) 97-04 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establ. | Plazak | Establ. | Plazak | Establ. | Plazak |
| Nekazaritza-turismoa | 135 | 1.346 | 200 | 2.042 | 48,1 | 51,7 |
| Landa-etxea | — | — | 91 | 835 | — | — |
| **Landa-turismoa, guztira** | **135** | **1.346** | **291** | **2.877** | **115,6** | **113,7** |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

Zehazki, nekazaritza-turismoko establezimenduen kasuan eskaintzaren bilakaera etengabea izan da 1994tik gaur egun arte. 1997tik aurrera portaerarik onena izan duen lurraldea Bizkaia izan da (%60tik gorako igoera izan du plazen eskaintzan). 2004an, Gipuzkoak du plaza kopuru handiena (%53,7). Ondoren, Bizkaia eta Araba daude (%30,4 eta %15,8, hurrenez hurren).

**Nekazaritza-turismoko alojamenduetako plazak eta establezimenduak (1994-2004) (1994=100)**




*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

**Nekazaritza-turismoko alojamenduetako plazen bilakaera (1997-2004)**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bizkaia | 385 | 439 | 451 | 463 | 491 | 515 | 556 | 621 | 61,3 |
| Gipuzkoa | 734 | 756 | 784 | 825 | 869 | 957 | 1.007 | 1.097 | 49,5 |
| Araba | 227 | 235 | 240 | 258 | 270 | 292 | 314 | 324 | 42,7 |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

**Nekazaritza-turismoko alojamenduetako plazen eta establezimenduen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera (1994-2004) (1994=100)**




*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

## Kanpinak

- 2004. urtean, 22 kanpin zeuden EAEn, eta kopuru hori ia ez da handitu azken urteotan. 22 establezimendu horietan, 9.420 plaza zeuden guztira.
- Kanpinen tipologiari dagokionez, 4 lehen mailakoak dira, 8 bigarren mailakoak eta 10 hirugarren mailakoak.
- Plaza kopuruari dagokionez, bigarren mailako kanpinek dituzte plaza gehien (guztizkoaren %34,9). Dena dela, lehen mailako kanpinen eskaintza antzekoa da.
- Kanpin kopuru handiena duen lurraldea Gipuzkoa da (13 kanpin). Atzetik, Bizkaia eta Araba daude (7 eta 2, hurrenez hurren). Plazen eskaintzari dagokionez, EAEko kanpinetan dauden 10 plazatik 7 Gipuzkoan daude. Bizkaiak, berriz, plazen %23,6 biltzen du, eta Arabak %4,8.

**Kanpinen eta plazen kopuruaren bilakaera (1997-2004)**

| | Kanpin kopurua | | | | Plaza kopurua | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Lehen mailakoak | Bigarren mailakoak | Hirug. mailakoak | Guztira | Lehen mailakoak | Bigarren mailakoak | Hirug. mailakoak |
| 1997 | 18 | 3 | 6 | 9 | 8.126 | 2.986 | 2.662 | 2.478 |
| 1998 | 19 | 4 | 6 | 9 | 8.370 | 3.230 | 2.662 | 2.478 |
| 1999 | 21 | 4 | 7 | 10 | 9.286 | 3.230 | 3.162 | 2.894 |
| 2000 | 21 | 4 | 7 | 10 | 9.286 | 3.230 | 3.162 | 2.894 |
| 2001 | 21 | 4 | 7 | 10 | 9.286 | 3.230 | 3.162 | 2.894 |
| 2002 | 22 | 4 | 8 | 10 | 9.420 | 3.230 | 3.296 | 2.894 |
| 2003 | 22 | 4 | 8 | 10 | 9.420 | 3.230 | 3.296 | 2.894 |
| 2004 | 22 | 4 | 8 | 10 | 9.420 | 3.230 | 3.296 | 2.894 |

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzaren Turismo Administrazioko Zuzendaritza.

**Ondorioak:**

- 2004ko abenduaren 31n, EAEko alojamendu-eskaintza 889 establezimendura eta 35.093 plazara iritsi zen. Zifra horiek 1997koekin konparatuta, hazkundea izan dela ikus daiteke, establezimenduen kopuruan zein alojamendu-plazen kopuruan (%74,7ko eta %35,8ko igoera, hurrenez hurren). Hotel-establezimenduek (hotelek, hostalek, pentsioek eta abar) establezimenduen %55,9 eta plazen %63,7 biltzen dute.

- 1997-2004 aldian, hotel-establezimenduen zein hotel-plazen kopuruak oso gehikuntza garrantzitsua izan du. Sektorean itxaropen handiak sortu izanaren arrazoien artean, honako hauek aipa daitezke: 1997an eta 1998an sortutako baikortasuna, su-etena eta aldi horretako bultzada ekonomiko ikaragarria. Gainera, hazkundea etengabea izan da aldi osoan.

- Era berean, hotel-alojamenduen barruan plazei dagokienez hazkunderik handiena izan dutenak aztertzen baditugu, argi eta garbi ikus daiteke portaerarik onena izan dutenak 1. taldeko hotelak izan direla (hots, 3, 4 eta 5 izarrekoak). Izan ere, 2004an alojamendu-plazen kuotarik handiena lortzeaz gain (%34,6), hazkunderako ekarpenik handiena egin dutenak izan dira (%34,1).

- Lurralde-ikuspegitik, Bizkaia izan da hotel-establezimendu eta hotel-plaza gehien dituen lurraldea 2004an (establezimendu guztien %41,2 eta plaza guztien %44,9). Egoera hori hotel-eskaintzaren gorakada ikusgarri baten ondorioa izan da, 1999tik aurrera batez ere. Aztertutako A eta B faseen artean eskariak izan duen bilakaeraren ikuspegitik, urte «giltzarria» da 1999. hori. Turisten sarreren kasuan bezala, EAEko alojamendu-eskaintzak azken urteetan izan duen gorakada handiak ez du eragin bera izan EAE osoan. Funtsean, Bizkaiko Lurraldean gertatu da.

- Estratu bakoitzak hotel-plazen eskaintza osoan duen indarra aztertuz gero, indartsuenak hiriburuak eta, zehazki, 1. taldeko hoteletako plazak izan direla ikus daiteke (%52). Halaber, EAEn azken urteotan alojamendu-eskaintzaren esparruan izandako hazkunde garrantzitsua funtsean Bizkaiko Lurraldean eta, zehazkiago, hiriburuan eta 3 izarreko edo gehiagoko establezimenduetan lortu dela esan daiteke.

- 1997-2004 aldian landa-turismoko alojamenduetako plazen zein establezimenduen kopuruak ere gehikuntza garrantzitsua izan duela esan daiteke. Landa-turismoko establezimenduen kopuruak %115,6ko igoera izan du, eta plazen kopuruak, berriz, %113,7ko igoera. Igoera horiek nekazaritza-turismoko establezimenduetan zein landa-etxeetan gertatu dira. Landa-etxeek, zehazki, garapen handia izan dute (1998an 3 ziren, eta 2004an 91).

## 4.5. OKUPAZIO-MAILA

Eustatek emandako datuen arabera, EAEko hotel-establezimenduen okupazio-maila %46,86 izan zen 2004an, eta nekazaritza-turismoko establezimenduena, berriz, %29,15. Era berean, INEk turismo-kanpalekuen okupazioari buruz egindako inkestaren datuen arabera, EAEko kanpinen okupazio-maila %12,7 izan zen 2003an.

1997tik 1999ra bitarte izandako gorakadaren ondoren, okupazio-mailaren bilakaerak atzera egiteko joera hartu du, 2004an suspertu bada ere. *Hotel-establezimenduen okupazio-tasa 2000. urtetik aurrerako onena izan da. Landa-turismoko alojamenduen okupazio-tasa, berriz, aldi osoko onena izan da.*

**EAEko hotel-establezimenduen, nekazaritza-turismoko establezimenduen eta kanpinen okupazio-mailaren bilakaera (1997-2004)**




| | Hotelak | Landa-turismoa | Kanpinak |
|---|---|---|---|
| 1997 | 38,49 | — | 8,35 |
| 1998 | 47,05 | 23,34 | 8,93 |
| 1999 | 50,30 | 27,66 | 12,65 |
| 2000 | 48,03 | 24,70 | 10,54 |
| 2001 | 44,60 | 25,08 | 11,78 |
| 2002 | 45,76 | 26,95 | 12,01 |
| 2003 | 44,18 | 27,03 | 12,70 |
| 2004 | 46,86 | 29,15 | 13,78 |
| **Ald. (%) 97-04** | **21,70** | **24,9** | **65,0** |

*Iturria:* Egileak landua, EUSTATen eta INEren datuetan oinarrituta. Nekazaritza-turismoko establezimenduen 97-04ko aldakuntza 98-04 aldiari dagokio.

### 4.5.1. Okupazio-maila hotel-establezimenduetan

Okupazio-maila %46,86 izan da 2004an. Azken urteotan hotel-eskaintzak gorakada handia izan badu ere, 2004ko okupazio-maila 2000. urtetik aurrerako handiena izan da.

**Hotel-establezimenduen okupazio-mailaren bilakaera, Lurraldeen arabera (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Edonola ere, Arabako Lurralde Historikoan izan ezik (lurralde horretan, hiriburuko zein barnealdeko establezimenduetarako, 2001. urtea izan da 97-04 aldiko onena), aldi osoan ezin izan dira berdindu eta gainditu 1998ko eta 1999ko okupazio-mailak.

Horren arrazoia, neurri handi batean, 1999tik aurrera alojamendu-eskaintzak batez ere Bizkaian izan duen hazkunde garrantzitsua izan da. Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, ordura arteko joeraren aldaketaren «aurrerapena» izan zen hori.

Halaber, azpimarratu beharra dago Gipuzkoan ere okupazio-mailak behera egin duela, batez ere Gipuzkoako alojamendu-eskaintzaren igoera Bizkaikoarena eta Arabakoarena bezain handia izan ez dela kontuan hartuta.

**Hotel-establezimenduen, plazen, turisten sarreren eta gaualdien kopuruaren eta okupazio-mailaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera (1994-2004) (1994=100)**




*Iturria:* EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

1998an eta 1999an turisten sarreretan izandako gorakada handiaren ondorioz, itxaropen handiak piztu ziren eta horrek hazkunde garrantzitsua eragin zuen alojamendu-plazen eskaintzan (%31,8 99-04 aldian), gaualdien kopuruan baino askoz handiagoa (%17,7 hoteletako sarreretan aldi horretan bertan; batez besteko egonaldiak ez zuen aldaketa handirik izan). Horren ondorioz, okupazio-mailak behera egin du.

**Hotel-establezimenduen, plazen, turisten sarreren eta gaualdien kopuruaren bilakaera. EAE (1994-2004) (1994=100)**




*Iturria:* EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta eta Turismo Zuzendaritza.

Okupazio-maila estratuen arabera aztertuz gero, hainbat joera ikus daitezke. Hiriburuetan, 1999ra arte okupazio-mailek gora egin zuten, baina *handik aurrera etengabe egin dute behera hiru hiriburuetan (Gasteiz: –4,3; Donostia: –5,01 eta Bilbo: –4,18)*. Nolanahi ere, 2004an suspertze handia izan dela azpimarratu beharra dago.

Barnealdeari eta kostaldeari dagokienez, joerak antzekoak izan dira. Hala ere, honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Arabako barnealdean izan diren joerak beste bi lurraldeetako barnealdean izandakoen desberdinak izan dira erabat.
- Bizkaiko barnealdeak orain arteko portaerarik onena izan du 2004an.
- Gipuzkoako kostaldeak ere orain arteko portaerarik onena izan du 2004an.

**Okupazio-maila hotel-establezimenduetan, estratuen arabera (1997-2004)**

| | | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Araba** | **Vitoria-Gasteiz** | 39,95 | 47,21 | 50,05 | 50,97 | 52,94 | 49,54 | 44,54 | 45,75 |
| | 1. taldea | 34,57 | 43,02 | 46,32 | 44,98 | 47,63 | 43,42 | 38,06 | 41,08 |
| | 2. taldea | 50,87 | 53,84 | 55,76 | 60,24 | 60,86 | 58,79 | 56,04 | 54,14 |
| | **Barnealdea** | 33,03 | 37,28 | 36,79 | 42,36 | 44,04 | 40,77 | 36,43 | 36,41 |
| **Gipuzkoa** | **Donostia-San Sebastián** | 44,58 | 51,23 | 57,14 | 50,57 | 46,71 | 50,32 | 49,61 | 52,13 |
| | 1. taldea | 40,63 | 47,72 | 55,09 | 48,22 | 45,59 | 49,70 | 48,30 | 50,19 |
| | 2. taldea | 52,58 | 58,93 | 61,69 | 55,40 | 48,88 | 51,44 | 52,11 | 56,02 |
| | **Gipuzkoa Kosta** | 49,26 | 48,03 | 58,27 | 51,80 | 49,32 | 49,15 | 52,26 | 56,95 |
| | **Gipuzkoa Barnealdea** | 32,08 | 37,02 | 44,06 | 43,33 | 37,74 | 37,42 | 40,07 | 42,66 |
| **Bizkaia** | **Bilbo** | 36,07 | 53,79 | 53,22 | 50,57 | 44,92 | 47,82 | 44,70 | 49,04 |
| | 1. taldea | 36,65 | 55,46 | 55,32 | 52,12 | 45,05 | 47,4 | 44,71 | 49,31 |
| | 2. taldea | 33,55 | 46,60 | 45,37 | 44,95 | 44,35 | 49,76 | 44,64 | 47,53 |
| | **Bizkaia Kosta** | 35,39 | 39,54 | 43,69 | 44,12 | 43,46 | 44,14 | 40,21 | 39,91 |
| | **Bizkaia Barnealdea** | 29,96 | 35,37 | 34,31 | 37,38 | 33,84 | 36,34 | 36,61 | 38,79 |

*Iturria:* EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

1. taldea: 3 izar edo gehiago.
2. taldea: 2 izar edo gehiago.

**Okupazio-maila hotel-establezimenduetan. Hiriburuak (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Okupazio-maila hotel-establezimenduetan. Barnealdea (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Okupazio-maila hotel-establezimenduetan. Kostaldea (1997-2004)**




*Iturria:* EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Beste autonomia-erkidego batzuekin konparatuta, Euskadi 8. postuan dago hotel-establezimenduen okupazio-mailaren sailkapenean (%46,63 INEren arabera). Kategoriak kontuan hartuta —Estatuko beste autonomia-erkidego askotan gertatzen den antzera—, urrezko hiru izarreko establezimenduak[1] Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik daude. Euskadiren kasuan, gainerako kategoriak batez bestekoaren azpitik daude. Dena dela, 4 izarreko establezimenduetan, okupazioaren batez bestekoa (47,87) batez besteko orokorraren oso antzekoa da. Bestalde, 5 izarreko hotel-establezimenduetan okupazioaren batez bestekoa batez besteko orokorra baino askoz txikiagoa dela eta Gaztela eta Leonen eta Asturiasen pare dagoela ikus daiteke. Izar bateko eta biko hotel-establezimenduen kasuan, okupazio-maila batez bestekoa baino txikiagoa da, baina gainerako autonomia-erkidegoen berdina.

Zilarrezko izarrak dituzten establezimenduen[2] okupazio-maila Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik, Estatuko batez bestekoaren gainetik eta okupazio-mailarik handieneko 3 Autonomia Erkidegoen artean dago.

Okupazio-maila *asteburuetan handiagoa da* (%56,6). Hori dela-eta, 7. postuan gaude sailkapenean, Valentziaren, Kataluniaren eta Madrilen atzetik, besteak beste.

---

1 INEren arabera, urrezko izarrak 3, 4 eta 5 izarreko hotelak dira

2 INEren arabera, beheragoko kategoriakoak, hostalak eta pentsioak dira zilarrezko izarrak.

**Okupazio-maila hotel-establezimenduetan, kategorien arabera (2004)**

| | Guztira | Urrezko izarrak. guztira | Urrezko bost izar | Urrezko lau izar | Urrezko iru izar | Urrezko bi izar | Urrezko izar bat | Zilarr. izarrak. guztira | Zilarr. bi eta hiru izar | Zilarr. izar bat |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Balear Uharteak | 69,02 | 70,21 | 58,60 | 67,65 | 73,19 | 65,79 | 52,89 | 53,59 | 58,94 | 43,64 |
| Kanariar Uharteak | 66,60 | 67,21 | 56,94 | 71,18 | 64,86 | 53,80 | 55,20 | 30,46 | 36,51 | 27,53 |
| Valentzia | 56,14 | 58,82 | 45,04 | 60,40 | 62,09 | 53,14 | 42,34 | 34,64 | 41,77 | 31,49 |
| Katalunia | 54,44 | 57,27 | 47,97 | 55,17 | 62,85 | 51,84 | 44,95 | 39,81 | 38,62 | 41,32 |
| **Espainia** | **53,47** | **57,16** | **48,37** | **59,47** | **61,25** | **47,19** | **38,55** | **34,33** | **36,56** | **32,26** |
| Andaluzia | 50,23 | 53,24 | 42,83 | 56,31 | 55,81 | 42,58 | 36,12 | 31,48 | 34,83 | 28,80 |
| Madril | 49,49 | 49,51 | 44,42 | 49,50 | 51,61 | 54,47 | 37,47 | 49,45 | 47,44 | 51,55 |
| Murtzia | 46,80 | 48,88 | 0 | 55,29 | 49,19 | 37,00 | 32,84 | 29,72 | 28,78 | 31,41 |
| **Euskadi** | **46,63** | **47,20** | **38,95** | **47,87** | **51,07** | **44,01** | **44,77** | **44,11** | **45,87** | **41,37** |
| Errioxa | 40,41 | 44,51 | 0 | 51,73 | 41,19 | 35,14 | 28,05 | 29,18 | 26,32 | 31,43 |
| Kantabria | 39,30 | 43,69 | 0 | 45,92 | 45,43 | 39,07 | 37,81 | 28,18 | 29,16 | 26,69 |
| Galizia | 37,79 | 43,53 | 53,64 | 49,09 | 47,01 | 41,10 | 32,19 | 28,16 | 27,60 | 28,40 |
| Aragoi | 37,46 | 41,65 | 46,28 | 40,21 | 46,18 | 40,63 | 31,23 | 28,22 | 27,77 | 29,05 |
| Nafarroa | 37,18 | 42,31 | 0 | 32,42 | 47,56 | 36,04 | 26,60 | 30,12 | 32,19 | 28,03 |
| Ceuta eta Melilla | 36,22 | 36,36 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 35,69 | 0 | 0 |
| Gaztela eta Leon | 35,44 | 40,43 | 36,73 | 46,16 | 41,89 | 33,64 | 27,14 | 27,39 | 28,64 | 26,25 |
| Asturias | 33,61 | 34,41 | 38,56 | 40,27 | 37,59 | 30,48 | 24,52 | 28,51 | 24,73 | 32,85 |
| Gaztela-Mantxa | 31,32 | 39,94 | 0 | 48,92 | 42,18 | 32,73 | 30,78 | 20,68 | 25,64 | 15,46 |
| Extremadura | 30,98 | 36,32 | 0 | 44,40 | 37,81 | 32,80 | 23,06 | 21,55 | 21,37 | 21,64 |

*Iturria:* INE. Hotel-establezimenduak, kategoriaren arabera, urrezkoak edo zilarrezkoak izan daitezke, eta, bakoitzaren barruan, izar kopuruaren arabera sailkatuta daude. Establezimenduaren kategoria Autonomia Erkidegoetako Turismo Sailek esleitzen dute, eta desberdina da Autonomia Erkidego batzuen eta besteen artean.

**Okupazio-maila, asteburuko plaza kopurua kontuan hartuta eta Autonomia Erkidegoen arabera (1999-2004)**

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Andaluzia | 61,38 | 61,69 | 60,24 | 58,51 | 58,31 | 57,37 | –6,54 |
| Aragoi | 43,01 | 43,20 | 44,76 | 45,23 | 44,4 | 44,65 | 3,81 |
| Asturias | 39,81 | 43,19 | 43,75 | 39,11 | 39,59 | 40,76 | 2,38 |
| Balear Uharteak | 83,73 | 76,23 | 75,81 | 69,68 | 71,11 | 71,29 | –14,86 |
| Kanariar Uharteak | 76,91 | 72,61 | 71,57 | 68,01 | 69,35 | 68,50 | –10,94 |
| Kantabria | 52,10 | 50,71 | 50,87 | 49,06 | 48,34 | 48,60 | –6,72 |
| Gaztela eta Leon | 42,73 | 43,53 | 44,18 | 44,77 | 42,17 | 43,73 | 2,34 |
| Gaztela-Mantxa | 36,42 | 37,88 | 39,82 | 39,32 | 37,49 | 38,54 | 5,81 |
| Katalunia | 63,29 | 64,51 | 63,88 | 62,03 | 60,75 | 60,79 | –3,95 |
| Valentzia | 67,00 | 68,31 | 68,59 | 64,77 | 64,93 | 62,36 | –6,92 |
| Extremadura | 35,92 | 39,65 | 41,79 | 38,46 | 38,32 | 38,74 | 7,84 |
| Galizia | 45,48 | 38,09 | 37,20 | 37,65 | 35,78 | 42,22 | –7,18 |
| Madril | 56,45 | 59,83 | 58,70 | 60,83 | 57,69 | 56,92 | 0,83 |
| Murtzia | 51,10 | 51,29 | 53,31 | 52,32 | 55,05 | 51,63 | 1,05 |
| Nafarroa | 41,97 | 41,95 | 41,48 | 37,52 | 37,16 | 38,04 | –9,36 |
| **Euskadi** | **55,14** | **53,10** | **50,82** | **53,39** | **53,12** | **56,62** | **2,69** |
| Errioxa | 49,69 | 53,51 | 52,02 | 52,77 | 50,95 | 49,19 | –1,00 |
| Ceuta eta Melilla | 50,12 | 37,72 | 38,38 | 38,92 | 39,28 | 31,29 | –37,57 |

*Iturria:* INE.

INEren datuei jarraiki, batez ere Donostiak igotzen du batez bestekoa (%66,6ko okupazioa asteburuetan). Bilbo ere EAEko batez bestekoaren gainetik dago (%58,5).

**Okupazio-maila, asteburuko plaza kopurua kontuan hartuta eta turismo-lekuen arabera (1999-2004)**

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bartzelona | 66,82 | 69,38 | 69,42 | 69,31 | 68,6 | 68,64 |
| Salamanca | 65,46 | 66,34 | 66,67 | 72,30 | 64,3 | 67,13 |
| **Donostia-San Sebastián** | **66,86** | **63,07** | **59,82** | **63,45** | **63,1** | **66,65** |
| Valentzia | 47,68 | 53,53 | 56,31 | 52,41 | 61,2 | 60,11 |
| Sevilla | 66,35 | 67,88 | 66,63 | 64,97 | 60,4 | 61,56 |
| Madril | 58,24 | 61,68 | 59,87 | 62,40 | 58,9 | 58,52 |
| Santander | 60,47 | 56,61 | 57,98 | 56,60 | 58,0 | 59,02 |
| Malaga | 54,56 | 62,39 | 60,25 | 52,76 | 56,9 | 53,52 |
| **Vitoria-Gasteiz** | **—** | **54,23** | **56,40** | **58,87** | **53,9** | **55,65** |
| **Bilbo** | **59,27** | **57,73** | **51,33** | **52,76** | **53,2** | **58,47** |
| Oviedo | — | 55,34 | 56,83 | 51,08 | 49,7 | 50,19 |
| Xixon | — | 49,97 | 51,22 | 45,72 | 47,5 | 47,71 |
| Santiago | 70,02 | 53,08 | 45,27 | 46,34 | 46,9 | 62,19 |
| Iruña | — | — | 49,24 | 46,17 | 44,2 | 47,34 |
| Coruña | 50,20 | 45,77 | 46,66 | 45,39 | 43,7 | 46,69 |
| Vigo | 44,20 | 42,74 | 43,10 | 42,61 | 41,1 | 46,66 |

*Iturria:* INE.

## 4.5.2. Okupazio-maila landa-turismoko establezimenduetan

*Landa-turismoko alojamenduen okupazio-mailari* dagokionez, 2004an EAEk 1999ko %27,7ko okupazio-maila gainditu du lehen aldiz. Funtsean, Gipuzkoak eta Bizkaiak izan duten portaera onagatik gertatu da hori. Lurralde horietan, 2004ko okupazio-tasa 2003koa baino hiru puntu inguru handiagoa izan da.

**EAEko landa-turismoko alojamenduen okupazio-mailaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera. (1998-2004)**




| | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 1998 | 23,34 | 20,92 | 29,70 | 20,95 |
| 1999 | 27,66 | 22,18 | 34,32 | 25,67 |
| 2000 | 24,70 | 20,75 | 29,48 | 29,48 |
| 2001 | 25,08 | 21,23 | 29,44 | 23,80 |
| 2002 | 26,95 | 22,43 | 29,61 | 26,92 |
| 2003 | 27,03 | 21,42 | 27,67 | 28,84 |
| 2004 | 29,15 | 21,86 | 30,87 | 31,26 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

INEk landa-turismoko alojamenduen okupazio-mailari buruz egindako inkestatik lortutako datuekin konparazioa eginez gero, EAEko egoera Estatu osokoa eta hurbileko Erkidegoetakoa baino askoz hobea dela ikus daiteke. Kanariar Uharteen atzetik, alojamendu mota horretan okupazio-mailarik handiena duen Erkidegoa da.

**Okupazio-maila landa-turismoan (2004)**

| | 2004 |
|---|---|
| **Estatua** | **20,75** |
| Andaluzia | 20,54 |
| Aragoi | 19,90 |
| Asturias (Printzerria) | 21,60 |
| Balear Uharteak | 40,80 |
| Kanariar Uharteak | 23,84 |
| Kantabria | 23,00 |
| Gaztela eta Leon | 19,01 |
| Gaztela-Mantxa | 14,48 |
| Katalunia | 22,22 |
| Valentziako Erkidegoa | 16,47 |
| Extremadura | 16,54 |
| Galizia | 18,59 |
| Madril (Erkidegoa) | 22,10 |
| Murtzia (Eskualdea) | 14,33 |
| Nafarroa (Foru Komunitatea) | 25,20 |
| **Euskadi** | **28,76** |
| Errioxa | 20,23 |
| Ceuta eta Melilla | 0,00 |

*Iturria:* INE.

### 4.5.3. Okupazio-maila kanpinetan

*Kanpinen okupazio-mailari* dagokionez, 2004an 13,78 izan zen, hau da, 2003koa baino handiagoa. Estatuko beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, hurbileko zenbait Autonomia Erkidegok EAEk baino okupazio-maila handiagoa dutela ikus daiteke (Galiziak 15,09, Asturiasek 16,47 eta Kantabriak 15,18). Hala ere, barnealdeko Autonomia Erkidegoekin konparatuta, EAEko kanpinen okupazio-maila handiagoa da (Nafarroan 12,32, Aragoin 12,22, Errioxan 11,42, Gaztela eta Leonen 9,41).

**Okupazio-maila. Kanpinak (2004)**

| | 2004 |
|---|---|
| **Estatua** | **16,93** |
| Andaluzia | 13,71 |
| Aragoi | 12,22 |
| Asturias (Printzerria) | 16,47 |
| Balear Uharteak | 35,33 |
| Kanariar Uharteak | 8,94 |
| Kantabria | 15,18 |
| Gaztela eta Leon | 9,41 |
| Gaztela-Mantxa | 8,26 |
| Katalunia | 19,36 |
| Valentziako Erkidegoa | 21,94 |
| Extremadura | 10,65 |
| Galizia | 15,09 |
| Madril (Erkidegoa) | 8,97 |
| Murtzia (Eskualdea) | 24,55 |
| Nafarroa (Foru Komunitatea) | 12,32 |
| **Euskadi** | **13,78** |
| Errioxa | 11,42 |
| Ceuta eta Melilla | 0,00 |

*Iturria:* INE. Turismo-kanpalekuen okupazioari buruzko inkesta.

**Ondorioak:**

- 2004an, EAEko hotel-establezimenduen okupazio-maila %46,86 izan zen, nekazaritza-turismoko establezimenduena %29,15 eta kanpinena %13,78. 1997tik 1999ra bitarte izandako gorakadaren ondoren, okupazio-mailaren bilakaerak atzera egiteko joera hartu du. Horren arrazoia, hein handi batean, 1999tik aurrera eta batez ere Bizkaian alojamendu-eskaintzari dagokionez izandako hazkunde handia izan da. Halaber, azpimarratu beharra dago Gipuzkoan ere okupazio-mailak behera egin duela, batez ere Gipuzkoako alojamendu-eskaintzaren igoera Bizkaikoarena eta Arabakoarena bezain handia izan ez dela kontuan hartuta. Joera hori aldatu egin da 2004an. Izan ere, 2000. urtetik aurrerako mailarik onenak lortu dira hotelen okupazio-mailan.

- Hotel-eskaintzaren hazkundea batez ere 2002-2003 biurtekoan lortu dela eta eskaintzaren hazkundearen eta eskariaren erakarpenaren artean nolabaiteko denbora-desoreka dagoela kontuan hartuta (hotel berriek beren bezeroak sortu behar dituzte), erorialdia ez da hain harrigarria. Konparatzeko moduko beste ingurune batzuei buruzko datuak ikusita, batez besteko okupazioaren tasak %50 inguru izan beharko luke.

- Beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, 2004an Euskadi 8. postuan kokatu da hotel-establezimenduen okupazio-mailaren sailkapenean (%46,63, eta asteburuetan %56,6). Horrela, beraz, Valentziaren, Kataluniaren eta Madrilen atzetik dago EAE.

- Landa-turismoko alojamenduen okupazio-mailari dagokionez, %29,5 izan da 2004an, hau da, orain arteko zifrarik onena. Lurraldeak kontuan hartuta, Gipuzkoak izan du okupazio-mailarik handiena (%31,3). Bizkaiak %30,9 izan du, eta Arabak %21,9. EAEko egoera Estatu osokoa eta hurbileko Erkidegoetakoa baino askoz hobea da. Kanariar Uharteen atzetik, alojamendu mota horretan okupazio-mailarik handiena duen Erkidegoa izan da 2004an.

- Kanpinen okupazio-mailari dagokionez, 2004an %13,8 izan da, hau da, 1999koa baino handiagoa. Inguruko beste Autonomia Erkidego batzuek EAEk baino okupazio-maila handiagoa izan dute. Espainia Berdeko Erkidegoen kasuan: Galiziak 15,1, Asturiasek %16,5 eta Kantabriak 15,2.

- Euskadi inguruko beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, kasu gehienetan udako hilabeteetan turisten sarreren kopurua txikiagoa dela ikus daiteke, establezimendu mota edozein izanik ere. Aitzitik, okupazio-maila beste Autonomia Erkidego batzuetakoa baino handiagoa da behe-denboraldian.

## 4.6. TURISTEN JATORRIA

INEk kanpinei buruz emandako datuen eta Eustatek gainerako establezimenduen inguruan egindako Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkestaren arabera, 2004an EAEra etorri ziren 2.004.273 turistetatik:

- *598.772 atzerriko turistak* izan ziren (%29,9),
- *1.007.480 Estatuko turistak* izan ziren (%52,3), kanpinlarien proportzioa zenbatu gabe, eta
- *321.607 EAEko turistak* izan ziren (%16,7), kanpinlarien proportzioa zenbatu gabe.

**EAEra etortzen diren turisten jatorria eta erabilitako alojamendu mota (2004)**

| Jatorria | Sarrerak | |
|---|---|---|
| **Euskadi** | | |
| Hotelak | 283.332 | |
| Landa-turismoa | 38.275 | |
| Kanpinak | ? | ↓ |
| **GUZTIRA** | **321.607** | |
| **Estatuaren gainerakoa** | | **76.414** |
| Hotelak | 966.039 | ↑ |
| Landa-turismoa | 41.441 | |
| Kanpinak | ? | |
| **GUZTIRA** | **1.007.480** | |
| **Atzerria** | | |
| Hotelak | 501.063 | |
| Landa-turismoa | 8.360 | |
| Kanpinak | 89.349 | |
| **GUZTIRA** | **598.772** | |
| **GUZTIRA 2004** | **2.004.273** | |
| Guztira 1998 | 1.561.974 | |
| Guztira 1999 | 1.684.942 | |
| **Ald. (%) 98-04** | **28,31** | |
| **Ald. (%) 99-04** | **18,95** | |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta e INE.

Zifra horien arabera, *%28,31ko gehikuntza izan da 1998ko turisten zifrekin konparatuta*. Gainera, erreferentziazko urte gisa 1997a hartzen bada, gehikuntza askoz handiagoa da.

**EAEra etorritako turisten sarreren bilakaera, jatorriaren arabera**
**1997-2004**




| | 1997 | 1999 | 2004 | Ald. (%) 97-99 | Ald. (%) 99-04 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Estatuaren gainerakoa eta EAE | 841.767 | 1.194.978 | 1.405.501 | 42,0 | 17,6 | 67,0 | 70,1 | 68,7 |
| Atzerria | 341.558 | 489.963 | 598.772 | 43,4 | 22,2 | 75,3 | 29,9 | 31,3 |
| **GUZTIRA** | **1.183.325** | **1.684.941** | **2.004.273** | **42,4** | **19,0** | **69,4** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta eta INE. 1997an ez dago landa-turismoko alojamenduei buruzko datu eskuragarririk.

1997tik aurrerako bilakaera ezin da alojamendu-establezimendu guztiak kontuan hartuta aztertu, landa-turismoko establezimenduei buruzko datu eskuragarririk ez baitago. Eskariaren bilakaera turisten jatorriaren arabera aztertzeko, fase bakoitzean hotel-establezimenduetan izandako turisten sarrerei buruzko datuak erabiliko dira. Establezimendu horietan turisten sarrera guztien %87,3 biltzen denez gero, joera orokorrak gehiegi aldatuko ez direla pentsatu da.

### 4.6.1. Hotel-establezimenduetan ostatu hartzen duten turisten jatorria

Zehazki, hotel-establezimenduetan izandako turisten sarrerari dagokionez, *2004an Estatuko turistak EAEra etorritako turista guztien erdiak baino gehiago izan dira* (%55,2%). Horien atzetik, atzerriko turistak (%28,6) eta EAEkoak bertakoak (%16,2) daude.

**Turisten sarrerak hotel-establezimenduetan, jatorriaren arabera. EAE**
**(1997-2004)**

| | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Estatuaren gainerakoa | 643.807 | 966.039 | 50,1 | 55 | 45,3 |
| Euskadi | 154.714 | 283.332 | 83,1 | 16 | 22,9 |
| Atzerria | 296.481 | 501.063 | 69,0 | 29 | 31,8 |
| **Guztira** | **1.095.002** | **1.750.434** | **59,9** | **100** | **100,0** |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Turisten sarrerak hotel-establezimenduetan, jatorriaren arabera.**
**EAE (1994-2004) (1994=100)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Azken urteotan turisten jatorrien ikuspegiak izan duen bilakaera aztertuz gero, A fasean sarreren kopuruak gorakada handia izan duela ikus daiteke. Azpimarratu beharra dago atzerriko turisten sarreren kopurua. Hala ere, 1999tik aurrera portaerak desberdinak izan dira jatorriaren arabera. EAEn bertan bizi diren turisten sarrerak etengabeak izan dira; atzerriko eta Estatuko turisten sarrerek, berriz, gorabeherak izan dituzte, 2001. urtean batez ere. Nolanahi ere, hiru jatorri motetan joera-aldaketa positiboa izan dela diote 2004ko datuek.

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiarien jatorri nagusien bilakaera.**
**EAE (1997-2004)**

| | 1997 | 1999 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Sarrerak, guztira** | **1.095.002** | **1.486.884** | **1.750.434** | **59,9** | **100,0** | **100,0** |
| **Euskadi** | **154.714** | **186.891** | **283.332** | **83,1** | **16,2** | **19,6** |
| **Estatuaren gainerakoa** | **643.807** | **879.770** | **966.039** | **50,1** | **55,2** | **49,2** |
| Gaztela eta Leon | 43.063 | 44.399 | 71.906 | 67,0 | 4,1 | 4,4 |
| Katalunia | 159.384 | 241.381 | 228.677 | 43,5 | 13,1 | 10,6 |
| Valentzia | 42.160 | 50.672 | 54.793 | 30,0 | 3,1 | 1,9 |
| Galizia | 32.283 | 36.486 | 45.708 | 41,6 | 2,6 | 2,0 |
| Madril | 189.877 | 265.625 | 292.370 | 54,0 | 16,7 | 15,6 |
| **Atzerria** | **296.481** | **420.223** | **501.063** | **69,0** | **28,6** | **31,2** |
| Alemania | 38.625 | 46.521 | 49.781 | 28,9 | 2,8 | 1,7 |
| Frantzia | 61.519 | 80.819 | 110.058 | 78,9 | 6,3 | 7,4 |
| Italia | 23.276 | 36.411 | 46.469 | 99,6 | 2,7 | 3,5 |
| Erresuma Batua | 42.307 | 61.245 | 83.795 | 98,1 | 4,8 | 6,3 |
| AEB-Kanada | 26.012 | 53.034 | 42.096 | 61,8 | 2,4 | 2,5 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Ehunekoei dagokienez, EAEn bizi diren turistek izan dute portaerarik onena 1997-2004 aldian. Izan ere, bisitaldien kopurua %83,1 igo da. Estatuko eta atzerriko turisten sarreren kopuruak, berriz, neurri txikiagoan

egin du gora (%50,1 eta %69, hurrenez hurren). Bilakaera positibo hori gorabehera, Estatuko turistak dira garrantzitsuenak EAErentzat. Laburbilduz:

- 2004an, EAEra etorri diren eta hoteletan ostatu hartu duten turisten %55,2 Estatukoa da, Madrilekoa eta Kataluniakoa nagusiki (%16,7 eta %13,1, hurrenez hurren).

- Turisten %28,6 atzerritarra da, Frantziakoa eta Erresuma Batukoa nagusiki (%6,3 eta %4,8, hurrenez hurren).

- Gainerako %16,2 EAEko turista da. Azken urteotan (1999-2004), turista horien ehunekoak gora egin du hiru Lurraldeetako hotel-establezimenduetan.

EAE barruko turismo-helmugei dagokienez, 2003. urtera arte Gipuzkoak jaso zituen sarrera gehien, baina *2004an, lehen aldiz, Bizkaiak lortu du sarrera kopuru handiena (%42,3)*; Gipuzkoak %41,2 lortu du, eta Arabak %16,5.

*Gipuzkoak biltzen du EAEk Estatutik jasotzen duen turista kopuruaren zatirik handiena. Bizkaiak, berriz, atzerritik eta EAEtik bertatik etortzen diren turisten ehuneko handiena biltzen du.*

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiarien jatorri nagusien bilakaera, Lurraldeen arabera. EAE (1997-2004)**

| | 1997 | | | 2004 | | | Ald. (%) 97-04 | | | 2004ko kuota (%) | | | Eskar. hazk. ekarpena (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria |
| Araba | 43.329 | 108.814 | 50.413 | 64.566 | 162.835 | 61.544 | 49,0 | 49,6 | 22,1 | 22,8 | 16,9 | 12,3 | 16,5 | 16,8 | 5,4 |
| Bizkaia | 48.551 | 240.955 | 85.954 | 114.856 | 396.164 | 228.665 | 136,6 | 64,4 | 166,0 | 40,5 | 41,0 | 45,6 | 51,6 | 48,2 | 69,8 |
| Gipuzkoa | 62.834 | 294.038 | 160.114 | 103.910 | 407.040 | 210.854 | 65,4 | 38,4 | 31,7 | 36,7 | 42,1 | 42,1 | 31,9 | 35,1 | 24,8 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Hiru Lurraldeetako bilakaerari dagokionez, 1997tik 2004ra bitarte ehuneko-igoera handienak izan dituen lurraldea Bizkaia izan da (EAEtik eta atzerritik etorritako turisten zifra bikoiztu egin da ia).

Beraz, *euskal turismoak 1997-2004 aldian izan duen gorakada (hiriburuetan batez ere) EAEtik zein atzerritik etorritako turisten eta, funtsean, Estatutik etorritako turisten kopuru handiagoari esker lortu da.*

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, helmuga nagusiak hiriburuak dira Estatuko turistentzat (%67,1), atzerriko turistentzat (%66,1) zein EAEko turistentzat, horien kasuan ehunekoa txikiagoa bada ere (%50,2).

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiarien jatorri nagusien bilakaera, helmuga-estratuaren arabera. EAE (1997-2004)**

| EAE, estratua | Jatorria | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **Guztizkoak** | **1.095.002** | **1.750.434** | **59,9** | **100,0** |
| | Estatuaren gainer. | 643.807 | 966.039 | 50,1 | 100,0 |
| | EAE | 154.714 | 283.332 | 83,1 | 100,0 |
| | Atzerria, guztira | 296.481 | 501.063 | 69,0 | 100,0 |
| **Hiriburua** | **Guztizkoak** | **703.003** | **1.121.686** | **59,6** | **64,1** |
| | Estatuaren gainer. | 447.687 | 648.026 | 44,7 | 67,1 |
| | EAE | 83.570 | 142.291 | 70,3 | 50,2 |
| | Atzerria, guztira | 171.746 | 331.369 | 92,9 | 66,1 |
| **Hiriburua. 1. taldea*** | **Guztizkoak** | **493.005** | **836.417** | **69,7** | **47,8** |
| | Estatuaren gainer. | 337.556 | 496.552 | 47,1 | 51,4 |
| | EAE | 32.180 | 92.329 | 186,9 | 32,6 |
| | Atzerria, guztira | 123.269 | 247.536 | 100,8 | 49,4 |
| **Hiriburua. 2. taldea*** | **Guztizkoak** | **210.000** | **285.269** | **35,8** | **16,3** |
| | Estatuaren gainer. | 110.133 | 151.474 | 37,5 | 15,7 |
| | EAE | 51.390 | 49.962 | –2,8 | 17,6 |
| | Atzerria, guztira | 48.477 | 83.833 | 72,9 | 16,7 |
| **Itsasbazterra** | **Guztizkoak** | **145.542** | **195.093** | **34,0** | **11,1** |
| | Estatuaren gainer. | 66.146 | 93.672 | 41,6 | 9,7 |
| | EAE | 20.055 | 41.749 | 108,2 | 14,7 |
| | Atzerria, guztira | 59.341 | 59.672 | 0,6 | 11,9 |
| **Barnealdea** | **Guztizkoak** | **246.457** | **433.655** | **76,0** | **24,8** |
| | Estatuaren gainer. | 129.974 | 224.341 | 72,6 | 23,2 |
| | EAE | 51.089 | 99.292 | 94,4 | 35,0 |
| | Atzerria, guztira | 65.394 | 110.022 | 68,2 | 22,0 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

* 1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

Lurralde Historikoak kontuan hartuta, Bizkaiaren kasuan hiriburua eta 1. taldeko establezimenduak Estatuko turisten %65,8ren eta atzerriko turisten %64,1en helmuga direla ikus daiteke. Talde hori, gainera, Bizkaiko alojamenduetan ostatu hartu duten turisten sarreren guztizko gehikuntzarako ekarpenik handiena egin duena da. Atzerriko eta Estatuko turisten ekarpena oso handia izan da.

Gipuzkoaren kasuan, Donostiako hotel-alojamenduetan izandako sarreren ehunekoa Bilboko kasuan baino askoz txikiagoa da. 1. taldeko hotel-alojamenduetan izan diren sarrerak Bilbokoetan izan direnen erdiak baino gehixeago izan dira (%36,5 eta %60,4, hurrenez hurren). Edonola ere, 1. taldea da oraindik sarrera-kuotarik handiena jasotzen duen estratua, beste estratuekiko aldeak Bizkaian baino askoz txikiagoak badira ere.

Araban, hiriburuak biltzen duen ehunekoaren bilakaerarekin, Bilboren antzeko zifrak lortu dira (hotel-alojamenduetan izandako sarrera guztien %70,1). Azpimarratu beharra dago barnealdean ostatu hartu duten

turisten kopuruak gehikuntza urria izan duela. Estatutik eta atzerritik etorritako turisten kasuan, gainera, zifrak negatiboak izan dira.

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiarien jatorri nagusien bilakaera, helmuga-estratuaren arabera. Bizkaia (1997-2004)**

| Bizkaia, estratua | Jatorria | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **Guztizkoak** | **375.460** | **739.685** | **97,0** | **100,0** |
| | Estatuaren gainer. | 240.955 | 396.164 | 64,4 | 100,0 |
| | EAE | 48.551 | 114.856 | 136,6 | 100,0 |
| | Atzerria, guztira | 85.954 | 228.665 | 166,0 | 100,0 |
| **Hiriburua** | **Guztizkoak** | **288.884** | **518.294** | **79,4** | **70,1** |
| | Estatuaren gainer. | 199.122 | 289.571 | 45,4 | 73,1 |
| | EAE | 28.590 | 53.451 | 87,0 | 46,5 |
| | Atzerria, guztira | 61.173 | 175.272 | 186,5 | 76,7 |
| **Hiriburua. 1. taldea*** | **Guztizkoak** | **239.494** | **446.551** | **86,5** | **60,4** |
| | Estatuaren gainer. | 174.486 | 260.652 | 49,4 | 65,8 |
| | EAE | 12.660 | 39.291 | 210,4 | 34,2 |
| | Atzerria, guztira | 52.348 | 146.608 | 180,1 | 64,1 |
| **Hiriburua. 2. taldea*** | **Guztizkoak** | **49.391** | **71.743** | **45,3** | **9,7** |
| | Estatuaren gainer. | 24.636 | 28.919 | 17,4 | 7,3 |
| | EAE | 15.930 | 14.160 | –11,1 | 12,3 |
| | Atzerria, guztira | 8.825 | 28.664 | 224,8 | 12,5 |
| **Itsasbazterra** | **Guztizkoak** | **43.168** | **73.403** | **70,0** | **9,9** |
| | Estatuaren gainer. | 18.788 | 33.027 | 75,8 | 8,3 |
| | EAE | 7.815 | 18.184 | 132,7 | 15,8 |
| | Atzerria, guztira | 16.565 | 22.192 | 34,0 | 9,7 |
| **Barnealdea** | **Guztizkoak** | **43.408** | **147.988** | **240,9** | **20,0** |
| | Estatuaren gainer. | 23.046 | 73.566 | 219,2 | 18,6 |
| | EAE | 12.146 | 43.221 | 255,8 | 37,6 |
| | Atzerria, guztira | 8.216 | 31.201 | 279,8 | 13,6 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

* 1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiarien jatorri nagusien bilakaera, helmuga-estratuaren arabera. Gipuzkoa (1997-2004)**

| Gipuzkoa, estratua | Jatorria | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **Guztizkoak** | **516.986** | **721.804** | **39,6** | **100,0** |
| | Estatuaren gainer. | 294.038 | 407.040 | 38,4 | 100,0 |
| | EAE | 62.834 | 103.910 | 65,4 | 100,0 |
| | Atzerria, guztira | 160.114 | 210.854 | 31,7 | 100,0 |
| **Hiriburua** | **Guztizkoak** | **296.317** | **400.811** | **35,3** | **55,5** |
| | Estatuaren gainer. | 178.542 | 233.473 | 30,8 | 57,4 |
| | EAE | 28.996 | 44.978 | 55,1 | 43,3 |
| | Atzerria, guztira | 88.779 | 122.360 | 37,8 | 58,0 |
| **Hiriburua. 1. taldea*** | **Guztizkoak** | **182.570** | **263.410** | **44,3** | **36,5** |
| | Estatuaren gainer. | 115.747 | 155.107 | 34,0 | 38,1 |
| | EAE | 13.521 | 29.611 | 119,0 | 28,5 |
| | Atzerria, guztira | 53.302 | 78.692 | 47,6 | 37,3 |
| **Hiriburua. 2. taldea*** | **Guztizkoak** | **113.747** | **137.401** | **20,8** | **19,0** |
| | Estatuaren gainer. | 62.795 | 78.366 | 24,8 | 19,3 |
| | EAE | 15.475 | 15.367 | –0,7 | 14,8 |
| | Atzerria, guztira | 35.477 | 43.668 | 23,1 | 20,7 |
| **Itsasbazterra** | **Guztizkoak** | **102.374** | **121.690** | **18,9** | **16,9** |
| | Estatuaren gainer. | 47.358 | 60.645 | 28,1 | 14,9 |
| | EAE | 12.240 | 23.565 | 92,5 | 22,7 |
| | Atzerria, guztira | 42.776 | 37.480 | –12,4 | 17,8 |
| **Barnealdea** | **Guztizkoak** | **118.295** | **199.303** | **68,5** | **27,6** |
| | Estatuaren gainer. | 68.138 | 112.922 | 65,7 | 27,7 |
| | EAE | 21.598 | 35.367 | 63,8 | 34,0 |
| | Atzerria, guztira | 28.559 | 51.014 | 78,6 | 24,2 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

* 1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiarien jatorri nagusien bilakaera, helmuga-estratuaren arabera. Araba (1997-2004)**

| Araba, estratua | Jatorria | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 | 2004ko kuota (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | **Guztizkoak** | **202.556** | **288.945** | **42,6** | **100,0** |
| | Estatuaren gainer. | 108.814 | 162.835 | 49,6 | 100,0 |
| | EAE | 43.329 | 64.566 | 49,0 | 100,0 |
| | Atzerria, guztira | 50.413 | 61.544 | 22,1 | 100,0 |
| Hiriburua | **Guztizkoak** | **117.802** | **202.581** | **72,0** | **70,1** |
| | Estatuaren gainer. | 70.025 | 124.982 | 78,5 | 76,8 |
| | EAE | 25.984 | 43.862 | 68,8 | 67,9 |
| | Atzerria, guztira | 21.794 | 33.737 | 54,8 | 54,8 |
| Hiriburua. 1. taldea* | **Guztizkoak** | **70.941** | **126.456** | **78,3** | **43,8** |
| | Estatuaren gainer. | 47.323 | 80.793 | 70,7 | 49,6 |
| | EAE | 5.999 | 23.427 | 290,5 | 36,3 |
| | Atzerria, guztira | 17.619 | 22.236 | 26,2 | 36,1 |
| Hiriburua. 2. taldea* | **Guztizkoak** | **46.862** | **77.167** | **64,7** | **26,7** |
| | Estatuaren gainer. | 22.702 | 44.189 | 94,6 | 27,1 |
| | EAE | 19.985 | 20.435 | 2,3 | 31,6 |
| | Atzerria, guztira | 4.175 | 11.501 | 175,5 | 18,7 |
| Barnealdea | **Guztizkoak** | **84.754** | **86.364** | **1,9** | **29,9** |
| | Estatuaren gainer. | 38.789 | 37.853 | –2,4 | 23,2 |
| | EAE | 17.345 | 20.704 | 19,4 | 32,1 |
| | Atzerria, guztira | 28.558 | 27.807 | –2,6 | 45,2 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

* 1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

## 4.6.2. Landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartzen duten turisten jatorria

Landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten turisten sarrerei dagokienez, 2004an alojamendu mota horretan izan diren turisten ehuneko handiena Estatutik etorritako turistei dagokie (%47,1); EAEko turisten ehunekoa %43,5 izan da, baina 98-2004 aldian lehen taldekoek baino askoz igoera handiagoa izan dute.

Azpimarratu beharra dago, halaber, landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten atzerriko turisten kopuruaren igoera, ehunekoa beste bi taldeena baino askoz txikiagoa bada ere (%9,5).

**Turisten sarrerak landa-turismoko establezimenduetan, jatorriaren arabera. EAE (1998-2004)**

| | 1998 | 2004 | Ald. (%) 98-04 | 2004ko kuota (%) | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Estatuaren gainerakoa | 29.762 | 41.441 | 39,2 | 47,1 | 37,1 |
| EAE | 22.103 | 38.275 | 73,2 | 43,5 | 51,3 |
| Atzerria | 4.696 | 8.360 | 78,0 | 9,5 | 11,6 |
| **Guztira** | **56.561** | **88.076** | **55,7** | **100,0** | **100,0** |

*Iturria:* EUSTAT.

Azken urteotan turisten jatorrien ikuspegiak izan duen bilakaera aztertuz gero, 2001. urtetik aurrera sarreren kopuruak gorakada handia izan duela ikus daiteke. Azpimarratu beharra dago atzerriko eta EAEko turisten sarreren kopurua.

**Turisten sarrerak landa-turismoko establezimenduetan, jatorriaren arabera. EAE (1994-2004)** (1998 = 100)




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

EAE barruko turismo-helmugei dagokienez, 2004an *Gipuzkoa izan da sarrera kopuru handiena izan duen Lurraldea (guztizkoaren %48,7)*; Bizkaiko ehunekoa %33,1 izan da, eta Arabakoa %18,2.

Era berean, *Gipuzkoak biltzen du EAEra Estatutik, EAEtik bertatik eta atzerritik etortzen diren turisten kopururik handiena*. Gainera, eskariaren guztizko hezkunderako ekarpenik handiena egin duen Lurraldea da Gipuzkoa.

**Landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiarien jatorri nagusien bilakaera, Lurraldeen arabera. EAE (1998-2004)**

| | 1998 | | | 2004 | | | Ald. (%) 98-04 | | | 2004ko kuota (%) | | | Eskar. hazk. ekarpena (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE |
| Araba | 4.825 | 4.671 | 728 | 9.358 | 5.834 | 848 | 93,9 | 24,9 | 16,5 | 14,1 | 24,4 | 10,1 | 10,0 |
| Bizkaia | 8.327 | 10.742 | 2.219 | 13.412 | 12.358 | 3.384 | 61,1 | 15,0 | 52,5 | 29,8 | 35,0 | 40,5 | 13,8 |
| Gipuzkoa | 8.951 | 14.349 | 1.749 | 15.505 | 23.249 | 4.128 | 73,2 | 62,0 | 136,0 | 56,1 | 40,5 | 49,4 | 76,2 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

Hiru Lurraldeek izan duten bilakaeraren kasuan, 1998tik 2004ra bitarte ehuneko-igoera handienak izan dituena Gipuzkoa izan dela ikus daiteke (4 puntutik gorako ehuneko-igoera izan du guztizkoarekiko). Behera gehien egin duen Lurraldea Bizkaia izan da (sarrera guztien %37,6 1998an eta %33,1 2004an).

Beraz, *1998-2004 aldian landa-turismoko alojamenduetan izan diren sarreren kopuruaren gorakada jatorri guztietatik baina nagusiki EAEtik etorritako turisten kopuru handiagoari esker lortu dela* esan daiteke. Gipuzkoan bereziki garrantzitsua izan da gorakada.

### 4.6.3. Turisten jatorria, gaualdiaren lekua edozein izanik ere

Arestian egindako azterketa alojamendu-establezimendu publikoetan izan diren turisten sarrerei buruzko informazioari lotuta zegoen. Ondoren, Frontur-ek eta Familitur-ek emandako informazioan oinarrituta aztertuko dugu EAEra etorritako turisten jatorria. Informazio horretan, *gaualdietarako edozein alojamendu mota (hau da, establezimendu publikoak zein bestelakoak —adiskideen edo senitartekoen etxebizitzak, alokairuan hartutako etxebizitzak eta abar—) erabiltzen duten turisten mugimenduak* hartzen dira kontuan.

**Estatuko turistak (Familitur)**

- Familitur-en inkestaren datuei jarraiki, EAEra turista gehien bidaltzen dituzten Autonomia Erkidegoak honako hauek dira: Gaztela eta Leon (%12,4), Madril (%11,8) eta Katalunia (%11,5).

**EAEra etortzen diren Estatuko eta EAEko turistak, bizi diren Autonomia Erkidegoaren arabera (2003)**

| | Turistak | % |
|---|---|---|
| **EAE** | **296.029** | **31,8** |
| Gaztela eta Leon | 115.406 | 12,4 |
| Katalunia | 109.931 | 11,8 |
| Madril | 107.093 | 11,5 |
| Nafarroa | 51.539 | 5,5 |
| Aragoi | 43.404 | 4,7 |
| Andaluzia | 35.874 | 3,9 |
| Galizia | 34.388 | 3,7 |
| Extremadura | 27.867 | 3,0 |
| Errioxa | 27.659 | 3,0 |
| Asturias | 23.195 | 2,5 |
| Kantabria | 21.659 | 2,3 |
| Valentziana | 20.840 | 2,2 |
| Balear Uharteak | 12.770 | 1,4 |
| Gaztela-Mantxa | 1.214 | 0,1 |
| Kanariar Uharteak | 1.168 | 0,1 |
| Murtzia | 0 | 0,0 |
| **Guztira** | **930.035** | **100,0** |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Espainiarren Turismo Mugimenduak. (Familitur 2003).

*2004ko datuak ez daude eskuragarri dokumentu hau lantzeko unean.*

### Atzerriko turistak (Frontur)

- 2003an iritsitako atzerriko turisten %44 *frantsesa* zen (turista horien indar erlatiboa gora egiten ari da atzerriko beste herrialde batzuen aldean), Akitaniakoa batez ere.

- *Erresuma Batua* bigarren merkatua da, Frantziaren atzetik (2003an gora egin zuen britainiarren kopuruak). Hurbileko herrialdeetako turisten artean, Euskadira etortzeko hegazkina errepidea baino neurri handiagoan erabiltzen duten bakarrak dira Erresuma Batuko turistak.

- *Portugalgo* turisten kopurua %7 baino ez da, baina igoera erlatiborik handiena izan duen herrialdea izan da Portugal.

- 1999-2003ko bilakaera ikusita, EAEra etorritako Frantziako, Portugalgo eta Iberoamerikako turisten kopuruek igoera handiak izan dituzte (%39,5, %46,6 eta %52,7, hurrenez hurren). Aitzitik, EAEra etorritako Britainia Handiko turisten, Alemaniakoen —horiek dira Europako bidaiazaleenetakoak— eta Belgikakoen kopuruak behera egin du.

**EAEra etortzen diren atzerriko turistak, bizi diren herrialdearen arabera (1999-2003)**

| | 1999 | | | 2003 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Garraiobidea | | Guztira | Garraiobidea | |
| | | Errepidea | Aireportua | | Errepidea | Aireportua |
| **GUZTIRA** | **720.736** | **487.264** | **240.429** | **904.144** | **653.706** | **250.438** |
| Frantzia | 289.382 | 280.477 | 8.905 | 403.725 | 382.679 | 21.046 |
| **Erresuma Batua** | **102.079** | **28.611** | **73.468** | **80.652** | **25.177** | **55.475** |
| Alemania | 73.048 | 32.448 | 40.600 | 70.839 | 35.158 | 35.681 |
| Europako gainerako herrialdeak | 53.146 | 24.163 | 28.983 | 81.250 | 50.416 | 30.834 |
| Italia | 48.785 | 24.993 | 23.792 | 51.149 | 33.196 | 17.953 |
| **Portugal** | **42.771** | **37.791** | **4.980** | **62.721** | **57.902** | **4.819** |
| Belgika | 32.628 | 13.548 | 19.080 | 21.686 | 14.601 | 7.085 |
| Iparraldeko Amerika | 27.459 | 13.507 | 13.952 | 29.589 | 10.665 | 18.924 |
| Holanda | 22.511 | 17.291 | 5.220 | 27.908 | 24.346 | 3.562 |
| **Iberoamerika** | **18.648** | **6.487** | **12.161** | **47.120** | **10.355** | **36.765** |
| Beste herrialde batzuk | 17.236 | 7.948 | 9.288 | 27.505 | 9.211 | 18.294 |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Mugetako Turismo Mugimenduak (Frontur).

*2004ko datuak ez daude eskuragarri dokumentu hau lantzeko unean.*

Zehazki, hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten atzerriko turisten sarrerei dagokienez, INEk emandako datuei jarraiki EAEn %13,7ko igoera izan dute 1999-2004 aldian, eta ehuneko hori Estatuko batez bestekoa baino askoz handiagoa da.

Inguruko beste Autonomia Erkidego batzuekin konparatuta, INEren datuei jarraiki EAEko egoera hobea da zifra absolutuetan, baina ehuneko-datuetan zenbait Autonomia Erkidegok EAEk baino igoera handiagoak izan dituzte atzerriko turisten kopuruan, hala nola Galiziak eta Nafarroak.

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten atzerriko turisten sarrerak, helmugako Autonomia Erkidegoaren arabera (1999-2004)**

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | Ald. (%) (99-04) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Estatua** | **26.799.261** | **27.149.530** | **27.012.001** | **26.610.690** | **27.248.609** | **27.629.934** | **3,1** |
| Andaluzia | 4.944.974 | 5.224.602 | 5.071.641 | 5.073.501 | 5.020.494 | 4.894.918 | –1,0 |
| Aragoi | 236.134 | 262.082 | 250.976 | 270.658 | 271.272 | 264.713 | 12,1 |
| Asturias | 99.852 | 106.615 | 105.679 | 113.750 | 107.237 | 113.070 | 13,2 |
| Balear Uharteak | 6.019.211 | 5.579.078 | 5.904.185 | 5.208.958 | 5.628.992 | 5.653.076 | –6,1 |
| Kanariar Uharteak | 3.602.113 | 3.488.603 | 3.461.219 | 3.264.170 | 3.300.344 | 3.213.050 | –10,8 |
| Kantabria | 138.517 | 151.840 | 142.378 | 150.080 | 125.981 | 143.765 | 3,8 |
| Gaztela eta Leon | 644.254 | 694.034 | 685.088 | 724.499 | 658.010 | 732.017 | 13,6 |
| Gaztela-Mantxa | 317.298 | 328.467 | 319.987 | 324.679 | 306.128 | 299.304 | –5,7 |
| Katalunia | 5.470.998 | 5.627.187 | 5.632.420 | 5.950.517 | 5.992.838 | 6.321.297 | 15,5 |
| Valentzia | 1.559.962 | 1.529.271 | 1.555.982 | 1.603.384 | 1.831.714 | 1.740.417 | 11,6 |
| Extremadura | 139.436 | 147.593 | 144.899 | 150.623 | 137.080 | 132.004 | –5,3 |
| Galizia | 406.836 | 449.602 | 456.807 | 474.049 | 531.900 | 588.263 | 44,6 |
| Madril | 2.485.261 | 2.760.522 | 2.512.901 | 2.472.854 | 2.482.893 | 2.638.940 | 6,2 |
| Murtzia | 105.388 | 119.568 | 133.583 | 148.592 | 163.560 | 166.761 | 58,2 |
| Nafarroa | 108.412 | 116.593 | 122.698 | 130.512 | 126.139 | 144.288 | 33,1 |
| **Euskadi** | **432.292** | **461.793** | **420.094** | **455.275** | **463.831** | **491.407** | **13,7** |
| Errioxa | 61.406 | 70.984 | 60.959 | 66.663 | 69.263 | 65.765 | 7,1 |
| Ceuta eta Melilla | 26.918 | 31.097 | 30.506 | 27.927 | 30.935 | 26.877 | –0,2 |

*Iturria:* INE. Hotel Okupazioari buruzko Inkesta.

## 4.7. LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEKO EGOERAREN EZAUGARRI OROKORRAK

### 4.7.1. Arabako Lurralde Historikoa

**Turismo-eskaeraren bilakaera**

- EAEn turisten sarrera eta gaualdi gutxien duen Lurralde Historikoa da Araba. 2004an, EAEko establezimenduetan izandako sarrera guztien %16,5 izan zuen eta gaualdien %15.

- 1997-2004 aldian izandako bilakaerari dagokionez, Arabako hazkuntza-erritmoak ez dira Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak bezain handiak izan, eta EAE osoan izandako hazkuntza handia lortzeko denbora-tarte luzeagoa behar izan du. Arabak ez zuen lortu Bizkaiak eta Gipuzkoak 1998. eta 1999. urteetan izandako hazkuntza handia. Are gehiago, 1999. urtean, atzeraldi txikia izan zuen.

- Hiriburuan, Gasteizen alegia, sarreren kopurua asko areagotu da 1997-2004 aldian (%72). Hala ere, 2004an, EAEko hiriburuetako hotel-establezimendu guztietako sarreren %18,1 besterik ez zituen izan Arabako hiriburuak.

- 1. taldeko hotel-establezimenduetako sarreretan izandako ehuneko-igoera 2. taldeko establezimenduetakoa baino handiagoa da. Hain zuzen ere, Gasteizko 1. taldeko hotel-establezimenduek izan dute, Bilboren atzetik, turisten sarreren eta gaualdien ehuneko-igoerarik handiena 1997-2004 aldian, Donostiakoek baino igoera handiena izan ere (%78,3 eta %58,1, hurrenez hurren).

- Barnealdeko estratuari dagokionez, Arabako barnealdeak A Fasea izenekoan izandako bilakaera negatiboa nabarmendu behar da; Bizkaiko eta Gipuzkoako barnealdeetan, berriz, hazkuntza handiak izan ziren, baita horiei eutsi ere, 1999-2004 aldian.

**Hotel-establezimenduetan izandako bisitari-sarrerak, estratuen arabera (%). Araba 2004**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Hotel-establezimenduetan izandako bisitari-sarreren bilakaera, estratuen arabera. Araba (1997-2004)**

| | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|
| Hiriburua. 1. taldea | 70.941 | 126.456 | 78,3 |
| Hiriburua. 2. taldea | 46.862 | 76.125 | 62,4 |
| Barnealdea | 84.754 | 86.364 | 1,9 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

## Batez besteko egonaldia

- Arabako lurraldeko batez besteko egonaldia, nola hotel-establezimenduetan hala landa-turismoko alojamenduetan, EAE osoko txikiena da (1,71 egun 2004an).

- Estratuen arabera, hiriburuko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia barnealdeko hotel-establezimenduetako egonaldia baino handiagoa da (Donostian bezalaxe).

- Bestalde, Bizkaiko eta Gipuzkoako egoerarekin alderatuta, aldea nabarmena da Araban; hain zuzen ere, 2 edo izar gutxiagoko establezimenduetako batez besteko egonaldiak 1. taldeko establezimenduetakoak baino luzeagoak dira.

## Establezimenduen eta alojamendu-plazen eskaintza

- Arabak ehuneko-igoera handia izan du alojamendu publikoaren eskaintzan (plaza-eskaintzaren %21,9ko hazkuntza 1997-2004 aldian).

- Hotel-eskaintzaren hazkuntza Bizkaikoa baino txikiagoa da; hala ere, ikus daitekeenez, hiriburuko eskaintzak, eta zehazki 1. taldeko plazek izan dute hazkuntzarik handiena.

- Nekazaritza-turismoko establezimenduei dagokienez, eskaintzaren bilakaera etengabea izan da 1994tik hona. Dena den, Arabako da 1997az geroztik hazkuntzarik txikiena izan duen lurraldea; hain zuzen ere, bertako plaza-eskaintza %42,7 igo da. 2004an, mota horretako alojamenduan dauden plaza guztien %15,8 du Arabak.

- EAEko 22 kanpinetatik 2 besterik ez daude Araban, hau da, EAEko era horretako establezimenduen plaza-eskaintza guztiaren %4,8.

## Okupazio-maila

- Arabako Lurralde Historikoan, 2001 izan zen 97-04 aldiko urterik onena, okupazio-mailei dagokienez, bai hiriburuan, baita barnealdeko establezimenduetan ere. Okupazio-maila %50,3koa izan zen. Handik aurrera, Arabak joera negatiboa izan du; hala ere, 2004. urtean hobera egin zuen eta %42,88ra iritsi zen. Nolanahi ere, Arabako okupazio-maila Bizkaikoa (%45,51) eta Gipuzkoakoa (%49,97) baino txikiagoa da.

- Estratuen araberako okupazio-mailari dagokionez, hainbat joera daude. Esate baterako, hiriburuan, Gasteizen, 1999ra arte okupazio-mailak gorako joera izan zuen, baina urte hartan jaisten hasi zen (–4,3) eta galera horri eutsi zion 2004ra arte; urte hartan, berriz, nabarmen hobetu zen. Barnealdeari dagokionez, 2001ean lortu zuen okupazio-mailarik onena (44,04), eta harrezkero zifrek behera egin dute urtez urte (2004an: 36,41).

- Arabako landa-turismoko establezimenduen okupazioari dagokionez, 2004ko zifrak EAEko txikienak dira (21,86), hain zuzen ere Gipuzkoan (31,26) eta Bizkaian (30,87) establezimendu mota horietan izandako kopuruak baino ia 10 puntu txikiagoak. Azken urteotako joera 21,5en ingurukoa izan da, eta ez da aldaketa nabarmenik izan.

## Turisten jatorria

- Arabari dagokionez, turista gehienak Estatuko beste leku batzuetakoak dira (%54,6); gainerako turista gehienak euskaldunak eta atzerritarrak dira, antzeko neurrian.

| | 1997 | | | 2004 | | | Ald. (%) 97-04 | | | 2004ko kuota (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria |
| Araba | 43.329 | 108.814 | 50.413 | 64.566 | 162.835 | 61.544 | 49,0 | 49,6 | 22,1 | 22,3 | 56,4 | 21,3 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

## Turisten motibazioa eta portaera

- Arabara joaten diren eta hotelen batean ostatu hartzen dutenen bidaiatzeko arrazoi nagusia lana da oraindik ere (%48). Aldiz, beste bi alojamendu motetan (kanpina eta alojamendua), aisia da arrazoi nagusia, gainerako Lurralde Historikoetan bezala.

- Aisiaren arrazoiari dagokionez, Araban hiri-turismoa nagusitzen da (%48,9); horren atzetik, kultura-turismoa (%20,6) eta landa- eta natura-jarduerak. Azken horien kopurua jaitsi egin da azken urtean (2003an, arlo horretakoak ziren aisiagatiko bidaien %44,8; 2004an, berriz, %15,1 besterik ez dira).

### 4.7.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

**Turismo-eskaeraren bilakaera**

- 2003ra arte, Gipuzkoan biltzen ziren EAEko hotel-establezimenduen turista-sarrera gehienak. 2004an, berriz, Bizkaia da lehen aldiz sarrera gehien izandako Lurraldea (%42,3), eta haren atzetik, Gipuzkoa (%41,2).

- EAEk 1997-1999 aldian izandako hazkuntza orokorra Gipuzkoan ez zen hain nabarmena izan; bertan, hazkuntza pixkanaka eta etenik gabe gertatu zen.

- 1997an, hiru hiriburuen artean, Donostia nagusitu zen; hala ere, pixkanaka Bilbok aurrea hartu dio. Aditzera eman behar da 1999-2004 aldian sarreren kopurua %2,3 besterik ez dela igo Donostian.

- Donostiako 1. taldeko hotel-establezimenduen ehuneko-igoerak 2. taldekoak baino handiagoak dira. Hala ere, Donostiako 1. taldeak izan du turisten sarreren eta gaualdien ehuneko-igoerarik txikiena 1997-2004 aldian (%44,3 eta %37,5), hiru hiriburuak alderatuta.

**Hotel-establezimenduetan izandako bisitari-sarrerak, estratuen arabera (%). Gipuzkoa (2004)**




*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Hotel-establezimenduetan izandako bisitari-sarreren bilakaera, estratuen arabera. Gipuzkoa (1997-2004)**

| | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|
| Hiriburua. 1. taldea | 182.570 | 263.410 | 44,3 |
| Hiriburua. 2. taldea | 113.747 | 137.401 | 20,8 |
| Itsasbazterra | 102.374 | 121.690 | 18,9 |
| Barnealdea | 118.295 | 199.303 | 68,5 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

## Batez besteko egonaldia

- Gipuzkoan, batez besteko egonaldia *EAEko luzeena da*, nola hotel-establezimenduetan hala landa-turismoko alojamenduetan *(1,95 hotel-establezimenduetan eta 3,1 landa-turismoko alojamenduetan)*.

- Estratuen arabera, *hiriburuko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia* barnealdeko hotel-establezimenduetako egonaldia baino handiagoa da (Gasteizen bezalaxe). *Gipuzkoako kostaldean, aldiz, hiru Lurraldeetako batez besteko egonaldirik luzeena dute, estratu guztietan.*

## Establezimenduen eta alojamendu-plazen eskaintza

- EAEko turismoa hedatu den aldian, Gipuzkoak ez du izan beste bi Lurraldeen joera berdina; izan ere, Gipuzkoako hotel-plazen eskaintza %6,3 igo da soilik.

- Hazkuntza hori hiriburuko hotel-establezimenduetan gertatu da batik bat, 1. taldeko hoteletan hain zuzen ere (%31,6).

- Nekazaritza-turismoko establezimenduei dagokienez, eskaintzaren bilakaera etengabea izan da 1994tik hona. Hortaz, 2004an Gipuzkoak du plaza kopururik handiena, guztizkoaren %53,7, hain zuzen ere.

- Kanpinei dagokienez ere Gipuzkoak du eskaintzarik zabalena; hain zuzen ere, EAEn dauden 22 kanpinetatik 13 Gipuzkoan daude, eta EAEko 10 plaza bakoitzeko 7.

## Okupazio-maila

- *Gipuzkoako hotel-establezimenduen okupazio-maila EAEko handiena da (49,9; Bizkaian, berriz, 45,51 eta Araban, 42,88)*. Bizkaian eta Araban ez bezala, Gipuzkoako alojamendu-eskaintza ez zen hainbeste igo. Horrek agian eragina izan du okupazioa ez aldatzeari-hazteari? dagokionez.

- Estratuen arabera, aditzera eman behar da Gasteizen bezala hiriburuko establezimenduen okupazio-maila hazi egin zela 1999ra arte, eta, ondoren, jaitsieraldi bat izan zela (Donostia: –5,01). Nolanahi ere, nabarmendu behar da 2004an maila hori asko hobetu dela.

- Landa-turismoko alojamenduen okupazio-mailari dagokionez, 2004an lehen aldiz gainditu da 1999ko okupazioa (%27,7). Gipuzkoako eta Bizkaiko portaera onek eragin dute hazkuntza hori; izan ere, 2004ko okupazio-tasa 2004koa baino hiru puntu handiagoa izan da lurralde horietan.

## Turisten jatorria

- Hiru Lurraldeetan bezalaxe, Estatuko gainerako lekuetatik etorritako turista da nagusi Gipuzkoan; izan ere, bertako hoteletan ostatu hartzen dituzten turista guztien %56,4 Estatuko gainerako lekuetakoak dira.

- Atzerriko turistak duen garrantziaz gain (turista guztien ia %30), Euskadi estatu frantsesetik hurbil dagoenez, txangozaletasunaren fenomenoak garrantzi handia du Gipuzkoan.

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien jatorrien bilakaera. Gipuzkoa (1997-2004)**

| | 1997 | | | 2004 | | | Ald. (%) 97-04 | | | 2004ko kuota | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atze-rria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atze-rria |
| Gipuzkoa | 62.834 | 294.038 | 160.114 | 103.910 | 407.040 | 210.854 | 65,4 | 38,4 | 31,7 | 14,4 | 56,4 | 29,2 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

### Turisten motibazioa eta portaera

- Aisia da Gipuzkoara bidaiatzeko arrazoi nagusia, bai hoteletan ostatu hartzen dutenentzat (%73,6), baita bestelako alojamendu publikoak aukeratzen dituztenentzat ere.

- Gipuzkoan, eta batez ere kostaldean, nabarmendu behar da aisiaren motibazioa dela nagusia hotel-establezimenduetan ostatu hartzen duten bidaiarien artean (%91,6). Bidaiari horien kopurua batez bestekotik askoz ere gorakoa da.

- Aisiaren arrazoiaren barnean, hiri-turismoa da nagusi Gipuzkoan (%55,1); eguzkiari eta hondartzari lotutako turismoak, berriz (2003an nagusi zen, %52,2), indarra galdu du eta aisiagatiko bidaien %7,2 besterik ez du eragiten.

## 4.7.3. Bizkaiko Lurralde Historikoa

### Turismo-eskaeraren bilakaera

- Bizkaia da EAEn azken urteotan portaerarik onena izan duen Lurralde Historikoa, turisten sarreren eta gaualdien kopuruari dagokionez. 2004an, Bizkaiak aurrea hartu dio lehen aldiz Gipuzkoari sarrera kopuruari dagokionez; izan ere, sarrera gehien izan dituen Lurraldea da.

- 1997-2004 aldian izandako bilakaerari dagokionez, sarreren eta gaualdien kopurua asko hazi zen Bizkaian 1998 eta 1999an. 2002tik aurrera ere hazkuntza horri eutsi zion, EAEko gainerako lurraldeetan baino azkarrago, eta, horri esker, EAE guztian turismoak izandako hazkuntzaren aitzindaria izan da.

- Hiriburuen artean, Bilbo da, ezbairik gabe, aztertutako aldian hazkuntzarik handiena izan duen hiriburua. Hain zuzen ere, ehuneko-igoerarik handiena izateaz gain (%79,4), hiru hiriburuetako sarrera guztien kopuruaren %46,2 Bilbori dagokio, eta, beraz, hiribururik garrantzitsuena da, baita turisten sarreren igoerarik handienak dituena ere.

- Zehazki, Bilboko 1. taldeko hotel-establezimenduek izan dute turisten sarreren eta gaualdien ehuneko-igoerarik handiena 1997-2004 aldian (%86,5 eta 87,1, hurrenez hurren).

- Bizkaiko kostaldean hazkuntza handia izan zen A Fasean, bai sarreretan, baita gaualdietan ere. Hain zuzen ere, 2004an, 73.400 turistak hartu zuten ostatu Bizkaiko kostaldeko hotel-establezimendue-

tan. Nolanahi ere, eta datu horretan Bilboko metropoli-areako hainbat udalerritan —Getxon, esaterako— zenbaturiko turisten sarrerak eta gaualdiak kontuan izan diren arren, horri dagozkion zifrak Gipuzkoako kostaldeari dagozkionak baino askoz ere txikiagoak dira. Izan ere, Gipuzkoako kostaldean 121.700 turistak hartu zuten ostatu 2004an.

- Barnealdeari dagokionez, Bizkaiak hazkuntza handiak izan ditu, eta hazkuntza horiei eutsi die 1999-2004 aldi osoan. Horretarako, lagungarria izan da Bizkaiari dagokionez Zamudio, Portugalete eta Santurtzi estratu horretan bildu izana.

**Hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak, estratuen arabera (%). BIZKAIA (2004)**




**Hotel-establezimenduetako bidaiari-sarreren bilakaera, estratuen arabera. BIZKAIA (1997-2004)**

| | 1997 | 2004 | Ald. (%) 97-04 |
|---|---|---|---|
| Hiriburua. 1. taldea | 239.494 | 446.551 | 86,5 |
| Hiriburua. 2. taldea | 49.391 | 71.743 | 45,3 |
| Itsasbazterra | 43.168 | 73.403 | 70,0 |
| Barnealdea | 43.408 | 147.988 | 240,9 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

## Batez besteko egonaldia

- Bizkaiko lurraldean, batez besteko egonaldia *EAEko batez bestekoaren barnean dago,* nola hotel-establezimenduetan hala landa-turismoko alojamenduetan *(1,88 hotel-establezimenduetan eta 2,9 landa-turismoko alojamenduetan)*.

- Hala ere, azken urteotako bilakaerak *joera negatiboa izan du 2002az geroztik*; urte hartan, hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 1,94 egunekoa izan zen.

- Estratuen arabera, eta Araban (batez besteko egonaldi luzeenak hiriburuan izaten dira) eta Gipuzkoan (batez besteko egonaldi luzeenak kostaldean izaten dira) ez bezala, *barnealdeko establezimenduetan izaten dira batez besteko egonaldirik luzeenak (1,94)*, eta, bertan, bidaiatzeko motibazio nagusia *lana edo negozioa* da (%48).

## Establezimenduen eta alojamendu-plazen eskaintza

- 2004az geroztik, Bizkaia da establezimendu eta hotel-plaza gehien dituen Lurraldea; hain zuzen ere, establezimendu guztien %41,2 eta plazen %44,9 Bizkaian daude. Izan ere, Bizkaiko hotel-eskaintza izugarri igo da, batez ere 1999az geroztik.

- Zehazki, Bizkaiko eskaintza-ehunekoa asko igo da hiru estratuetan. Aditzera eman beharra dago barnealdean eskaintza asko garatu dela, hala nola Portugaleten, Santurtzin, Zamudion eta Derion, denak ere Bilboko hinterland-eko udalerriak. Dena den, barnealdeko eskaintza Bizkaiko eskaintza guztiaren laurdena besterik ez da.

- Hazkuntzarik handiena Bilbok izan du, hiriburuak alegia, eta 1. taldeko establezimenduetan, zehazki. Establezimendu horiek plaza-eskaintza guztiaren %58,8 biltzen dute.

- Beraz, esan daiteke EAEn azken urteotan alojamendu-eskaintzak izan duen gorakada handia Bizkaiko Lurraldean izan dela nagusi eta Bizkaiko hiriburuan sortu dela, 3 eta izar gehiagoko hotel-establezimenduetan, hain zuzen ere.

- Gainerako lurraldeetan bezala, nekazaritza-turismoko establezimenduen eskaintza etengabe hazi da 1994tik hona, eta Bizkaiak izan du portaerarik onena 1997az geroztik; izan ere, bertako plaza-eskaintza %60tik gora hazi da. 2004an, plaza guztien %30,4 zituen Bizkaiak.

- Azkenik, kanpinei dagokienez, Bizkaiak 7 kanpin ditu, eta EAEko mota horretako establezimenduen plaza-eskaintza guztiaren %23,6 biltzen du.

## Okupazio-maila

- Bizkaian ezin izan da lortu berriz ere 1998. urtean hotel-establezimenduetan izandako okupazio-maila (48,91); 2004an, okupazio-maila 45,51koa izan da. 1999az geroztik alojamendu-eskaintza asko handitzeak ekarri du hori, hein handi batean.

- Gainerako hiriburuetan bezala, okupazio-mailak gora egin ondoren, 1999az geroztik jaitsiera etengabea izan da Bilbon (–4,18) 1999-2004 aldian. Nolanahi ere, nabarmendu behar da 2004an maila hori asko hobetu dela.

- Landa-turismoko alojamenduen okupazio-mailari dagokionez, Bizkaian bilakaera oso handia izan da, eta, horri esker, 2004ko okupazio-tasa 2003koa baino hiru puntu handiagoa da, gutxi gorabehera.

## Turisten jatorria

- 2004an, Bizkaia izan da bere hotel-establezimenduetan atzerriko eta EAEko turista gehien izan dituen lurraldea (guztizkoaren %45,6 eta %40,5, hurrenez hurren).

- Bilbo, eta zehazkiago 1. taldeko hotelak hartu dituzte helmugatzat Estatuko gainerako lekuetako turisten %65,8k eta atzerriko turisten %64,1k Bizkaira joan direnean. Talde hori da, halaber, Bizkaiko alojamenduetan turista-sarreren guztizko hazkuntzarako ekarpenik handiena egin duen helmuga; ildo horretan, oso garrantzitsua da atzerriko turistak eta Estatuko gainerako lekuetan bizi den turistak egindako ekarpena. *Horrek garbi uzten du berriz ere EAE osoan turismoak izan duen hazkuntzaren eragilea Bilboren portaera izan dela hein handi batean, nola A Fasean hala 2004. urtean.*

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien jatorrien bilakaera. Bizkaia (1997-2004)**

| | 1997 | | | 2004 | | | Var% 97-04 | | | 2004ko kuota | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atzerria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atze-rria | EAE | Estatua (EAE izan ezik) | Atze-rria |
| Bizkaia | 48.551 | 240.955 | 85.954 | 114.856 | 396.164 | 228.665 | 136,6 | 64,4 | 166,0 | 15,5 | 53,6 | 30,9 |

*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

## Turisten motibazioa eta portaera

- Bizkaiko hotel-establezimenduetan, bidaia egiteko arrazoi nagusiak aisia eta lana dira eta bien arteko aldea oso txikia da: %46,9 eta %46,1, hurrenez hurren. Aldiz, alojamendu publikoen beste bi motetan, aisia da arrazoi nagusia, gainerako Lurralde Historikoetan bezala.
- Bizkaira —kostaldera nahiz barnealdera— bidaiatzeko arrazoi nagusitzat lana duten bidaiarien ehunekoa batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da, hotel-establezimenduetan nahiz landa-turismoko alojamenduetan ostatu hartu dutenen artean.
- Aisiaren arrazoiari dagokionez, hiri-turismoa eta kultura-turismoa dira nagusiak Bizkaian (%36,5 eta %35,9, hurrenez hurren); eguzkiari eta hondartzari lotutako turismoak, berriz, aisiagatiko bidaien %8,8 besterik ez du eragiten (2003an, aisiagatiko bidaiak %35,3 izan ziren).

**EAEko Lurralde Historikoetako egoerari buruzko sintesi-taula. 2004**

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|
| **1. Turismo-eskaeraren bilakaera** | — 288.945 sarrera hoteletan.<br>— EAEko sarrera guztien %16,5 eta gaualdien %15.<br>— 97-04 bilak.: +%42,6 sarreretan. | — 739.685 sarrera hoteletan.<br>— EAEko sarrera guztien %42,3 eta gaualdien %42,3.<br>— 97-04 bilak.: +%97 sarreretan. | — 721.804 sarrera hoteletan.<br>— EAEko sarrera guztien %41,2 eta gaualdien %42,7.<br>— 97-04 bilak.: +%39,6 sarreretan. |
| **2. Batez besteko egonaldia** | — EAEko laburrena (1,71 hoteletan).<br>— Luzeena hiriburuko hotel-establezimenduetakoa (1,8).<br>— 2. taldeak du emaitzarik onena (2,03).<br>— Landa-turismoa: 2,59. | — 1,88: EAEko batez bestekoaren barnean.<br>— Joera negatiboa 2002az geroztik.<br>— Batez besteko egonaldi luzeenak: 2. taldeko establezimenduetan (2).<br>— Landa-turismoa: 2,93. | — EAEko luzeena (1,95).<br>— Gipuzkoako kostaldean izaten da EAEko batez besteko egonaldirik luzeena (2,19).<br>— Landa-turismoa: 3,14. |
| **3. Establezimenduen eta alojamendu-plazen eskaintza** | — 44 hotel eta 2.812 plaza.<br>— 97-04 bilak. hotel-plazetan: +%21,9.<br>— Plaza guztien %52,1 Hiriburuan daude, 1. taldean.<br>— 36 Nek.-tur.: 324 plaza. | — 89 hotel eta 7.683 plaza.<br>— 97-04 bilak. hotel-plazetan: +%66.<br>— Plaza guztien %58,8 Hiriburuan daude, 1. taldean.<br>— 61 Nek.-tur.: 621 plaza. | — 83 hotel eta 6.625 plaza.<br>— 97-04 bilak. hotel-plazetan:+%6,3.<br>— Plaza guztien %33,5 Hiriburuan daude, 1. taldean.<br>— 103 Nek.-tur.: 1.097 plaza. |
| **4. Okupazio-maila** | — Hotel-establ. 42,88.<br>— Landa-turismoa: 21,86. | — Hotel-establ. 45,51.<br>— Landa-turismoa: 30,87. | — Hotel-establ. 49,97.<br>— Landa-turismoa: 31,26. |
| **5. Turisten jatorria** | — Estatuko gainerako lekuak: %56,4.<br>— EAE: %22,3.<br>— Atzerria: %21,3. | — Estatuko gainerako lekuak: %53,6.<br>— EAE: %15,5.<br>— Atzerria: %30,9. | — Estatuko gainerako lekuak: %56,4.<br>— EAE: %14,4.<br>— Atzerria: %29,2. |
| **6. Turisten motibazioa eta portaera** | — Bidaiatzeko arrazoi-nagusia hotel-establezimenduetan: LANA (%48).<br>— Aisia: hiri-turismoa (%48,9), kultura-turismoa (%20,6) eta landa- nahiz natura-jarduerak (%15,1). | — Bidaiatzeko arrazoi-nagusia hotel-establezimenduetan: LANA (%46,1).<br>— Aisia: hiri-turismoa (%36,5), kultura-turismoa (%35,9) eta eguzkiari eta hondartzari lotutako turismoa (%8,8). | — Arrazoi nagusia, hotelei nahiz bestelako alojamendu publikoei dagokienez: AISIA (%73,6).<br>— Aisia: hiri-turismoa (%55,1), landa- eta natura-jarduerak (%9), eta eguzkiari eta hondartzari lotutako turismoa (%7,2). |

**Ondorioak:**

- 2004an EAEra etorri ziren 2.004.273 turistetatik, 598.772 atzerriko turistak izan ziren (%29,9), 1.007.480 Estatuko turistak izan ziren (%52,3), kanpinlarien proportzioa zenbatu gabe, eta 321.607 EAEko turistak izan ziren (%16,7), kanpinlarien proportzioa zenbatu gabe.

- Zehazki, hotel-establezimenduetan izandako turisten sarrerari dagokionez, 2004an Estatuko turistak EAEra etorritako turista guztien erdiak baino gehiago izan dira (%55,2%). Horien atzetik, atzerriko turistak (%28,6) eta EAEkoak bertakoak (%16,2) daude.

- 1997-1999 aldian, igoera handiak izan ziren jatorri guztietako turisten kopuruan. Azpimarratu beharra dago atzerriko turisten sarreren kopurua. 1999tik aurrera, berriz, EAEn bertan bizi diren turisten sarrerak etengabeak izan dira, baina atzerriko eta Estatuko turisten sarrerek gorabeherak izan dituzte, 2001. urtean batez ere.

- Hiru Lurraldeetako bilakaerari dagokionez, 1997tik 2003ra bitarte ehuneko-igoera handienak izan dituen lurraldea Bizkaia izan da (EAEtik eta atzerritik etorritako turisten zifra bikoiztu egin da ia). Beraz, euskal turismoak 1997-2003 aldian izan duen gorakada (hiriburuetan batez ere) EAEtik zein atzerritik etorritako turisten eta, funtsean, Estatutik etorritako turisten kopuru handiagoari esker lortu da.

- Ildo horretan, helmuga nagusiak hiriburuak dira Estatuko turistentzat (%66,6), atzerriko turistentzat (%64,4) zein EAEko turistentzat, horien kasuan ehunekoa txikiagoa bada ere (%49,4).

- Lurralde Historikoak kontuan hartuta, Bizkaiaren kasuan hiriburua eta 1. taldeko establezimenduak (3, 4 eta 5 izarrekoak) Estatuko turisten %64,3ren eta atzerriko turisten %61,7ren helmuga direla ikus daiteke. Talde hori, gainera, Bizkaiko alojamenduetan ostatu hartu duten turisten sarreren guztizko gehikuntzarako ekarpenik handiena egin duena da. Atzerriko eta Estatuko turisten ekarpena oso handia izan da.

- Landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten turisten sarrerei dagokienez, 2004an alojamendu mota horretan izan diren turisten ehuneko handiena Estatutik etorritako turistei dagokie (%47,1); EAEko turisten ehunekoa %43,5 izan da, baina 98-2004 aldian lehen taldekoek baino askoz igoera handiagoa izan dute.

- EAE barruko turismo-helmugen ikuspegitik, 2004an Gipuzkoa izan da sarrera kopuru handiena izan duen Lurraldea (guztizkoaren %48,7); Bizkaiko ehunekoa %33,1 izan da, eta Arabakoa %18,2.

- Azkenik, azpimarratu beharra dago 1998tik 2004ra bitarte ehuneko-igoera handienak izan dituena Gipuzkoa izan dela (4 puntutik gorako ehuneko-igoera izan du guztizkoarekiko). Behera gehien egin duen Lurraldea Bizkaia izan da (sarrera guztien %37,6 1998an eta %33,1 2004an).

## 4.8. TURISTAREN MOTIBAZIOA ETA PORTAERA

### 4.8.1. Bidaiaren arrazoi nagusia

EAEra turismo-bidaia egiteko arrazoi nagusia *aisia* da (%58,4). Ondoren, honako arrazoi hauek daude: lana/negozioak (%34,1) eta, urrunago, feriak eta kongresuak (%2,2).

**EAEra bidaia egiteko arrazoi nagusia (%) (2004)**




*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: gaua alojamendu-establezimendu publikoetan ematen duten turistak).

**EAEra bidaia egiteko arrazoi nagusia (%)**
**Datu zehatzak (2004)**

| | Guztira |
|---|---|
| Lana edo negozioak, oro har | 34,1 |
| Feriak | 0,6 |
| Kongresuak, konbentzioak eta abar | 1,6 |
| Ikasketak eta beste arrazoi akademiko batzuk | 0,7 |
| Erosketak eta zerbitzu pertsonalak | 0,1 |
| Bisitaldia senitartekoei eta adiskideei | 3,2 |
| Borondatezko osasun-tratamendua | 0,8 |
| Erlijioa, erromesaldiak | 0,2 |
| Aisia, olgeta, oporrak | 58,4 |
| Beste arrazoi batzuk | 0,3 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: gaua alojamendu-establezimendu publikoetan ematen duten turistak).

Alojamendu publikoaren tipologia kontuan hartuta, lanaren arrazoiak batez ere hotel-establezimenduetan du garrantzia. Landa-turismoko alojamenduetan eta kanpinetan, berriz, aisiaren arrazoia da garrantzitsuena.

**EAEra bidaia egiteko arrazoi nagusia, alojamendu publiko motaren arabera (%) (2004)**

| | Guztira | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpinak |
|---|---|---|---|---|
| Lana | **34,1** | 38,7 | 8,9 | 1,0 |
| Feriak eta kongresuak | **2,2** | 2,5 | 0,4 | 0,1 |
| Aisia | **58,4** | 53,3 | 85,3 | 95,9 |
| Beste batzuk | **5,3** | 5,5 | 5,4 | 3,0 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: gaua alojamendu-establezimendu publikoetan ematen duten turistak).

## Arrazoi nagusia, Lurraldeen arabera

*Lurralde Historikoak kontuan hartuta,* desberdintasun esanguratsuak agertzen dira bidaiatzeko arrazoi nagusiari dagokionez. Gipuzkoako establezimenduetara joateko arrazoi nagusia aisia da (%73,6). Bizkaian, aisia eta lana parean daude (%46,9 eta %46,1, hurrenez hurren). Araban, berriz, arrazoi nagusia lana da (%48), aisiaren aurretik (%43,6).

**EAEra bidaia egiteko arrazoi nagusia, Lurralde Historikoen arabera (%) (2004)**




*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: gaua alojamendu-establezimendu publikoetan ematen duten turistak).

Motibazioak estratuen eta alojamendu motaren arabera aztertuz gero, estratuen artean Lurralde Historikoaren arabera izan diren aldeak pixkanaka laburtzen ari direla ikus daiteke. Horrela, beraz:

- Azpimarratu beharra dago Gipuzkoan —eta, bereziki, kostaldean— batez bestekoa baino askoz ehuneko handiagoa lortu dela hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten eta bidaiatzeko motibazio nagusi aisia izan duten vidaiarien kopuruari dagokionez. Alde handia izan da Gipuzkoako kostaldearen eta Bizkaikoaren artean turisten motibazioari dagokionez. 2003-2004 aldian, aldea 9 puntutan murriztu da.

- Halaber, deigarria izan da Bizkaiko landa-turismoko alojamenduetan lanaren motibazioak garrantzi handiagoa izan duela, beste Lurralde Historikoetako landa-turismoko establezimenduekin konparatuta. Dena dela, alde hori ia 15 puntutan murriztu da 2003-2004 aldian.

**EAEra bidaia egiteko arrazoi nagusia, Lurralde Historikoen arabera (%) (hotel-establezimenduak)**

| 2004 | EAE | | | | ARABA | | | GIPUZKOA | | | | BIZKAIA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Hiriburua | Kostaldea | Barnealdea | Guztira | Hiriburua | Barnealdea | Guztira | Hiriburua | Kostaldea | Barnealdea | Guztira | Hiriburua | Kostaldea | Barnealdea |
| Lana | **38,7** | 43,2 | 18,8 | 37,4 | 51,8 | 69,9 | 13,9 | 22,4 | 20,2 | 8,8 | 36,6 | 50,2 | 51,7 | 35,7 | 53,5 |
| Feriak eta kongres. | **2,5** | 2,9 | 0,2 | 2,5 | 2,9 | 3,3 | 1,8 | 3,0 | 5,3 | 0,3 | 0,3 | 1,8 | 0,7 | | 5,8 |
| Aisia | **53,3** | 48,4 | 77,5 | 53,3 | 39,3 | 20,0 | 79,8 | 69,3 | 69,0 | 89,3 | 55,7 | 42,4 | 42,7 | 57,6 | 33,3 |
| Beste batzuk | **5,5** | 5,5 | 3,5 | 6,7 | 6,0 | 6,8 | 4,4 | 5,3 | 5,5 | 1,6 | 7,4 | 5,6 | 4,8 | 6,7 | 7,4 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

**EAEra bidaia egiteko arrazoi nagusia Lurralde Historikoen arabera (%) (landa-turismoko alojamenduak)**

| | GUZTIRA | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Lana | 8,9 | 2,0 | 5,3 | 17,5 |
| Feriak eta kongr. | 0,4 | 0,1 | 0,8 | — |
| Aisia | 85,3 | 95,4 | 87,8 | 76,4 |
| Beste batzuk | 5,4 | 2,5 | 6,0 | 6,1 |

**EAEra bidaia egiteko arrazoi nagusia Lurralde Historikoen arabera (%) (kanpinak)**

| | GUZTIRA | Gipuzkoa | Resto |
|---|---|---|---|
| Lana | 1,0 | 1,3 | 0,3 |
| Feriak eta kongr. | 0,1 | — | 0,3 |
| Aisia | 95,9 | 95,0 | 97,9 |
| Beste batzuk | 3,0 | 3,7 | 1,5 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

## Arrazoia: aisia

- *Gaua establezimendu publikoetan ematen duten eta bidaia egiteko arrazoi nagusi aisia edo oporrak dituzten turistak,arrazoi hori establezimendu motaren arabera sailkatuta.*

  Gaua establezimendu publikoetan ematen duten eta bidaiatzeko arrazoi nagusi aisia edo oporrak dituzten turisten barruan (establezimendu horietan gaua ematen duten turisten %79,4), eta aisiari lotutako arrazoien sailkapena kontuan hartuta, hiri-turismoa gero eta garrantzitsuagoa dela (kasuen %48,6) eta horren atzean kultura-turismoa dagoela (%17) ikus daiteke. Establezimendu motak aztertuta, hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten turisten eta landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten turisten kasuan gauza bera gertatzen dela ikus dezakegu. Aisiari lotutako arrazoi nagusiak hiri-turismoa eta, hurbil, landa-jarduerak eta natura jarduerak dira (%38,9 eta %33,1, hurrenez hurren).

  Kanpinetara joaten diren turisten kasuan, arrazoi nagusiak honako hauek dira, ordena honetan: landa-jarduerak eta natura-jarduerak (%34,6), eguzkia eta hondartza (%28,4) eta hiri-turismoa (%23).

**Aisia-bidaia egiteko arrazoi nagusiaren laburpen-agregazioa (%). 2004**




| | Guztira | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpina |
|---|---|---|---|---|
| Eguzkia eta hondartza | **6,9** | 2,9 | 9,0 | 28,4 |
| Landa-jarduerak eta natura-jarduerak | **8,9** | 2,4 | 33,1 | 34,6 |
| Kultura-turismoa | **17,0** | 20,2 | 5,1 | 4,5 |
| Hiri-turismoa | **48,6** | 53,9 | 38,9 | 23,0 |
| Beste batzuk* | **18,6** | 20,5 | 13,9 | 9,5 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

Oinarria: gaua establezimendu publikoetan ematen duten turistak.

* Beste arrazoiak honako hauek dira: ikuskizunetara joatea, erosketak eta zerbitzu pertsonalak, gaueko bizitza, osasun-turismoa, gastronomiari lotutako jarduerak eta abar.

- *Aisia-lekuan inkestatu diren eta bidaia egiteko arrazoi nagusi aisia edo oporrak dituzten bidaiariak, arrazoi hori Lurralde Historikoaren arabera sailkatuta.*

Aisia-lekuetan inkestatu diren eta arrazoi nagusi aisia duten turisten datuen arabera, hiri-turismoak indar handiagoa hartu du (grafikoak islatzen duenez), natura-jardueren edo eguzkiaren eta hondartzaren kaltetan.

**Aisiari lotutako arrazoia, Lurralde Historikoen arabera (%) 2004**



| | Euskadi | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Eguzkia eta hondartza | **6,9** | 0,5 | 7,2 | 8,8 |
| Landa-jarduerak eta natura-jarduerak | **8,9** | 15,1 | 9,0 | 6,4 |
| Kultura-turismoa | **17,0** | 20,6 | 5,9 | 35,9 |
| Hiri-turismoa | **48,6** | 48,9 | 55,1 | 36,5 |
| Beste batzuk* | **18,6** | 14,9 | 22,8 | 12,4 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

Aisia-lekuetan inkestatu diren eta bidaia egiteko arrazoi nagusi aisia/olgeta/oporrak dituzten bidaiariak.

* Beste arrazoiak honako hauek dira: ikuskizunetara joatea, erosketak eta zerbitzu pertsonalak, gaueko bizitza, osasun-turismoa, gastronomiari lotutako jarduerak eta abar.

Hiri-turismoa eguzkiari eta hondartzari lotutako turismoaren eta naturako turismoaren gainetik dago hiru Lurralde Historikoetan, zenbait desberdintasun badaude ere. Adibidez:

- Bizkaian, hiri-turismoak eta kultura-turismoak erakartzen dituzte aisia bilatzen duten turista gehien (%36,5 eta %35,9, hurrenez hurren).
- Gipuzkoan, aisiari lotutako arrazoi nagusia hiri-turismoa da (%55,1). Kultura-turismoak, berriz, ez du garrantzi handirik (%5,9).
- Araban, aisia bilatzen duten bisitari gehien erakartzen dituen arrazoi nagusia hiri-turismoa bada ere (%48,9), landa-jarduerek eta natura-jarduerek ere indar handia dute (%15,1).

**Aisiari lotutako arrazoia, Lurralde Historikoen eta estratuen arabera (%) 2004**

| | Araba | | | Gipuzkoa | | | | Bizkaia | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Gasteiz | Barnealdea | Guztira | Donostia | Kostaldea | Barnealdea | Guztira | Bilbo | Kostaldea | Barnealdea |
| Eguzkia eta hondartza | 0,5 | 0,8 | 0,4 | 7,2 | 7,2 | 11,0 | 0,6 | 8,8 | 0,8 | 30,2 | 1,4 |
| Landa-jarduerak eta natura-jarduerak | 15,1 | 0,7 | 21,3 | 9,0 | 5,4 | 18,3 | 3,1 | 6,4 | 0,6 | 11,0 | 17,1 |
| Kultura-turismoa | 20,6 | 9,7 | 25,3 | 5,9 | 7,4 | 5,8 | 2,0 | 35,9 | 60,8 | 5,0 | 6,4 |
| Hiri-turismoa | 48,9 | 62,1 | 43,2 | 55,1 | 66,9 | 53,2 | 24,7 | 36,5 | 29,6 | 35,7 | 58,8 |
| Beste batzuk* | 14,9 | 26,7 | 9,8 | 22,8 | 13,1 | 11,7 | 69,5 | 12,4 | 8,3 | 18,1 | 16,3 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

Aisia-lekuetan inkestatu diren eta bidaia egiteko arrazoi nagusi aisia/olgeta/oporrak dituzten bidaiariak.

* Beste arrazoiak honako hauek dira: ikuskizunetara joatea, erosketak eta zerbitzu pertsonalak, gaueko bizitza, osasun-turismoa, gastronomiari lotutako jarduerak eta abar.

### Arrazoia: lana

EAEra etorritako turisten %34,1en arrazoi nagusia lana da. Lanaren barruan, honako arrazoi hauek daude sartuta: lanak eta instalazioak egitea, salmentak, enpresaren barneko arrazoiak, egoitzetara bisitaldiak egitea eta abar. 2004an, honako hau izan da banaketa:

**Arrazoia: lana (%)**




| 2004 | GUZTIRA | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpinak |
|---|---|---|---|---|
| Sasoiako lana | **8,4** | 8,1 | 27,4 | 31,1 |
| Ondasunak eta zerbitzuak erostea | **8,3** | 8,4 | 2,4 | — |
| Salmentak (merkataritza-bisitaldia) | **21,9** | 22,0 | 18,7 | 5,3 |
| Lan edo instalazio bat egitea | **36,9** | 36,7 | 45,5 | 62,7 |
| Barneko arrazoiak/egoitzetara bisitaldiak egitea | **21,8** | 22,1 | 5,0 | — |
| Beste batzuk | **2,7** | 2,7 | 1,1 | 0,9 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

## Arrazoia: feriak eta kongresuak

Feriei eta kongresuei lotutako motibazioari dagokionez, Euskadira etorritako turisten arrazoi nagusien ehuneko txikia da oraindik (%2,2 2004an), baina aipamen berezia merezi du. Izan ere, azken urteotan bilakaera positiboa izan du, eragin ekonomikoa handia izan da eta gora egiteko aukera handiak ditu, *hirien artean kongresuak eta bilerak erakartzeko lehia gero eta handiagoa* bada ere. ICCAren (International Congress and Convention Association) datuen arabera:

- *Espainia* munduko bigarren herrialdea da kongresuei eta bilerei lotutako turismoari dagokionez.

- Segmentu horren *ehunekoa turismoak eragindako diru-sarrera guztien %10 da*, hau da, 3.000 milioi euro inguru 2003an.

*Negozioen edo kongresuen turista aisia-turista bihurtzea erraza da, eta horretan datza turismo-segmentu horren interesa.*

- Izan ere, bileretako ordezkariek eta horien laguntzaileek *gehien eskatzen dituzten jarduerak turismo-jarduerak* dira (5etik 4,5, batez beste), hau da, bilera egiten den lekuaren ingurune geografikoan kokatutako leku interesgarrietara egiten diren *bisitaldi eta txango antolatuak*. Ondoren, honako hauek daude: *jarduera gastronomikoak, kultura-jarduerak eta erosketak.*

Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Convention Bureau eta Spain Convention Bureau erakundeek emandako informazioari jarraiki, honako datu hauek ere azpimarratu egin behar dira:

- 2003an, 1.078 bilera egin ziren guztira Euskadin. Horrek esan nahi du *oso gorakada handia izan dela 1999ko zifren aldean* (urte hartan 350 bilera inguru egin ziren).

- Horrelako *ekitaldi gehien* antolatzen dituen lurraldea Bizkaia da (guztien %61). Atzetik, Gipuzkoa eta Araba daude.

- *Ekitaldi* mota kontuan hartuta, gehien egiten direnak honako hauek dira: jardunaldiak/mintegiak/sinposioak (635), kongresuak (100) eta konbentzioak (99).

- *Jarduerari* dagokionez, desberdintasunak daude Lurraldeen arabera. Araban, medikuntzaren, kulturaren eta zientziaren arloko bilerak dira nagusi. Gipuzkoan, berriz, gehien egiten diren bilerak ekonomiaren eta merkataritzaren ingurukoak eta, ondoren, medikuntzaren eta sanitatearen arlokoak. Azkenik, Bizkaian sektore publikoari eta sanitateari lotutakoak dira garrantzitsuenak. Estatuan, bileren %45,15 erakunde pribatuek sustatzen dute. Gainera, bilerak sustatzen dituzten erakundeen %53,8 udalerrikoa bertakoa da.

- Bilera horietarako *asistentziari* dagokionez, 2003an 183.311 ordezkari joan ziren guztira, eta horien %63 Bizkaian antolatutako bileretara joan zen. 1999-2003 aldian, bilakaera positiboa izan da. Izan ere, 1999an bertaratu zirenen kopurua 63.000 izan zen.

**Kongresu-jardueraren bilakaera (1999-2003)**

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1999 | 2003 | 1999 | 2003 | 1999 | 2003 |
| **Egindako bilerak, guztira** | **66** | **325** | **243** | **657** | **d.e.** | **96** |
| Jardunaldiak, mintegiak, sinposioak | 47 | 52 | 23 | 538 | 19 | 45 |
| Kongresuak | 14 | 24 | 123 | 48 | 19 | 28 |
| Konbentzioak | 5 | 3 | 97 | 71 | d.e. | 23 |
| Beste batzuk | — | 246 | — | 0 | — | 0 |
| **Bertaratutako ordezkariak, guztira** | **8.950** | **46.090** | **42.909** | **116.099** | **d.e.** | **21.122** |
| Jardunaldiak, mintegiak, sinposioak | 5.700 | 8.430 | 3.098 | 88.488 | 4.342 | 5.554 |
| Kongresuak | 2.550 | 8.460 | 27.327 | 15.108 | 6.995 | 11.506 |
| Konbentzioak | 700 | 600 | 12.484 | 12.503 | d.e. | 4.062 |
| Beste batzuk | — | 28.600 | — | 0 | — | 0 |
| **Ekitaldi bakoitzeko ordezkarien ratioa** | **135,6** | **142** | **176,6** | **177** | **—** | **220** |
| Jardunaldiak, mintegiak, sinposioak | 121,3 | 162 | 134,7 | 164 | 228,5 | 123 |
| Kongresuak | 182,1 | 353 | 222,2 | 315 | 368,2 | 411 |
| Konbentzioak | 140,0 | 200 | 128,7 | 176 | d.e. | 177 |
| Beste batzuk | — | 116 | — | 0 | — | 0 |
| **Bileren jarduera (%)** | **—** | **—** | **—** | **—** | **—** | **—** |
| Medikuntza eta sanitatea | 35 | — | 22 | 21 | 26 | 22 |
| Zientzia-sektorea | 5 | — | 5 | 0 | 13 | 2 |
| Kultura-sektorea | 10 | — | 13 | 4 | 3 | 10 |
| Ekonomiaren eta merkataritzaren sektorea | 5 | — | 3 | 5 | 18 | 36 |
| Sektore publikoa | 25 | — | 16 | 24 | 11 | 11 |
| Sektore teknologikoa | 10 | — | 12 | 9 | 16 | 8 |
| Unibertsitatea | 10 | — | 14 | 13 | — | 2 |
| Beste batzuk | — | — | 15 | 25 | 13 | 9 |

*Iturria:* Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Convention Bureau eta Spain Convention Bureau.

- *Ekitaldi bakoitzeko ordezkarien batez bestekoa* 170 lagun izan da, hau da, 1999an baino 70 ordezkari gehiago izan dira. Estatuan, 2003. urtean, *bileren erdietan baino gehiagotan* (%52,43) *50-150 parte-hartzaile izan dira.* 2002an eta 2003an, aurreko urteetan finkatutako joera hautsiz, *formatu txikiko bileren ehuneko handiena milioi bat biztanletik gorako hirietan lortu da* (%68,39 50-150 ordezkariko bilerak izan dira). Gainera, hiri horietan bildu dira *iraupen luzeko bilera gehienak* (3 eta 4 eguneko bileren %43,36 eta 4 egunetik gorako bileren %9,85; batez bestekoa 2,830 egun izan da)). *Hiri-espazioak eta bertako zerbitzuek neurri handian baldintzatzen dute bileren merkatua.* Hiria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ahalmen handiagoa du bertako egoitzetan bilerak sustatzeko.

## Erabilitako garraiobidea

*EAEra hurbiltzeko erabilitako garraiobidearen* ikuspuntutik, *atzerriko turisten %68,1 errepidetik* joaten da EAEra, eta gainerakoak hegazkinez. Nolanahi ere, adierazitako aldian igoera nabarmena izan du EAEra hegazkinez etortzen diren turisten kopuruak (baita 2003. urtearekin konparatuta ere). Beharbada, kostu txikiko aire-lineen garapenak eragina izan du horretan. Halaber, *Estatuko eta EAEko turisten* kasuan, *%90,3k errepidea* erabiltzen du EAEra etortzeko (%79,8 autoz eta %10,5 autobusez).

**EAEra etortzen diren atzerriko turisten bilakaera, garraiobidearen arabera (1998-2004)**

| | GUZTIRA | Garraiobidea | |
|---|---|---|---|
| | | Errepidea | Aireportua |
| 1998 | **710.676** | 485.982 | 224.694 |
| 1999 | **727.693** | 487.264 | 240.429 |
| 2000 | **692.310** | 433.024 | 259.286 |
| 2001 | **734.304** | 484.941 | 249.363 |
| 2002 | **878.603** | 653.706 | 250.438 |
| 2003 | **904.144** | 653.706 | 250.438 |
| 2004 | **878.084** | 597.793 | 280.291 |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Mugetako Turismo Mugimenduak (Frontur).

**Estatuko eta EAEko turistek EAEra egindako turismo-bidaiak, garraiobidearen arabera (1999-2003)**[3]

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 |
|---|---|---|---|---|---|
| Autoa | 589.865 | 682.255 | 693.994 | 755.214 | 764.089 |
| Autobús | 126.176 | 109.123 | 115.104 | 116.680 | 97.786 |
| Hegazkina | 33.147 | 33.708 | 9.457 | 23.939 | 24.440 |
| Trena | 37.541 | 77.430 | 39.237 | 42.571 | 39.068 |
| Itsasontzia | 0 | 0 | 923 | 0 | 0 |
| Beste batzuk | 0 | 13.828 | 6.223 | 1.726 | 4.652 |
| Ez dago daturik | 2.129 | 952 | 0 | 0 | 0 |
| **Guztira** | **788.858** | **917.296** | **864.938** | **940.130** | **930.035** |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Espainiarren Turismo Mugimenduak (Familitur).

[3] 2004ko datuak ez daude eskuragarri dokumentu hau lantzeko unean.

Turisten %61 *autoz etortzen da*, eta hamar turistatik hiruk baino ez dute *hegazkina erabiltzen* EAEra iristeko.

Hona hemen beste alderdi azpimarragarri batzuk:

- EAEra errepidetik iristen diren atzerriko turista gehienak Gipuzkoara joaten dira. Gipuzkoa helmuga da frantsesen, britainiarren, alemaniarren eta italiarren %60 baino gehiagorentzat.
- Araba iragaitzazko lurraldea da nagusiki, eta ez du atzerriko turistak beste arrazoi batzuengatik erakartzeko ahalmenik (azpimarratu beharra dago Araba helmuga dela portugaldarren %20rentzat eta frantsesen %14rentzat).
- Edonola ere, atzerriko turisten mugimenduari dagokionez lurraldeen arteko «iragazkortasuna» txikia dela ikus daiteke. Gaur egun, eta jatorria kontuan hartu gabe, EAEra etortzen diren turisten %15 baino ez da Lurralde Historiko bat baino gehiagora joaten.

### 4.8.2. Euskadira egindako bidaien maiztasuna. Turismo-leialtasuna

Azken 5 urteetan EAEra etorri diren turistek egindako bidaia guztiak kontuan hartuta, establezimendu publikoetan gaua eman duten turisten erdiek baino gehiagok (%59k) beste bidaiaren bat egina du EAEra. Gehienak 1-5 bidaia egin dituztenak dira (%39,1).

Establezimendu motak aztertuta, hotel-establezimenduetan lehen aldiz etorri diren turistak eta azken bost urteetan beste bidaiaren bat egin dutenak ia proportzio berean banatuta daude (%39,7 eta %38,8, hurrenez hurren).

Landa-turismoko establezimenduen kasuan, azken bost urteetan beste bidaiaren bat egin duten turistak dira nagusi (%44,7).

Kanpinetako turisten kasuan, berriz, EAEra lehen aldiz etorritakoak dira gehienak (%48,5).

**Azken 5 urteetan EAEra egindako bidaien kopurua (%). 2004**

| | GUZTIRA | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpinak |
|---|---|---|---|---|
| Bat ere ez | **40,4** | 39,7 | 37,3 | 48,5 |
| 1-5 bidaia | **39,1** | 38,8 | 44,7 | 38,5 |
| 6 bidaia edo gehiago | **19,1** | 20,8 | 17,6 | 12,6 |
| Zehaztu gabe | **0,6** | 0,6 | 0,4 | 0,4 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

### 4.8.3. Bidaiaren prestaketa

EAEra etorritako turisten artean, bidaia prestatu dutenak (erreserbak egin, informazioa bildu eta abar) eta prestatu ez dutenak ia proportzio berean banatuta daude. Hala ere, hotel-establezimenduetan eta, be-

reziki, landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten turista gehienek bidaiaren plangintza egin dute aldez aurretik.

**Bidaiaren aldez aurreko prestaketa (%) 2004**

| | GUZTIRA | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpinak |
|---|---|---|---|---|
| Ez | **47,4** | 46,2 | 30,2 | 68,5 |
| Bai | **52,6** | 53,8 | 69,8 | 31,5 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta.

Bidaia prestatu duten turistentzat, Euskadi helmugari buruzko informazio-iturri nagusiak honako hauek izan ziren: Internet (%37,9), bidaia-agentziak (%26,3), turismo-bulegoak (%23,4) eta liburuak eta gidak (%20,3), ordena horretan. Dena dela, establezimendu publikoaren tipologiaren arabera badaude zenbait desberdintasun. Adibidez, Euskadiko hotel-establezimenduetan gaua ematen duten turisten informazio-iturririk garrantzitsuenak bidaia-agentziak dira (%32,5). Landa-turismoko establezimenduetako eta kanpinetako turistentzat, berriz, Internet da garrantzitsuena, aldi handiarekin gainera (%50,10 eta %52,10, hurrenez hurren).

Dena dela, establezimendu publikoaren tipologiaren arabera, badaude zenbait desberdintasun. Adibidez, Euskadiko hotel-establezimenduetan gaua ematen duten turisten informazio-iturririk garrantzitsuenak bidaia-agentziak dira (%32,5). Landa-turismoko establezimenduetako eta kanpinetako turistentzat, berriz, Internet da garrantzitsuena, aldi handiarekin gainera (%50,10 eta %52,10, hurrenez hurren).

Erreserbaren formalizazioari dagokionez, erreserba egiteko erarik ohikoena telefonoa erabiltzea da (%43). Atzetik, bidaia-agentzien bitartekotza dago (%29,3).

**Informazio-iturrien erabilera, iturri nagusi, 2. mailako iturri edo 3. mailako iturri gisa (%)**
(Oinarria: bidaia prestatu duten turistak)

| | GUZTIRA | Gaua emateko establezimendu publikoak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpinak |
| Bidaia-agentzia | **26,30** | 32,50 | 11,40 | 22,20 |
| Liburuxkak | **9,40** | 3,80 | 16,90 | 30,40 |
| Adiskideak | **19,20** | 15,30 | 20,60 | 22,20 |
| Turismo-bulegoak | **23,40** | 19,30 | 22,90 | 33,20 |
| Artikuluak, egunkariak, aldizkariak | **1,80** | 1,10 | 1,60 | 3,00 |
| Telebista-programak | **0,50** | 0,50 | 0,60 | 1,80 |
| Liburuak, gidak | **20,30** | 13,10 | 26,80 | 44,80 |
| Klubak, elkarteak | **0,70** | 1,00 | 0,30 | 0,20 |
| Enbaxada, kontsuletxeak | **0,10** | 0,30 | 0,10 | — |
| Iragarkiak, publizitate-kanpainak | **0,20** | 0,30 | 0,30 | 0,20 |
| Internet | **37,90** | 29,20 | 50,10 | 52,10 |
| Bidaia-feriak | **0,30** | 0,30 | 0,20 | 0,10 |
| Beste iturri batzuk | **9,60** | 15,00 | 4,80 | 1,90 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

**Bidaiaren erreserba egiteko modua (%). 2004**

| | GUZTIRA | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpina |
|---|---|---|---|---|
| Ez zuten erreserbarik egin | **10,2** | 9,0 | 6,8 | 35,1 |
| Bidaia-agentzia baten bidez | **29,3** | 31,0 | 9,3 | 22,5 |
| Zuzenean (telefonoa) establezimenduetan edo | **43,0** | 41,8 | 76,2 | 26,1 |
| Internet bidez | **11,7** | 11,8 | 6,9 | 15,5 |
| Beste batzuk | **5,8** | 6,4 | 0,8 | 0,7 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

### 4.8.4. Bidaiatzeko modu soziala

IBILTURek 2004an Turismo Portaerei eta Tipologiei buruz egindako Inkestaren datuen arabera, EAEra etorritako turista gehienak jende gehiagorekin etorri dira (%80,9), eta, kasu gehienetan, bikotekidearekin (guztien %34,4). Hala ere, alojamendu mota kontuan hartuta, desberdintasunak agertzen dira. Hotel-establezimenduetan, bakarrik bidaiatzen duten turistak %21,5 dira; landa-turismoko establezimenduetan eta kanpinetan, berriz, askoz gutxiago (sarreren %4,6 eta %1,6, hurrenez hurren). Zalantzarik gabe, desberdintasun horretan lan-arrazoiek eragin handia izan dute.

Azkenik, Inkestaren arabera, EAEko turista gehienek hotel-establezimenduetan edo senitartekoen edo adiskideen etxebizitzetan hartzen dute ostatu, Euskadin edo Estatuko beste Autonomia Erkidego batean (Madrilen eta Bartzelonan bereziki) bizi dira, gizonezkoak, 30-49 urtekoak eta ezkonduak dira, bikotekidearekin etortzen dira, goi-mailako ikasketak dituzte eta errenta-maila ertainekoak edo ertain-altukoak dira.

### 4.8.5. EAEra egindako bidaiaren balioespena

Turismo-helmuga gisa, etortzen diren bidaiarien %83,2ren aurreikuspenak betetzen ditu EAEk. Iritzirik eman ez dutenak salbuetsita, bisitarien %5,1ek baino ez du frustrazioa sentitu.

Alojamendu mota kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten turisten balioespen handia (kasuen %96tan bete edo gainditu dituzte aurreikuspenak).

**EAEra egindako bidaiaren aurreikuspenen balioespena (%) 2004**

| | GUZTIRA | Hotel-establez. | Landa-turismoa | Kanpina |
|---|---|---|---|---|
| Gainditu ditu | **9,2** | 9,1 | 13,7 | 7,1 |
| Bete ditu | **83,2** | 82,9 | 82,2 | 86,8 |
| Gutxigatik ez ditu bete | **4,7** | 4,9 | 1,5 | 4,0 |
| Betetzetik urrun geratu da | **0,4** | 0,4 | — | 0,2 |
| Iritzirik gabe | **2,7** | 2,7 | 2,5 | 2,0 |

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta..

Oinarria: Gaua establezimendu publikoetan ematen duten turistak.

EAEra etorritako turistek gehien balioetsi dituzten alderdiak honako hauek dira, ordena honetan: paisaia eta ingurunea, herrien eta hirien ezaugarriak, gastronomia, pertsonak, eta zerbitzuen eta produktuen kalitatea.

Bestalde, gutxien balioetsi dituzten alderdiak honako hauek dira: klima, seinaleak eta komunikazioak, eta hirietako prezio altuak.

**Ondorioak:**

- EAEra turismo-bidaia egiteko arrazoi nagusia aisia da (%58,4). Ondoren, honako arrazoi hauek daude: lana/negozioak (%34,1) eta, urrunago, feriak eta kongresuak (%2,2).
- Lurralde Historikoak kontuan hartuta, desberdintasun esanguratsuak agertzen dira bidaiatzeko arrazoi nagusiari dagokionez. Gipuzkoako hoteletara joateko arrazoi nagusia aisia da (%73,6). Araban, berriz, arrazoi nagusia lana da (%48). Azkenik, Bizkaian aisiak eta lanak ia proportzio bera dute (%46,9 eta %46,1, hurrenez hurren).
- Gaua establezimendu publikoetan ematen duten eta bidaiatzeko arrazoi nagusi aisia edo oporrak dituzten turisten barruan, eta aisiari lotutako arrazoien sailkapena kontuan hartuta, hiri-turismoa kasuen %48,6 dela eta horren atzean kultura-turismoa dagoela (%17) ikus daiteke.
- Establezimendu motak aztertuta, hotel-establezimenduetan ostatu hartu duten turisten eta, neurri txikiagoan bada ere, landa-turismoko establezimenduetan ostatu hartu duten turisten kasuan gauza bera gertatzen dela ikus dezakegu (hiri-turismoa %38,9 eta landa-jarduerak eta natura-jarduerak %33,1). Kanpinen kasuan, berriz, arrazoi nagusiak honako hauek dira: landa-jarduerak eta natura-jarduerak (%34,6), eta eguzkia eta hondartza (%28,4).
- Aisiaren motibazioaren barruan, 2004an hiru Lurralde Historikoetan hiri-turismoa garrantzitsuena bada ere, bakoitzak bere profila du. Bizkaian, adibidez, hiri-turismoaren garrantzia eta kultura-turismoarena antzekoak dira. Araban, berriz, landa-jarduerak eta natura-jarduerak, eta hiri-turismoa dira garrantzitsuenak. Azkenik, Gipuzkoan bi alderdi hauek azpimarratu behar dira: hiri-turismoaren garrantzia (EAEko gainerako Lurralde Historikoetan baino askoz handiagoa) eta kultura-turismoaren indar txikia.
- Feriei eta kongresuei lotutako motibazioari dagokionez, Euskadira etorritako turisten arrazoi nagusien ehuneko txikia da oraindik (%2,2), baina azken urteotan izan duen bilakaera positiboa, eragin ekonomiko handia eta gora egiteko aukera handiak azpimarratu behar dira. 2003an, 1.078 bilera egin ziren guztira EAEn. Horrek esan nahi du oso gorakada handia izan dela 1999ko zifren aldean (urte hartan 350 bilera inguru egin ziren).
- Erabilitako garraiobideari dagokionez, atzerriko turisten %68,1 errepidetik joaten da EAEra, eta gainerakoak hegazkinez. Halaber, Estatuko eta EAEko turisten kasuan, %90,3k errepidea erabiltzen du EAEra etortzeko (%79,8 autoz eta %10,5 autobusez).
- Turisten leialtasunari dagokionez, azken 5 urteetan EAEra etorri diren turistek egindako bidaia guztiak kontuan hartuta, establezimendu publikoetan gaua eman duten turisten erdiek baino gehiagok (%59k) beste bidaiaren bat egina du EAEra.
- Bestalde, azpimarratu beharra dago EAEra etorritako turisten artean bidaia prestatu dutenak (erreserbak egin, informazioa bildu eta abar) eta prestatu ez dutenak ia proportzio berean banatuta daudela.
- Zehazki, Euskadi helmugari buruzko informazioa lortzeko gehien erabili diren iturriak bidaia-agentziak eta Internet izan dira. Erreserbaren formalizazioari dagokionez, erreserba egiteko erarik ohikoena telefonoa erabiltzea da (%43). Atzetik, bidaia-agentzien bitartekotza dago (%29,3).
- EAEra etorritako turista gehienak jende gehiagorekin etorri dira (%80,9), eta, kasu gehienetan, bikotekidearekin (guztien %34,4). Hala ere, alojamendu mota kontuan hartuta, desberdintasunak agertzen dira. Hotel-establezimenduetan, bakarrik bidaiatzen duten turistak %21,5 dira; landa-turismoko establezimenduetan eta kanpinetan, berriz, askoz gutxiago (sarreren %4,6 eta %1,6, hurrenez hurren).
- Turismo-helmuga gisa, etortzen diren bidaiarien %83,2ren aurreikuspenak betetzen ditu Euskadik. Iritzirik eman ez dutenak salbuetsita, bisitarien %5,1ek baino ez du frustrazioa sentitu. Turistek gehien balioetsi dituzten alderdiak honako hauek dira, ordena honetan: paisaia eta ingurunea, herrien eta hirien ezaugarriak, gastronomia, pertsonak, eta zerbitzuen eta produktuen kalitatea.
- Azkenik, 2004ko Inkestaren arabera, EAEko turista gehienek hotel-establezimenduetan edo senitartekoen edo adiskideen etxebizitzetan hartzen dute ostatu, Euskadin edo Estatuko beste Autonomia Erkidego batean (Madrilen eta Bartzelonan bereziki) bizi dira, gizonezkoak, 30-49 urtekoak eta ezkonduak dira, bikotekidearekin etortzen dira, goi-mailako ikasketak dituzte eta errenta-maila ertainekoak edo ertain-altukoak dira.

## 4.9. BATEZ BESTEKO GASTUA

### 4.9.1. Atzerriko turisten gastua

Eskuragarri ditugun azken datuen arabera, bidaiaren helburu nagusi gisa EAE aukeratu duten *atzerriko turistek* egindako *batez besteko gastua* 52,2 euro izan da 2003an. Beraz, %15eko igoera izan da 2002ko zifrarekin alderatuta.

Estatuko batez bestekoarekin konparatuta, EAEra etorritako atzerriko turisten gastua txikiagoa da (69,1 euro eta 52,2 euro, hurrenez hurren). Inguruko beste Autonomia Erkidego batzuen aldean, berriz, gastua handixeagoa da EAEn (Asturiasen 46,7 euro, Kantabrian 49 eta Galizian 43,6).

Nolanahi ere, gastu hori bidaia egiteko *egindako guztizko gastua* da, eta bidaiaren aurreko eta ondorengo gastuak eta bidaian bertan egindakoak hartzen ditu kontuan.

**EAEra etorritako atzerriko turistak. Batez besteko gastua (2002-2003)**

| | 2002 | | 2003 | |
|---|---|---|---|---|
| | Pertsonako batez besteko gastua | Pertsonako eta eguneko batez besteko gastua | Pertsonako batez besteko gastua | Pertsonako eta eguneko batez besteko gastua |
| **Espainia** | **757,9** | **67,2** | **739,2** | **69,1** |
| Andaluzia | 807,6 | 62,4 | 781,3 | 63,1 |
| Aragoi | 678,3 | 44,2 | 549,7 | 52,2 |
| Asturias | 673,5 | 40,1 | 629,3 | 46,7 |
| Balear Uharteak | 877,5 | 82,3 | 855,7 | 83,2 |
| Kanariar Uharteak | 966,5 | 84,1 | 903,0 | 84,4 |
| Kantabria | 563,8 | 43,5 | 562,0 | 49,0 |
| Gaztela-Mantxa | 629,0 | 48,7 | 802,1 | 54,1 |
| Gaztela eta Leon | 343,0 | 47,0 | 362,6 | 48,6 |
| Katalunia | 522,5 | 54,9 | 539,2 | 60,1 |
| Valentzia | 772,9 | 51,4 | 813,8 | 56,1 |
| Extremadura | 355,8 | 41,0 | 389,1 | 50,8 |
| Galizia | 618,2 | 46,4 | 547,2 | 43,6 |
| Madril | 747,6 | 88,5 | 697,1 | 83,4 |
| Murtzia | 829,6 | 46,0 | 871,9 | 49,5 |
| Nafarroa | 531,4 | 45,1 | 508,8 | 45,4 |
| **Euskadi** | **505,7** | **45,4** | **439,3** | **52,2** |
| Errioxa | 401,2 | 37,8 | 501,2 | 35,5 |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Mugetako Turismo Mugimenduak (Frontur).

Bidaiarien helmuga diren Autonomia Erkidegoetan egindako batez besteko gastua kontuan hartuta, bidaiari kopuru handienak dituzten Autonomia Erkidegoetako hiru batez bestekoaren azpitik daudela ikus daiteke: Kanariar Uharteak, Balear Uharteak eta Valentzia. Funtsean, turismo-paketearekin antolatutako bidaia kopuru handiagatik gertatu da hori (jatorrian bertan egindako gastua).

Bestalde, helmugan egindako gastuari buruzko datu berrienen arabera (2002koak), eguneko batez besteko gasturik handiena Madrilen, Nafarroan, Katalunian eta Euskadin egin da (41, 38, 38 eta 36 euro, hurre-

nez hurren). Espainian egindako gastua kontuan hartuta (hau da, jatorrian egindako gastuaren osagairik gabe), errenta-maila handieneko Erkidego horietan egiten dute bisitariek eguneko batez besteko gasturik handiena helmugan.

**Atzerriko bidaiariek helmugan egindako eguneko batez besteko gastua, helmuga nagusitzat hartutako Autonomia Erkidegoaren arabera (eurotan). 2002**




*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Mugetako Turismo Mugimenduak (Frontur).

## 4.9.2. Estatuan eta Euskadin bizi diren turisten gastua

*Estatuan bizi diren turistei* dagokienez, Familitur-en 2004ko datuen arabera Euskadi seigarren Autonomia Erkidegoa da bidaiari bakoitzeko eguneko batez besteko gastuari dagokionez (47,9 euro). Batez besteko gastu handiagoa duten Erkidegoak honako hauek dira: Kanariar Uharteak (92,4), Balear Uharteak (88,8), Madril (60,5), Ceuta eta Melilla (54,5) eta Errioxa (53,7).

Espainia Berdeko Autonomia Erkidegoetan, berriz, bidaiari bakoitzeko batez besteko gastua 46,4 euro da Kantabrian, 51,2 euro Asturiasen eta 45,8 euro Galizian.

**Euskadi helmugatzat hartu duten bidaiarien eguneko batez besteko gastua eta Estatu osoan egindako gastuarekiko konparazioa (1999-2004)**




*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Espainiarren Turismo Mugimenduak (Familitur).

**Autonomia Erkidegoak helmugatzat hartu dituzten bidaiarien eguneko batez besteko gastua (1999-2004)**

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | Ald. (%) (99-04) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | **38,7** | **37,7** | **39,5** | **40,2** | **44,5** | **47,9** | **23,8** |
| Andaluzia | 35,6 | 36,9 | 36,1 | 38,3 | 45,9 | 44,9 | 26,1 |
| Aragoi | 64,1 | 37,3 | 41,1 | 37,8 | 40,9 | 39,0 | –39,2 |
| Asturias | 38,0 | 49,0 | 39,9 | 37,6 | 39,8 | 51,2 | 34,7 |
| Balear Uharteak | 59,5 | 62,1 | 66,3 | 63,7 | 66,4 | 88,8 | 49,2 |
| Kanariar Uharteak | 74,9 | 46,7 | 66,1 | 62,8 | 73,0 | 92,4 | 23,4 |
| Kantabria | 41,0 | 41,7 | 43,5 | 46,1 | 41,9 | 46,4 | 13,2 |
| Gaztela-Mantxa | 26,9 | 27,3 | 26,5 | 27,5 | 35,1 | 36,1 | 34,2 |
| Gaztela eta Leon | 25,1 | 27,9 | 31,4 | 32,4 | 35,0 | 38,0 | 51,4 |
| Katalunia | 42,3 | 39,6 | 43,0 | 43,2 | 44,7 | 47,3 | 11,8 |
| Valentzia | 31,9 | 33,1 | 35,6 | 35,8 | 39,6 | 43,2 | 35,4 |
| Extremadura | 24,4 | 29,3 | 29,3 | 31,8 | 30,8 | 36,0 | 47,5 |
| Galizia | 36,5 | 38,3 | 40,4 | 49,7 | 43,5 | 45,8 | 25,5 |
| Madril | 50,5 | 57,0 | 55,1 | 53,1 | 62,8 | 60,5 | 19,8 |
| Murtzia | 29,3 | 23,6 | 29,7 | 29,9 | 33,7 | 40,4 | 37,9 |
| Nafarroa | 48,5 | 39,3 | 41,5 | 32,1 | 29,5 | 44,7 | –7,8 |
| **Euskadi** | **41,3** | **46,7** | **43,3** | **50,6** | **48,4** | **51,4** | **24,5** |
| Errioxa | 44,6 | 34,9 | 36,8 | 36,2 | 39,3 | 53,7 | 20,4 |
| Ceuta eta Melilla | 48,1 | 37,2 | 33,7 | 80,7 | 94,1 | 54,5 | 13,3 |

*Iturria:* Turismo Azterlanen Institutua. Espainiarren Turismo Mugimenduak (Familitur).

Bidaia bat egiteko bidaiaren aurretik, ondoren eta bidaian bertan egiten diren gastu guztien eta bidaiaren egun kopuruaren arteko zatidura da eguneko batez besteko gastua.

## Ondorioak:

- Eskuragarri ditugun azken datuen arabera, bidaiaren helburu nagusi gisa EAE aukeratu duten *atzerriko turistek* egindako *batez besteko gastua* 52,2 euro izan da 2003an. Beraz, %15eko igoera izan da 2002ko zifrarekin alderatuta. Eguneko batez besteko gasturik handiena Madrilen, Nafarroan, Katalunian eta Euskadin egin da (41, 38, 38 eta 36 euro, hurrenez hurren).

- *Estatuan bizi diren turistei* dagokienez, Euskadik postu bat galdu du eta seigarren Autonomia Erkidegoa da batez besteko gastuari dagokionez. Batez besteko gastu handiagoa duten Erkidegoak honako hauek dira: Kanariar Uharteak (92,4), Balear Uharteak (88,8), Madril (60,5), Ceuta eta Melilla (54,5) eta Errioxa (53,7). Espainia Berdeko Autonomia Erkidegoetan, berriz, batez besteko gastua 45,8 eurotik (Galizian) 51,2 eurora (Asturiasen) bitarte da.